

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

2988

AGINDUA, 2022ko ekainaren 21ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez, eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzea xede duen birgaitzeetarako laguntza-programen oinarriak zehaztu eta deialdi publikoa arautzen baita (laguntza horiek Europar Batasunak finantzatutako Next generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizi-tegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko 3., 4. eta 5. programak arautzen dituen 853/2021 Errege Dekretuan jasota daude).

COVID-19ak eragindako pandemiak krisi ekonomiko, sozial eta sanitarioa ekarri du. Erronka handia denez, erantzun bateratua eman behar izan zaio Europan. Epe ertainera erantzuteko, asmo handiko Suspertze Funtz bat jarri da abian COVID-19 osteko munduko ekonomiak berreraikitze prozesuan laguntzeko, 2021etik aurrera.

2020ko uztailaren 21ean Europako Kontseiluak Suspertze Planaren inguruko Ondorioak eta 2021-2027rako Urte anitzeko Finantza Esparrua onartu ditu. Neurri horiek 2021-2027 epealdirako Urte anitzeko Finantza Esparrua (UFE) osatuz, Europa-mailako Suspertze Instrumentu baten («NextGenerationEU» delakoaren) abiaraztea bultzatu dute. Aipatuaren funtsezko osagaia da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak onartu duen Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa.

Europako Suspertze Funtzeko finantza-bitartekoak exekutatzeko instrumentazioa Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (2021eko apirilaren 27ko Ministro Kontseiluaren Akordioa) bitartez eta Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko Exekuzio-erabakian (Council Implementing Decision - CID) xedatutakoarekin bat gauzatuko da.

Espainiako Gobernuak abenduaren 30eko 36/2020 Legegintzako Errege Dekretua onartu du, zeinak Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko presako neurriak onartu baititu. Bai eta ondoko aginduak ere: HFP/1030/2021, irailaren 29koa, Berreskuratze, Transformazio eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena; eta HFP/1031/2021, irailaren 29koa, Susperraldirako, Transformaziorako eta Erresilientziarako Planaren mugarriak eta helburuak betetzen direla jarraitzeko eta horren osagarri dagozkien neurriak aurrekontuaren eta kontabilitatearen arabera betearazteko estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko sektore publikoko erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezarri dituena.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak eragile ekonomiko eta sozial guztien, gobernu-maila guztien eta administrazio publikoaren baliabide guztien inplikazioa eskatzen du. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana osatzen duten proiektuek datozen urteetan egiturazko erreformak egitea ahalbidetuko dute, arau-aldaketen eta inbertsioen bidez; beraz, ekoizpen-eredua aldatzea ahalbidetuko dute, COVID-19k eragindako pandemiaren ondoren ekonomia berreskuratze, eta, halaber, egitura erresilienteago eta inklusiboago bateranzko transformazio bat, garrantzi bereziko; hori guztia, interes publikorako, sozialerako eta ekonomikorako.

Plan honen lehen ardatzean inbertsio publikoa eta pribatua indartu nahi dira, ekoizpen-eredua birbideratzeko. Horretarako, trantsizio berdea, deskarbonizazioa, energia-efizientzia, energia

berriztagarrien hedapena, ekonomiaren elektrifikazioa, energia-biltegiaren garapena, ekonomia zirkularra, naturan oinarritutako soluzioak eta sektore ekonomiko guztien erresilientziaren hobekuntza sustatuko dira. Berariaz jasotzen da 2. osagai bat, hiri- eta landa-eremuetan eraikin-parkea birgaitzeko eta hobetzeko jarduketak bultzatzera bideratua, Espainiako Hiri Agendaren esparru estrategikoarekin, eta energiaren eta jasangarritasunaren eremuan ahalik eta anbizio handiena ziurtatuta; aldi berean, eraikinen kalitatea, kontserbazio-egoera, irisgarritasuna eta digitalizazioa hobetzen lagunduko duten jarduketa integralak bultzatzen dira eta, era berean, alokairu sozialeko etxebizitzak ahalik eta kalitate eta efizientzia estandar altuenekin eraikitzea sustatzen da.

2. osagai horrek eraberritze- eta inbertsio-multzo bat ezartzen du, bizitegi-erabilerako eraikinen birgaitze-arloan bereziki aurrera egiteko aukera emango dutenak. Jarduera hori sustatzeko, erregulazio-eremuko neurriak eta ingurune egokia sortzeko finantzaketa erabiliko dira, eta alokairu sozialeko etxebizitza bultzatuko da, eskubide konstituzionalaren zerbitzura dagoen tresna eraginkor gisa. Laguntza-sistema horren artikulazioa urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan garatzen da. Dekretu horren bidez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak autonomia erkidegoen bitartez Bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko laguntza-programak arautzen dira. Horren eskutik, eta autonomia-erkidegoen bitartez, honako laguntza-programa hauek antolatu eta arautu dira:

- 1.– Auzo-mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programa.
- 2.– Birgaitze-bulegoei laguntzeko programa.
- 3.– Eraikinetan birgaitze-lanak egiteko laguntza-programa.
- 4.– Etxebizitzetan energia-efizientzia hobetzeko jarduketentzako laguntza-programa.
- 5.– Dagoeneko eraikia dagoen eraikinen birgaitzerako liburua egiteko eta birgaitze-proiektuak idazteko laguntza-programa.
- 6.– Energetikoki efizienteak diren eraikinetan alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitzen laguntzeko programa.

Errege Dekretu horretan xedatutakoa garatzeko xedearekin egin da Agindu hau, 3., 4. eta 5. programetako oinarriak zehaztu eta dirulaguntza gisa onuradunen alde emango diren zuzeneko laguntzen deialdi publikoa antolatzeko.

Agindu honetan araututako laguntzak emateko prozedura izango da zuzeneko emakida, irailaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak 22.2.c) eta 28. artikuluetan ezarritakoari jarraiki, nor-gehiagokako deialdi publikoa egiteak dakartzan zailtasunak justifikatzen dituzten interes sozialeko eta ekonomikoko arrazoiak baitaude. Bestalde, laguntzen deialdia ekitaldi bakoitzerako aurreikusitako diren funtsak agortu arte egongo da irekita.

3., 4. eta 5. programetako deialdien erregimena zehazterakoan, eta beti ere 853/2021 Errege Dekretuak dioenarekin bat, lerrokatzerik egokiena bilatu nahi izan da bizitegi birgaitzearen arloan sustapenari dagokionez Euskadin dauden instrumentu eta erremintekin, bere zerbitzura dauden instrumentu teknikoak aintzat hartuz ere; eta hori guztia, Autonomia Erkidegoan bizi dugun errealitate instituzionalaren baitan.

Hiritarrei ahalik eta zerbitzurik onena eskaini eta eraikinen eta etxebizitzaren bizitegi birgaitzearen arloan dauden laguntzak erraztasunez eskuratzeko aukera bermatu nahian, sare-sistema indartu beharko da, Birgaitze-bulegoen bitartez. Hauek, «leihatila bakar» gisa lan egingo dute, hiritarren mesederako. Bestalde, eta xede horrekin ere, birgaitze-bulego horiek Erakunde laguntzaileen

eginkizunak har litzakete laguntzak bideratuko dituzten instrukzio-organoen berezko eginkizunak gauzatu ahal izateko. Xede horretarako, Agindu honek «Birgaitze-bulego» eta Erakunde laguntzaile izendatzen du VISESA sozietate publikoa eta izaera hori eskuratzeko aukera ematen die urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuko baldintzak betetzen dituzten beste entitate batzuei eta, bereziki, Euskadiko Hiria Birgaitzeko Hirigintza Sozietateen (BHS) sareari, abenduaren 26ko 210/2019 Dekretuak, kreditu-erakundeen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-lankidetzakoa, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoak aldatu zuen Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak 18. artikuluko laugarren paragrafoan dagoeneko dioenarekin bat. Horrenbestez, dagokion aldebiko lankidetzak-hitzarmenak sinatu beharko dira.

Bitarteko publikoen erabileran ahalik eta efizientziarik handiena lortzeko eta hiritarrei dagozkien laguntzak eskuratzeko aukera errazteko helburu bikoitz horren eskutik beharrezkoa da ere SEM mekanismoa jatorri duten itzuli beharrik gabeko dirulaguntza hauen eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduak, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriak buruzkoak jasotzen dituen horien eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren abenduaren 7ko Aginduak, alokairua eta etxebizitzaren eta bizitoki-eraikinen bestelako erabilerak sustatzeko jarduketei buruzkoak zehazten dituen horien arteko bateragarritasun-erregimena arautzea eta, hala badagokio, lehentasun-erregimena egokitzea eta argitzea.

Xede horietarako, finantzaketa bikoitza sailhesteko printzipioa aintzat hartu da, energia-efizientzia hobetzea xede duen birgaitzerako gauzatu den jarduketa bakar batek ez ditzan xede berbera duten bi dirulaguntza edo gehiago jaso. Horrenbestez, Agindu honek lehentasuna ematen die SEM mekanismoa jatorri duten energia-efizientzia hobetzeko laguntzei, autonomia-jatorria duten horien aurrean; hori guztia, Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzei buruzko 2021eko ekainaren 16ko Kontseiluaren Exekuzio-erabakiaren (CID, ingelesez) eranskinean Estatuak konprometitu dituen helburuen lorpena eta laguntzen esleitzea eta exekuzioa Euskaditik ahalbidetzeko, EK 149.1.13 artikulua araberako ekonomia eragintza, plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa Estuari dagozkion alorrak direla aintzat hartuz.

Horrenbestez, eta Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena) eta urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuak (Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena) ematen didaten eskumenaz baliatuz, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko laguntza-programak arautzen dituen urriaren 5eko 853/2021 Errege-dekretuan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan, Susperraldirako, Eraldaketarako eta Erresilientziarako Planaren mugarriak eta helburuak betetzen direla jarraitzeko eta horren osagarri dagozkien neurriak aurrekontuaren eta kontabilitatearen arabera betearazteko estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko sektore publikoko erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezarri dituen irailaren 29ko Aginduan, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena), Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu dakizkiekeen gainerako xedapenetan xedatutakoa erekin bat, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da 3., 4. eta 5. programen eskutik emango diren laguntzen oinarriak garatzea eta beren deialdi publikoa arautzea. Aipatu programak araututa daude urriaren 5eko 853/2021 Errege-dekretuan, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM) 2. Osagaiaren baitan eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzeko xedearekin Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko Bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko laguntza-programen artean.

Aurreko paragrafoan adierazitakoari jarraiki, ondoko programa eta jarduketa motetarako laguntzak eskaintzen dira:

1) 3. Programa: etxebizitza-eraikinetan birgaitze-lanak egiteko laguntza. Birgaitze-lanak edo -jarduketak eraikuntzaren osagai komunetan, bi familiarentzako edo elkarri atxikitako etxebizitzaren instalazio edo zerbitzu komunetan, familia bakarreko etxebizitzetan eta etxebizitza-erabilera nagusia eta jabetza-erregimen horizontala duten bizitegi-tipologia kolektiboko eraikinetan, jabetza pribatuko edo jabetza bakarreko higiezin-konplexuan egiten direnerako.

2) 4. Programa: etxebizitzetan energia-efizientzia hobetzea xede duten birgaitze-jarduketarako laguntzak. Birgaitze-lanak edo -jarduketak jabetza horizontaleko edo higiezin-konplexu pribatuko erregimeneko eraikinetako osagai pribatiboetan, etxebizitzetan zein etxebizitza-erabilera duten lokaletan egiten direnerako.

3) 5. Programa: dagoeneko eraikita dagoen eraikinaren birgaitzerako dokumentazio teknikoa egin edo egokitzeko laguntzak; eta dagokion jarduketak garatu ahal izateko beharrezkoak diren proiektu teknikoak idazteko laguntzak.

2.– Halaber, Agindu honen xedea da laguntza hauen bateragarritasun- eta lehentasun-erregimena zehaztea Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduak, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoak jasotzen dituen finantza-neurrien eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren abenduaren 7ko Aginduak, alokairua eta etxebizitzaren eta bizitoki-eraikinen bestelako erabilerak sustatzeko jarduketei buruzkoak zehazten dituen laguntzen aurretik.

2. artikulua.– Laguntzen dirulaguntza-izaera.

Europar Batasunak finantzatutako Next generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko laguntza-programak arautzen dituen urriaren 5eko 853/2021 Errege-dekretuko 3., 4. eta 5. programen kargura Agindu honetan eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia hobetzeko xedearekin arautu diren laguntzek dirulaguntza-izaera dute.

3. artikulua.– Bateragarritasun- eta lehentasun-erregimena beste laguntzen aurrean.

1.– Orokorrean, Agindu honek arautzen dituen laguntzak bateragarriak izango dira bizitegi-eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia hobetzeko helburu berbera duten beste laguntza publiko

guztiekin, beti ere diruz lagundutako jarduketaren kostua gainditzen ez badute eta tokiko, erki-dego-mailako, nazio-mailako edo Europako beste laguntzek ere bateragarritasun hori aitortzen badute.

Horrenbestez, laguntza hauek ez dira bateragarriak izango Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bitartez finantzaturiko programen harira aurreikusitako beste guztiekin, beren araudi bereziaren eta programa horietako bakoitzerako Agindu honetan zehaztutako araudiaren baldintzetan.

2.– Nolanahi ere, energia-efizientzia hobetzeko xedea duten Agindu honetako laguntzetako bat jaso duten eraikinen eta etxebizitzaren lanek edo jarduketek ezingo dute beste laguntzarik jaso, kontzeptu berberari lotuta, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzko 2021eko uztailaren 21eko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren Aginduaren eskutik. Salbuespen bakarria izango da Agindu honetako Xedapen Iragankorrean adierazitakoa.

Xede horietarako, Agindu honetan deialdia arautua duten laguntzek lehentasuna izango dute Etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzko 2021eko uztailaren 21eko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren Aginduak jasotzen dituen horien aurrean. Zentzu horretan, Agindu honetan arautu diren etxebizitzaren eta eraikinen energia-efizientzia hobetzeko obrak edo jarduketak diruz laguntzeko laguntzak aplikagarriak ez direnean baino ez dira onartu eta esleituko Etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzko 2021eko uztailaren 21eko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren Aginduak jasotzen dituen dirulaguntzak. Xede horietarako, etxebizitzaren eta eraikinen energia-efizientzia hobetzeko obrak edo jarduketak diruz babesteko laguntzen eskariak Agindu honetan ezarritakoari jarraiki izapidetuko dira eta eskariak laguntza jaso ahal izateko Agindu honek zehazten dituen baldintzak betetzen ez dituela egiaztatuta ostean, eskari hori ebatziko da Etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzko 2021eko uztailaren 21eko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren Aginduan xedatutakoa aintzat hartuz.

3.– Nolanahi ere, Agindu honetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira Finantza-lankidetzarako Hitzarmenetik eta Finantza-instrumentu Berezitik (210/2019 Dekretuak, abenduaren 26koak, kreditu-erakundearen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-lankidetzakoa, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoak edo bere ordean onartutako arauak araututa) eratorritako dirulaguntza-izaerako eta izaera hori ez duten laguntzekin.

Laguntzen azken hartzaile diren onuradunek Kreditu-erakundearen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-lankidetzako, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzeko abenduaren 26ko 210/2019 Dekretuak aurreikusten dituen finantza-neurriak eskatu ahaliko dituzte. (EHAA, 12. zk., 2020ko urtarrilaren 20koa).

Mailegu kualifikatuak onartzeko edo esleituriko mailegu kualifikatuetako balizko interes-subsidiararako erreferentziatzeko araudia hartuko da aintzat.

Mailegu kualifikatuaren kasuan, ez badira obrak egiten, bai eta laguntzen galera ekarriko lukeen beste edozein ez betetzeren kasuan, hasierako baldintzetan onartutako maileguaren baimen administratiboa baliogabetuko da eta, ondorioz, maileguaren negoziazio berria aldean boron-

datearen mende geratuko litzateke, Kreditu-erakundeen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko finantza-lankidetzako, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzeko abenduaren 26ko 210/2019 Dekretuak edo bere orde onartutako arauak beren eranskinetan eraikinen eta etxebizitzaren irisgarritasuna eta energia-efizientzia hobetzeko xedearekin egingo den birgaitzea ahalbidetzeko jasotzen dituzten Finantza-lankidetzako Hitzarmenean eta Finantza-instrumentu Berezia jasotako baldintzetatik at.

4.– Artikulu honetan xedatutakoa egiaztatu ahal izateko, interesdunek xede berberarekin eskatu edo jaso dituzten beste laguntza guztiak Agindu honetan arautzen diren laguntzen eskarian jaso beharko dituzte, bai eta xede berbera duen beste edozein eskari edo laguntzaren existentzia ere. Horretarako, erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko da.

5.– Bateragarritzat jo diren deklaraturako laguntza guztien izapidetzeak horietako bakoitzerako beren arautze-deialdi eta -oinarrietan ezarri den prozedura jarraituko du.

Lehentasun-erregimenaren araberako laguntza-espeditteen barne izapidetzea ondoren gara daiteke, Etxebizitza Sailburuordetzaren dagokion jarraibideen bitartez.

Edonola ere, hiritarrei begira lehentasuna emango zaio bizitegi-eraikinen birgaitzea xede duten laguntza guztien izapidetze bateratuari, leihatila bakarraren eginkizunak beteko dituzten Birgaitze-bulegoen eta Erakunde laguntzaileen bitartez. Barne-izapidetze bateraturako prozedura laguntzak kudeatuko dituzten erakunde laguntzaile ezberdinekin sinaturiko hitzarmenetan garatuko da.

4. artikulua.– Zerga-onurak.

Agindu honetan arautzen diren laguntzak guztiz bateragarriak dira etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzea xede dituzten jarduketei lotuta foru-ogasunek ezarri dituzten kenketa, hobari eta beste edozein zerga-onurarekin; hori guztia, beren araudi berezian ezarritako baldintzetan.

5. artikulua.– Laguntzak esleitzeko sistema.

1.– Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM) 2. Osagaiaren baitan eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzeko xedearekin Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko Bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko laguntza-programak arautzen dituenak dioenari jarraiki Agindu honetan deitu diren laguntza-programei dagozkien laguntzak zuzenean esleitzeko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 22. artikulua betez.

2.– Dagokion laguntzen eskariak aurkeztu diren ordenaren arabera aukeratuko dira hurrengo artikuluan zehaztuko diren programetako bakoitzerako aurreikusi diren funtsak bai eta epe motzera eta 2026. urtera arte xede berberari lotuta jaso eta gaituko liratekeen funtsak agortu arte. Ordainketa-kredituek izaera loteslea izango dute programen artean edo izaera mugatzaila programetako bakoitzerako, arau honetan jasotako publizitate-mekanismoen bitartez berariaz jasotzen denaren arabera.

6. artikulua.– Balaibide ekonomikoak.

1.– Agindu honen xedea lortzera bideraturako balaibide ekonomikoen jatorria izango dira 853/2021 Errege Dekretuko 5. artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen 11/2021 Legea betez berariaz eta horretarako zehaztu diren dagokion aurrekontu-kredituak.

Aldebiko jarraipen-batzordearen baitan Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak sinatuko duten akordio baten bitartez, hasiera batean egingo den banaketa adostu eta alda daiteke, hala badagokio, C02.I01 Inbertsioaren programa ezberdinen (1-5 programak) artean, laguntza mota bakoitzaren eskarira egokitzuz, eskuragarri dauden bitartekoak optimizatu ahal izateko.

2.– 2022. eta 2023. ekitaldietarako, hasiera batean, dagoeneko gauzaturiko kreditu-gaitzearen ostean, 39.140.906 euroko zenbatekoa esleituko da. Honek, eta bere 5. artikuluko hirugarren atalak diotenaren arabera, izaera loteslea du urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuak, eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzeko xedearekin Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko Bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko laguntza-programak arautzen dituenak jasotzen dituen 2., 3., 4. eta 5. programen artean. Lotura horren eskutik, Programaren batean soberan geratu den zenbatekoak beste Programa bati esleitu zaion zenbatekoa areagotu dezake, beti ere Programa bakoitzerako urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuak, eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzeko xedearekin Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko Bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko laguntza-programak arautzen dituenak, 5.3 artikuluan zehaztu dituen gehieneko eta gutxieneko esleipenak urratzen ez badira.

Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean eman beharreko laguntzen guztizko bolumenak ezingo du dago-kion esleipena gainditu; edo, ezta ere, indarreko legediari jarraiki onartutako aurrekontu-zuzenketen ondorioz ezarritako esleipen horiek.

3.– Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM) 2. Osagaiaren baitan eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzeko xedearekin Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko Bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko laguntza-programak arautzen dituenak 5. artikuluko 2. atalean diotenaren arabera, esleitutako zenbateko globala eta, hala badagokio, Agindu honetan adierazitako Programetako bakoitzari egindako esleipen indibiduala osatuak izan daitezke, laguntzak ebatzi baino lehen, Agindu honetako 3. artikuluan zehaztutako bateragarritasun- eta lehentasun-erregimenaren baitan, etxebizitzaren eta bizitegi-eraikinen birgaitzea xede duten Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko berezko beste programa batzuen exekuzioan soberan geratu diren aurrekontu-funtsak erabiliz horretarako. Horren berri emango da Etxebizitzako sailburuordearen ebazpen baten bitartez.

4.– Etxebizitzako sailburuordearen ebazpen baten bitartez iragarriko dira aurrekontuetan eginitako zuzenketen ondorioz onar zitezkeen kredituen eguneratzeak. Halaber, Programa bakoitzera bideratutako laguntzak finantzatzeko urteko kreditua eta, dagokionean, aipatua osatzen duten funtsak agortu direla jakinaraziko da ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako iragarki baten bitartez. Urteko kreditua agortu dela argitaratu ostean, aurrekontu-ekitaldi horretan aurkeztutako laguntza-eskari guztiak zuzenean ukatuko dira.

5.– Agindu honetan jasotako programa ezberdinetako laguntzen deialdia dagokion Dirulaguntzen Datu Basean argitaratuko da.

7. artikulua.– Laguntzen zuzenbide-esparru orokorra.

1.– Zuzenbide-erregimena, aplikatu beharreko araudi berezia, dirulaguntzen onuradunen baldintzak eta betebeharrak eta laguntzak esleitzeko prozedura zehaztuko dute Deialdi-agindu honek eta ondokoek: urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuak, eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzeko xedearekin Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko Bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko laguntza-programak arautzen dituenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak, abenduaren 30eko 36/2020 Legegintzako Errege-dekretuak, Herri Administrazioa modernizatzeko eta Suspertze,

Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartu dituenak, HFP/1030/2021 Aginduak, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzten duenak; eta HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Susperraldirako, Eraldaketarako eta Erresilientziarako Planaren mugariak eta helburuak betetzen direla jarraitzeko eta horren osagarri dagozkien neurriak aurrekontuaren eta kontabilitatearen arabera betearazteko estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko sektore publikoko erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezarri dituenak, Gobernu Kontseiluak 2022ko otsailaren 8an adostu zuen akordioak, aurrekontua eta kontabilitatea gauzatzeko, eta berreskuratzeko, eraldatzeko eta erresilientziarako planari lotutako jarduketak kudeatzeko eta horien jarraipena egitekoak, Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an hartu zuen Akordioaren bitartez onartu zuen lruzurraren aurkako Planak, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak eta bere Erregelamendua onartu zuen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, 1/1997 Legegintza Dekretuak, azaroaren 11koak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak eta 11/2021 Legeak, abenduaren 23koak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituenak. Araudi honetan aurreikusi ez den guztirako Administrazio Zuzenbidearen arauak aplikatuko dira.

2.– Agindu honek, azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 22.2.c) eta 28.2 eta 28.3 artikuluek eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartu zuen bere Erregelamenduko 67. artikulua diotena betez, laguntzak emateko dagokion deialdiaren arau bereziak zehaztea du xede.

3.– Aplikatuko dira ere Batzordearen 1407/2013 Erregelamendua (EB), 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoa eta Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamendua, 2014ko ekainaren 17koa, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluekin bat laguntza kategoriatan jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarri izendatzeari buruzkoa, aplikatu daitezkeen nazio-mailako zein Europar Batasuneko zuzenbideen beste xedapen guztiei kalterik egin gabe; bereziki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan zehaztutako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (SEEP) exekutatu eta kudeatzeko arloan onarturiko horiek, bai eta funtsak aplikatzeko ardura duen nazio-mailako agintaritzak onar zitezkeen beste xedapen guztiak ere.

8. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen kostuak. Araubide orokorra.

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra dioenaren arabera, diruz lagundu daitezkeen kostuak mugatuko dira birgaitze-obra eta -jarduketei loturiko sailen eta kontzeptuen multzora bakarrik: diruz lagundu daitezkeen eraikinetako osagai komunetan eta etxebizitzetako pribatiboetan eginiko jarduketak bai eta horiek proiektatu edo antolatzen dituzten dokumentu teknikoak idazteari loturiko kostuak ere, programetako bakoitzean ezarritakoaren arabera.

Orokorrean, ondokoak diruz lagundu daitezkeen kostuak izango dira: jarduketan garapenari datzekion kudeaketa eta loturiko gastuak, inplikaturiko profesionalen zerbitzu-sariak, obra-zuzendaritza barne, beharrezko proiektuak, txosten teknikoak eta ziurtagiriak idazteko kostuak, izapidetze administratiboaren ondoriozko gastuak eta antzeko beste gastu orokor batzuk, beti ere egokiro justifikatuta badaude. Ezingo dira diruz lagundu lizentzia, tasa, zerga edo tributuei loturiko kostuak. Nolanahi ere, diruz lagundu daitezkeen horien artean BEZ egongo da, beti ere osotasunean edo partzialki berreskuratu edo konpentsatu ezin bada.

Proiektuak dagokion programaren kargurako dirulaguntza jaso badu birgaitzearen exekuzio-proiektuak idazteko, jasotako zenbatekoa eraikinak birgaitzeko programaren kargura jasotako dirulaguntzatik

kenduko da. Azken programa horri loturiko gehieneko laguntza-zenbatekoa zehazterakoan proiektuaren kostua diruz lagundu daitezkeen inbertsioan sartuko da eta dagokion programaren barruan proiektua idazteko jaso den zenbatekoa gehieneko zenbateko horretatik kenduko da.

2.– Higiezinan egindako jarduketa globalaren barruan Agindu honetako programa ezberdinetan zehaztutakoaren arabera diruz lagundu ez daitezkeen kontzeptuak daudenean, beste laguntzaren bat jasotzeko baldintzak betetzen dituzten ala ez aintzat hartu gabe, diruz lagundu daitezkeen kostuak izango dira programetako bakoitzerako deskribatu diren kostu-sailei loturiko horiek. Kasu horietan diruz lagundu daitezkeen kostuak izango dira, soil-soilik, ordainsari teknikoak eta jarduketa globalaren beste kudeaketa-gastuak, proportzionalki. Proportzionaltasun hori kalkulatzeko diruz lagundu daitezkeen kostuek obraren kostu osoarekiko suposatzen duten zenbatekoa hartuko da aintzat.

3.– Ezingo da diruz lagundu, Agindu honetan arautu diren programen kargura, birgaitze-jarduketak gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren eraikinen zatiak edo lurzorua erosteko kostua.

II. KAPITULUA

LAGUNTZAK IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

9. artikulua.– Eskariak aurkeztea. Interesdunen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Laguntzak esleitzeko prozedura abiatuko da Eusko Jaurlaritzako Administrazio Orokorra-ekin lankidetzeta-hitzarmena sinatu duten Birgaitze-bulegoen aurrean eskaria aurkezten denean. Aipatu bulegoen zerrenda ohiko bideen bidez iragarriko da, hiritarren mesederako.

Eskaria Euskadiko Administrazio Orokorren erregistroan aurkeztuko balitz eta ez balego inolako erakunde laguntzailerik eskari hori izapidetzeko, eskaria Visesa sozietate publikoari igorriko zaio, izapide dezan.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduak, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoak jasotzen duen birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obretarako finantza-neurriak (3. lerroa) izeneko lerroari loturiko eskariei dagokienez, Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoari jarraituko zaio.

2.– Eskariak dagokion jarduketan pertsona titularrek edo laguntzen onuradunek, beren legezko ordezkariak edo birgaitzea gauzatu edo kudeatuko duten entitateek aurkeztuko dituzte, Agindu honetako 26. artikuluan jasotako baldintzetan.

Eraikinetan eragingo dituzten jarduketan kasuan, laguntzak izapidetuko dituzte eraikinaren jabe bakarra den pertsonak edo jabeen erkidegoaren ordezkariak, Jabetza Horizontalaren uztailaren 21eko 49/1960 Legean ezarritako baldintzetan; edo, bestela, behar bezala akreditatua egongo den erkidegoaren ordezkari batek. Halaber, eskariak aurkeztu ahaliko ditu ere etxebizitza-kooperatibaren edo birgaitze-jarduketetan edozein ziorengatik parte hartuko duten enpresen, entitateen edo sozietateen ordezkariak.

3.– Programetan zehaztutako laguntzak eskatu ahaliko dira Deialdi-agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera, esleituriko kredituak agortzen diren arte. Azken gertaera horren berri emango da Etxebizitza Sailburuordearen Ebazpen baten bitartez.

4.– Eskariarekin batera, laguntzen onuradun izateko ezarritako baldintzen betetzea egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, Agindu honetan dagokion programarako xedatutakoaren arabera.

Laguntzen xede den jarduketak proiektu bat behar badu eta eskarian memoria bakarrik sartu bada, organo eskudunak ondoko berariazko ebazpen-baldintza sar dezake laguntza emateko ebazpenean: laguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunean hasiko den hiru hileko gehieneko epean emandako laguntzari dagokion jarduketaren proiektua aurkeztu beharko dela. Nolanahi ere, epe horren barruan deialdia itxiko balitz funtsak agortu direlako, lehentasuna emango zaie dagokion dokumentazioa zuzenki eta osotasunean aurkeztu duten eskariei.

5.– Eskatzaileak, laguntzen eskarian, berariaz baimen dezake izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna, ezarritako baldintzen betetzea egiaztatzeko legalki egoki den beharrezko informazio guztia bil dezan, zerga- edo ekonomia-izaerako hori bereziki. Ezingo da bildutako zerga- edo ekonomia-izaerako informazio hori hirugarrenen esku utzi.

6.– Eskariak dakar 1/1997 Legegintza Dekretuak, azaroaren 11koak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, 50. artikulua 6. atalean jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena egiteko betebeharra.

Eskaria eta dokumentazioa aurkezteak esan nahi du baldintzarik eta salbuespenik gabe onartzen direla urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan eta programa ezberdinak deitzeko Agindu honetan jasotako baldintzak.

7.– Interesa duten pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko entitateek eta beren jarduera profesionala gauzatu ahal izateko elkargo bateko kide derrigorrez izan behar duten pertsonen bide elektronikoak erabili beharko dituzte prozeduraren izapideak eskatu, kontsultatu eta egiteko. Eskariak edo erantzukizunpeko adierazpenak egiteko argibideak eta beste eredu guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza elektronikoan daude (url):

<https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa/>

Eskarien osteko izapideak ondoko helbidean egin beharko dira:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza elektronikoak identifikazioa egiteko eta sinadura elektronikorako onartzen dituen bitartekoak ondoko helbidean daude adierazita:

<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Pertsona fisikoek bitarteko elektronikoak erabiliz edo aurrez aurre eska, kontsulta eta egin ditzakete izapide guztiak. Eskaria egin eta dokumentazioa aurkezteko aurrez aurreko kanala edo kanal elektronikoak erabiltzeak ez du ondoko izapideetan kanal hori erabiltzera behartzen eta aipatu kanala alda daiteke, Administrazio Elektronikoaren otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak dioenari jarraiki.

– Aurrez aurreko kanala: eskariak aurrez aurre aurkeztu beharko dira, xede horretarako eta dagokion lankidetzaz hitzarmenak sinatu ostean berariaz gaitu diren Birgaitze-bulegoetan egongo diren erregistroetan. Eskaria egin eta dokumentazioa aurkezteko Zuzenean zerbitzua (eskariak Zuzenean zerbitzuaren bitartez egiteko ordua eskatu beharko da aldezturik (<https://www.euskadi.eus/hitzordua-zuzenean>), EAEko erregistro laguntzaileak (apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoak jasotzen ditu) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan zehazten dituen organoak erabiliz gero eskari hori Visesari igorriko zaio, izapidetu dezan. Eskari-ereduak arau honetako I., III. eta IV. eranskinetan jaso dira, hurrenez hurren.

– Kanal elektronikoa: eskariak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza elektronikora sartuz aurkeztuko dira, atal honetan jasotako helbideen bitartez:

III. Programa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1211802>

IV. Programa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1211801>

V. Programa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1211804>

Administrazio Publikoekin dituen harremanetarako baliabide elektronikoak erabiltzera behartuta dagoen pertsonaren edo entitatearen batek bere eskaria aurrez aurre aurkeztuko balu, laguntza kudeatzen duen organoak akats hori zuzendu eta baliabide elektronikoez baliatuz aurkeztea eskatuko dio. Xede hauetarako, egoera zuzendu eta eskari elektronikoa erabiliz egin den eskariaren data hartuko da eskaria aurkezteko datatzat.

Nolanahi ere, administrazio-prozeduraren izapidetzean bermatuko da Administrazioarekin harreman elektronikoa izateko hiritarrek duten eskubidea eta laguntza eskainiko da dokumentuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa zerrendatutako bulegoetan era elektronikoa aurkeztu ahal izateko.

Ordezkarri baten bitartez ere egin daiteke izapidetze elektronikoa. Horretarako, ordezkari hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen erregistro elektronikoa inskribatu ahalko da, honako webgune honetan:

<https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

8.– Interesdunek ez dute Administrazio Publikoen esku dauden eta bere sare korporatiboen bitartez edo datuak partekatzeke plataformetan egindako kontsulten bitartez edo xede horretarako gaituriko beste sistema elektronikoa batzuen bitartez elektronikoki kontsulta daitezkeen datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko beren berriazko aurkakotasuna agertu ezean, prozedura zehatz bakoitzean, Agindu honetan araututako laguntzak izapidetzeko eskumena duen organoaren aurrean. Nolanahi ere, uneoro dago datu eta dokumentuen kontsulta elektronikoa aurka berriaz egiteko aukera. Hori eginez gero, datu eta dokumentu horiek aurkeztu beharko dira.

9.– Eskariarekin batera interes-gatazkarik ezaren adierazpena aurkeztu beharko da, Agindu honetako VI. eranskineko ereduari jarraiki.

10.– Eskariak aurkezteko eta prozedura izapidetzeko egungo legediak agintzen duen hizkuntzen koofizialtasuneko erregimena bete beharko da. Honela, interesdunak hizkuntza aukeratu ahalko du, euskara edo gaztelera, izapideak egin eta jakinarazpenak jasotzeko. Berriazko adierazpena egon ezean ulertuko da bere eskaria izapidetzeko organo eskudunaren aurrean erabili duen hizkuntza aukeratu duela interesdunak.

11.– Eraikinaren energia-efizientzia hobetzeko jardueren garapenari lotuta Agindu honetako 32. artikuluan zehaztu diren zaurgarritasun-egoeran dauden pertsona edo bizikidetzak-unitate zehatzen aldeko laguntza osagarriak eskatzen diren kasuetan, laguntza horiei loturiko eskaria Eraikinaren energia-efizientzia hobetzea xede duten laguntza nagusiei loturiko eskariarekin batera aurkeztuko da.

10. artikulua.– Akatsak edo omisioak zuzentzea.

1.– Akats, zehaztasunik ez edo omisioren bat ikusiko balitz aurkitutako eskarian, prozedura ebatzen ari den organoak horren berri emango dio eskatzaileari, baliabide elektronikoa erabiliz legeak hori egitea eskatzen duenean edo eskatzaileak borondatez eskatu duenean zein eskatzaile-

leak jakinarazpenak jasotzeko zehaztu duen helbidean bestela. Hamar eguneko epea emango zaio aurkitutako egoera irregular hori konpon dezan eta jakinaraziko zaio, halaber, hori egin ezean egindako eskariari uko egin diola ulertuko dela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 21. artikuluan zehazten dituen baldintzetan egingo den ebazpena eginaz.

2.– Aurkitutako egoera irregular hori zuzentzeko eman den epea amaitu ostean ez bada eskaria horretarako zehaztu den formatuan aurkeztu edo ez bada eskaturiko dokumentazioa aurkeztu eskatzaileak eskari horri uko egin diola ulertuko da.

3.– Halaber, eskaria izapidetzeko onartua izan eta gero, laguntzak kudeatzeko prozedura gauzatzeko ardura duen organoak egoki deritzon informazio guztia eska diezaioke erakunde eskatzaileari, aurkeztu den dokumentazioaren egokitasuna baloratu ahal izateko. Horretarako emandako epea 10 egunekoa izango da eta jakinarazi beharko da eskaturiko informazio osagarri hori aurkeztuko ez balitz espedientea eskaturiko informazio hori gabe aztertuko litzatekeela.

4.– Nolanahi ere, eta laguntzen esleipena egiteko denbora-lehentasunari begira aintzat hartuko den data izango da zuzendutako informazio guztia aurkeztu den hori.

5.– Akatsak zuzentzeko eskatzaileei eman zaien epeak espedientea ebazteko dagoen epea eten egingo du.

11. artikulua.– Organo erabakitzaileak. Ebazpena eta isiltasunaren ondorioak.

1.– Laguntza emateko prozeduraren behin betiko ebazpena Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Lurralde Ordezkariek sinatuko du, instrukzio-organoak egin duen ebazpen-proposamena oinarri hartuta, ezarritako baldintza guztiak bete eta eskaturiko dokumentazio guztia aurkeztu dela egiaztatu ostean.

2.– Ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilekoa izango da, eskaria aurkezteko egunetik zenbatzen hasita. Epe hori amaituta ebazpenik ez balego eskaria ukatu dela ulertuko da, berariaz ebazteko beharrari kalterik egin gabe. Ebazpenaren aurkako errekurtsioak aurkez daitezke, hurrengo artikuluan xedatu den bezalaxe.

3.– Administrazio-ebazpena baieste-izaerakoa bada ondokoak jaso beharko ditu: pertsona edo entitate onuradunen izena edo sozietatearen izena eta IFK edo NAN, diruz lagunduko den jarduketara, itzultzeko beharrik gabe emango den laguntzaren zenbatekoa, lagunduko diren jarduketan arabera xehakaturia eta aurrekontu-urteen arabera banaturia; eta, azkenik, obrak egiteko epea. Hala badagokio, ebazpenak mailegu kualifikatuaren gehieneko zenbatekoa adieraziko du eta, bere kasuan, balizko konturako aurrerakinak.

Ukatutako eskarien kasuan, ondokoak jasoko dituzte: eskatzaileen izena edo sozietatearen izena, IFK eta ukatze hori oinarritzen duten zioak.

4.– Ebazpena, kasu guztietan, interesdunei edo jabeen erkidegoa ordezkatzen duen pertsonari edo entitateari edo jabeen erkidegoen elkartzeari jakinaraziko zaie.

Ebazpenen jakinarazpen elektronikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza elektronikoaren «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Jakinarazpenak ez dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzaren gardentasun atarian urtero argitaratuko dira onuradun diren pertsona juridi-

koen zerrenda eta jaso dituzten dirulaguntzen zenbatekoa, bai eta pertsona fisikoei eman zaizkien laguntzen kopurua eta zenbateko globala ere, Lurralde Historikoen eta sexuaren arabera banatuta. Hori guztia, dagokion Dirulaguntzen Datu Baseari dagokion informazioa emateko aukerari kalterik egin gabe.

6.– Itzuli beharrik gabeko laguntzen eta dirulaguntzen esleipena eta, hala badagokio, ordainketa dagokion jarduketaren finantzaketari egongo dira lotuta halaberrez.

12. artikulua.– Errekurtsoak.

1.– Emandako ebazpenak ez dio amaiera emango administrazio-bideari. Interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jar dezakete horren aurka, Etxebizitzako sailburuordearen aurrean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasiko den hil bateko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak 121. eta 122. artikuluetan dioena betez.

2.– Gora jotzeko Errekurtso hori onartuko ez balitz, berariaz zein administrazio-isiltasunaren bitartez, dagokion administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, indarreko legediari jarraiki.

13. artikulua.– Kostuak, fakturak eta beren ordainketa justifikatzea.

1.– Dagokion fakturan sartutako gastu guztiek beharrezko egiaztagiria eraman beharko dute beraiekin batera. Azken honek faktura egin duen enpresaren eta birgaitze-jarduketaren pertsona edo entitate titularren datuak jaso beharko ditu (IFK barne), data, zenbakia eta BEZ.

2.– Instrukzio-organoak hori egitea eskatuko balu, fakturen ordainketaren formalizazioa honela egiaztatuko da:

a) Transferentziarekin edo banku-helbideratzearekin batera aurkeztuko dira faktura eta banku-ordainketaren frogagiria (libreta, banku-laburpena, zordunketa edo banku-mugimendua). Bere kontzeptuan faktura-zenbakia eta ordainketaren xedea adieraziko dira.

b) Eskudirutan eginiko entregatzeekin batera ordainketaren frogagiria aurkeztuko da. Honek egiaztatuko du zenbatekoa egokiro eskualdatu dela eta ordainketari dagokion faktura identifikatu beharko du.

c) Kanbio-letra, txeke edo ordaindukoak bezalako merkataritza-dokumentuek, halaber, beren fotokopia eta ordainketa-modu gisa onartua izan den hornitzailearen hartu-agiria eramango dute. Horrez gain, banku-laburpena- edo -mugimendua aurkeztu beharko da hartzaileak ordainketa egin duela frogatzeko.

d) Beren luzapena adostu izanaren ondorioz, obrak amaitzeko unean justifikatu ezin diren ordainketak dagokion kontratua aurkeztuz egiaztatu beharko dira. Kontratu horrek aldeek adostu duten ordainketa-modua adierazi beharko du.

Kasu horietan, eta konprometitutako azken ordainketaren epemuga-datatik zenbatzen hasiko den hiru hileko epean, ordainketa guztiak egin direla frogatu egin beharko da instrukzio-organoaren aurrean. Epe hori amaituta justifikazio hori egiteke balego oraindik, arauak urratu direla ulertuko da eta itzulketa-prozedurak abiaraziko dira.

Nolanahi ere, egiaztagiritzat joko da ordainketaren egilea eta hartzailea, faktura-zenbakia, ordainketaren xedea eta data argiro adierazten duen dokumentu oro.

14. artikulua.– Dirulaguntzak ordaintzea. Konturako aurrerakinak.

1.– Dirulaguntzen ordainketa Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Lurralde Ordezkaritzaren titularrak instrukzio-organoaren proposamenean oinarrituta

egingo duen ebazpen baten bidez gauzatuko da. Aldez aurretik, programa bakoitzari dagozkion artikuluetan eskaturiko justifikazio-dokumentazioa aurkeztu eta egiaztatu beharko da. Ebazpen horrek berariaz adieraziko du funtsen jatorria; eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) aipatuko du ere.

2.– Aitortutako itzuli beharrik gabeko laguntzak pertsona edo entitate onuradunari balioztatu zaion kontuan jasoko dira, banku-transferentzia baten bidez. Onuradunak, funtsak askatu ahal izateko, dagokion hirugarrenaren alta egin beharko du.

Hirugarrenen alta elektronikoki egin daiteke (izapidetze elektronikoa egitera behartuta daudenek elektronikoki egin beharko dute), eskuragarri dagoen dagokion zerbitzuaren bidez edo egoitza elektronikoa, ondoko helbidean:

<https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

3.– Halaber, eskaturiko dokumentazioa aurkeztu eta aztertu ondoren eta instrukzio-organoaren proposamenean oinarrituta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailko Lurralde Ordezkaritzaren titularrak egingo duen ebazpen baten bidez dirua aurreratuko zaie aurrerapen hori eskatu eta bere beharra eta egokitasuna frogatu duten azken hartzaileei, beti ere ondoko baldintzak betetzen badira:

a) Aurrerapen horiek ez dute onuradunak jasoko duen laguntzaren guztizko zenbatekoaren % 30a gaitutuko.

b) Aurrerapen horiek dirulaguntzaren xede den jarduketari loturiko gastuak estaltzera bideratu dira soil-soilik eta beren egokitasuna nahikotasunez frogatu beharko da.

c) Abenduaren 30eko 36/2020 Legegintzako Errege-dekretuak, Herri Administrazioa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartu dituenak 61.3 artikuluan dioena betez, aurrerapen hauen azken hartzaileek frogatu beharko dute Europako funtsak kudeatzeko berariaz irekitako kredituen kargura aldez aurretik jaso dituzten beste aurrerapen guztiak dagoeneko itzuli dituztela. Alderdi hori frogatzeko, beti ere beste modurik ez dagoenean, azken hartzailearen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da (edo organo eskudunaren egiaztatgiri bat, hartzaile hori administrazio publiko bat denean).

4.– Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 5. apartatuak dioena eta 11/2021 Legeak, abenduaren 23koak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituenak 32.3 artikuluan xedatu duena betez, aurrerapen hauek ez dira pertsona edo entitate onuradunaren berme baten menpe egongo.

5.– Laguntzen azken onuradunak izango diren Hartzaileek finantzaketa lortu badute Agindu honen xede diren obrak edo jarduketak gauzatzeko, jasotako laguntzak edo dirulaguntzak kobratzeko eskubidea pignoratu edo laga ahalko da, finantzaketa eman duten finantza-entitateen alde.

Aurreko xedeetarako, finantzaketa eman duten finantza-erakundeek lagapen edo pignoratze horren berri eman beharko diote laguntzak eman dituen Administrazioari. Jakinarazpen horretan, laguntzak eman dituen Administrazioak onartu duen laguntzari edo dirulaguntzari dagozkion zenbatekoak ordaintzeko erabiliko den kontua adierazi beharko da. Finantzaketa eman duen finantza-erakundeak aipatu finantzaketa dagoeneko kitatu dela jakinarazten duenean, Administrazioak ordainketak eten egingo ditu.

15. artikulua.– Atzera egitea eta uko egitea.

1.– Laguntza eskatzen duen pertsonak eskaeran atzera egin ahal izango du. Eskatutako finantza-neurriak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi baino lehen egin beharko da atzera,

eta organo kudeatzaileari aurkeztuko zaio. Organo horrek, ebazpen bidez, bete-betean onartuko du atzera egitea, eta amaitutzat emango du hari dagokion prozedura.

2.– Onuradunak emandako finantza-neurriei uko egin ahal izango die, onartu ondoren ere. Uko egitea organo kudeatzaileari aurkeztuko zaio, eta hark, ebazpen bidez, bete-betean onartuko du uko egite hori, eta amaitutzat emango du hari dagokion prozedura.

Ukoa onartu ondoren, onuradunak automatikoki galduko du ebazpen bidez onartutako eskubidea, baita emandako laguntza kobratzeko eskubidea ere, eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu, 17. artikulua dioenari jarraiki.

16. artikulua.– Laguntzen baldintzen aldatzea.

1.– Birgaitze-jarduketaren titularra pertsona fisikoa bada, laguntzak aitortu dizkion administrazio-ebazpena eman ondoren, hura ordeztuko da, eta jarduketaren titular berriaren aldeko ebazpena emango da, aurreikusitako betekizunak betetzen baditu.

2.– Laguntzak ematerakoan kontuan hartu izan diren baldintzak aldatzen badira, betiere, haien xedea betetzat jotzen bada, eta, hala badagokio, aldi berean beste edozein erakunde publiko edo pribatuk emandako laguntzak eta dirulaguntzak jasotzen badira, horren berri eman beharko da aldeztatik, organo eskudunak berariaz onar ditzan.

Laguntzak ematerakoan kontuan hartu izan diren baldintzak aldatzen badira, eta betiere xedea betetzat jotzen bada, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Horretarako, organo eskudunak aldatzeko edo likidatzeko ebazpena emango du. Ebazpen horretan, emandako laguntzen zenbatekoa berregokitu egingo da, eta ematerakoan ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuko dira. Hala badagokio, onuradunak soberan jasotako zenbatekoa itzuli beharko du. Laguntzak doitzeak ez du inola ere ekarriko hasierako ebazpenean emandako zenbatekoa baino handiagoa aitortzea.

3.– Justifikazioan aurkeztutako dokumentazioa aztertzeak beharrez aldatuko ditu emandako laguntza publikoak edo finantzaketa kualifikatua, eraikinean egindako jarduketaren bitartez berrizta ez daitekeen lehen mailako energiaren kontsumoan lortu diren aurrezteak hasiera batean aurreikusitako horiek baino txikiagoak eta eskaturiko gutxieneko horiek baino handiagoak direnean.

Baldin eta onuradunak, justifikazioan, adierazten badu ebazpena aldatzea eragin zezaketen finantza-neurriak emateko kontuan hartutako baldintzetan aldaketak izan direla, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 49.12 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta onartzeko aldeztatik aurreko administrazio-baimenaren izapidea egin ez bada, finantza-neurriak ematen dituen organoak onartu ahal izango du aurkeztutako justifikazioa, betiere hirugarrenei kalterik eragiten ez bazaie. Organo emaileak egiaztapen-egintzan aldaketak onartzeak ez du onuraduna salbuesten legezko zehapenetatik.

4.– Aldaketak ez dio inola ere eragingo jarduketaren izaerari; ezin du, ezta ere, dagokion laguntzaren esleitzea justifikatu zuten baldintzen urratzea suposatzen.

5.– Obrek dirauten bitartean, eta jada aurrekontuan sartutako kontzeptuen barruan, partiden kostua beharrez aldatzen bada, emandako ebazpena aldatu egingo da, baldin eta aurrekontu babesgarria edo diruz lagun daitezkeen kostuak murrizten badira. Orohar zenbatetsiko da hori, eta, ondorio horietarako, gutxitze-ebazpen bat eman ahal izango da.

Obrek dirauten bitartean aurrekontu babesgarria edo diruz lagundu daitezkeen kostuak gorantz aldatzen badira, edo horien kontzeptuak edo partidak aldatzen badira, emandako administrazio-ebaz-

penak eta laguntzek bere horretan iraun ahal izango dute, baldin eta aurrekontuko partidek edo kontzeptuek ez badituzte handitzen onartutako finantza-neurriak, edo, hala izan badaiteke, neurri horiek handitzeko eskatzen ez bada.

6.– Nolanahi ere, obrak ez gauzatzeak, eskaturiko dokumentazioa ez aurkezteak edo laguntzak eskuratzeko eskaturiko gutxieneko baldintzak ez betetzeak laguntzak baliogabetzea ekarriko du.

17. artikulua.– Ez-betetzeak eta itzulketa-prozedura.

1.– Egiaztatuko balitz onuradunek ez dutela dirulaguntza eskatu eta eman zen xede zehatzerako erabili, ez dutela dirulaguntza oinarritu zuen jarduketa gauzatu, ezin dutela frogatu interesatzen zitzaizkien xede zehatzetarako erabili denik edo, orokorrean, egiaztatuko balitz dirulaguntzaren esleipena oinarritu zituzten baldintzak ez dituztela bete, ez dutela ikuskapen-lana erraztu edo ez dituztela onuradunek dituzten betebeharrak bete, eta interesdunarekin batzartu ondoren, emandako laguntzaren zenbatekoak jasotzeko eskubidea galdu dela deklaratu da eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak gehi legezko interesak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dietela gaineratuko da, azaroaren 11koak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta 698/1991 Dekretuak, abenduaren 17koak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeei eta dirulaguntza horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duenak eta beren kudeaketan parte hartzen duten Erakunde laguntzaileen baldintzak, erregimena eta betebeharrak zehazten dituenak xedatutakoa betez.

2.– Halaber, diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainetik lortutako soberakina itzuli egin beharko da, eta horrek berekin dakar dirulaguntzen arloan aplikatzekoa den berandutze-interesa eskatzea.

III. KAPITULUA

ONURADUNAK ETA ENTITATE ESKU-HARTZAILEAK

I. ATALA

LAGUNTZEN AZKEN HARTZAILE DIREN ONURADUNAK

18. artikulua.– Laguntzen azken hartzaile diren onuradunak. Baldintzak eta betebeharrak orokorrak.

1.– Agindu honetako dagokion kapitulu bakoitzak programa bakoitzean sar daitezkeen jarduketak eta dirulaguntzen onuradun potentzialak xedatzen ditu.

2.– Orokorrean, ondoko arauak izango dira aplikatzekoak:

a) Laguntzen azken hartzaile diren pertsonak pertsona juridikoak direnean egiaztatu edo berariaz adierazi beharko dute behar bezala eratuta daudela, berentzat aplikatzekoa den araudiaren arabera. Entitateek ez badute nortasun juridikorik, jabeen erkidegoen kasuan salbu, eskarian zein esleipen-ebazpenean berariaz adierazi beharko dira taldearen kide bakoitzak bere egingo dituen exekuzio-konpromisoak, bai eta horietako bakoitzarengatik aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere. Edonola ere, taldearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da, ahalorde askietsiarekin.

b) Onuradunak pertsona fisikoak edo pertsona fisiko ezberdinak biltzen dituzten bizikidetzak direnean pertsonaren edo unitatearen diru-sarrerak, zaurgarritasun ekonomikoari loturiko

laguntza osagarriaren esleipenerako baloratuak izan daitezzen, Agindu honetako 32. artikuluan xedatutakoari jarraiki kalkulatu dira. Urteko diru-sarrerak aurkeztutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren adierazpena oinarri hartuta kalkulatu dira. Adierazpen horiek eskuratuko dira Euskal Herriko Administrazio Orokorraren eta Foru Ogasun ezberdinen arteko lankidetzaproto-koloen eskutik. Operatiboak ez baleude deialdi honetarako, laguntzen eskatzaileak dagokion adierazpena aurkeztu beharko du.

c) Programetako laguntzen onuradunek berehala jakinarazi beharko diote, prozedura izapidetzen ari den edo laguntza aitortu duen organo eskudunari, baita eskaria izapidetzen ari den bitartean ere, aitortza hori oinarri izan zitezkeen eta laguntza jasotzeko eskubidearen gerora sortutako galera sor zezaketen baldintzetan egondako edozein aldaketa. Aldaketa horiek ez jakinaraztea zio nahikoa izango da ordura arte bidegabeki kobratu ei diren zenbatekoak itzultzeko prozedura abiarazteko.

d) Laguntzen onuradunak behartuta daude benetako titulartasuna egiaztatzea, datuen lagapena baimentzera beharrezkoa denean eta agintari eskudunek eskatu dituzten erantzukizunpeko adierazpen guztiak aurkeztera, Suspertze, Eraldatze eta erresistentzia Planaren (SEEP) eta (EB) 2021/241 Erregelamenduaren esparruaren barruan eska daitezkeen nazio-mailako zein Europa-mailako arauak betez. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM) baitan garranturiko laguntza-programak direnez azken hartzailea den onuradunak dituen betebeharrak izango dira baimena ematea bere datuak Datu-base bakar batean erregistratu ahal izateko eta Europako ondoko erakundeek egiten dituzten kontrolen mende jartzeko: Europako Batzordea, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Bulegoa, Europako Kontuen Epaitegia eta Europako Fiskaltza.

e) Laguntzen onuradunek proiektura bideratutako funtsen aplikazioa kontrolatzeko eta jarraitzeko jarduketan mende jarriko dute beren burua; hau da, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Lurralde Sailak egingo duen dokumentuen egiaztatzearen eta etengabeko zein azken ebaluazioen mende. Ondokoen finantza-kontrolak onartu beharko dituzte ere: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Herri-kontuen Euskal Epaitegia eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsak kontrolatzeko eta jarraitzeko ardura duten estatuko eta Europako organoak; gehienbat, Europako Batzordea, Europako Kontuen Epaitegia, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Bulegoa (IBB) eta Europako Fiskaltza. Aipatu erakundeek gauzatutako jarduketan informazio xehea ikusteko aukera izango dute.

f) Laguntzen onuradunek hitzarmen honi jarraiki gauzaturiko jarduketa guztien kudeaketari, exekuzioari eta kontrolari loturiko beharrezko dokumentazio guztia Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari bidaltzeko konpromisoa hartuko dute.

g) Onuradunek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak 34. artikuluan zehazten dituen informazio-, komunikazio- eta publizitate-betebeharrak bete beharko dituzte.

h) Laguntzen onuradunek «ingurumen-kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa (do no significant harm – DNSH printzipioa) eta etiketatze klimatikoa eta digitala bermatu beharko dituzte, Ministro Kontseiluak 2021eko apirilaren 27an onartu zuen Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak (SEEP) eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezarri zuen onuradunek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak eta Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko 2021eko ekainaren 16ko Kontseiluaren Exekuzio-erabakiak (CID) diotenarekin bat. DNSH printzipioa, etiketatze klimatikoa, CID-ren eranskinean eta SEEPen 2. osagaiaren 3., 6. eta 8. ataletan jasotako baldintzak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira.

«Ingurumen-kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioari (do no significant harm – DNSH printzipioa) jarraiki eta Suspertze Planak eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak diotena betez, indarreko ingurumen-araudia beteko da, (EB) 2019/2088 Erregelamendua aldatu zuen inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko 2020ko ekainaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2020/852 Erregelamendua barne, bai eta Ingurumen-kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa aplikatzeari buruzko Europako Batzordearen (2021/C 58/01) Gida Teknikoa ere. Ingurumen-ebaluazioko prozedurak errespetatuko dira, indarreko legediak hori egitea eskatzen duenean. Ingurumenaren arloko legediari jarraiki aplikatu beharko liratekeen beste ebaluazio esanguratsu guztiak ere errespetatu beharko dira.

DNSH printzipioa bete dela egiaztatzeko DNSH printzipioaren bermeari buruzko aldeko ebaluazio bat aurkeztu beharko da. Edo, bestela, printzipioa bete dela dioen erantzukizunpeko adierazpen bat.

i) Onuradunek aplikatzekoak diren Europa-mailako eta nazio-mailako araudiak bete beharko dituzte; bereziki, Estatuko Laguntzak arautzen dituzten Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM) arauak zehazten dituzten betebeharrak eta aplikatzekoak diren Europako edo naziko-mailako beste arau guztiak, iruzurra, interes-gatazka edo finantzaketa bikoitza saihestea xede duten neurriak gehienbat, Batasunaren finantza-interesak babestearren. Aipatu betebeharrak betetzen ez badira jasotako zenbateko guztiak itzuli beharko dira, Agindu honetako 17. artikulua dioenari jarraiki.

3.– Eskaria eta dokumentazioa aurkezteak esan nahi du baldintzarik eta salbuespenik gabe onartzen direla urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan eta Deialdi-agindu honetan jasotako baldintzak.

4.– Urriaren 5eko 853/2001 Errege Dekretuan xedatutakoa betez, laguntzen dirulaguntza-izaera dela eta, bertan behera geratzen da laguntzen onuradun izateko debekua Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13.2 artikuluan aurreikusten dituen egoeretako batean dauden pertsonentzat (indarreko legediak ezartzen dituen zerga-betebeharrei edo Gizarte Segurantzari loturiko horiei ordainketak ordaintzeke izatea), erregelamendu bidez zehaztutako eran.

5.– Onuradun izateko debekuak edo aurreko atalean adierazitako egoera aplikatzekoak ez direla frogatzeko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkez daiteke, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13.7 artikuluan eta administrazio-prozedura erkidea arautzen duten arauetan arautzen diren baldintzetan.

19. artikulua.– Laguntzen azken hartzaile diren onuradunak. Emandako laguntzari loturiko bete-behar bereziak.

1.– Agindu honetan deitu diren itzuli beharrik gabeko laguntzen eta dirulaguntzen pertsona eta entitate onuradunek, kasu guztietan, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 57 artikuluetan xedatutako betebeharrak eta 1/1997 Legegintza Dekretuak, azaroaren 11koak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauerei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, 50.2 artikuluan jaso dituen horiek bete beharko dituzte.

2.– Zehazki, pertsona eta entitate onuradunek ondoko betebeharrak dituzte:

a) Esleitutako laguntza onartzea. Xede horietarako, laguntza eman duen ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean laguntzari berariaz eta idatziz uko egin ezean, aipatua onartu dela ulertuko da.

Laguntza onartzeak esan nahi du onuradunak baimena ematen duela dirulaguntza dagokion Datu Basean erregistratzeko. Baimena ematen du ere Administrazioak eta beste organo eskudun

guztiek Benetako Titulartasunen Erregistroan bildutako informazioa ikus dezaten, bai eta informazioa Europako Funtsen Sistemara igortzeko ere.

b) Laguntzaren esleipena oinarri dezaketen baldintzen eta eskakizunen betetzea egiaztatzea; bereziki, laguntzen xede den jarduketa egokiro gauzatzeko eta konprometitutako epeak bete ahal izateko beharrezkoak diren lizentzia, baimen eta beste sektore-eskakizun guztiak izatea.

c) Laguntza bere xede zehatz den jarduketarako erabiltzea.

d) Obrak ikusten eta aztertzen uztea Etxebizitzaren arloan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako zerbitzu teknikoei edo obren jarraipena egiteko ardura duten organoei, aipatu obrak ikuskatu eta, amaieran, baliozta ditzaten.

e) Xede berdinerako jaso diren beste dirulaguntza edo laguntza, diru-sarrera edo bitarteko guztien berri ematea laguntza esleitu duen entitateari.

f) Hala badagokio, kontabilitate-liburuak, diligentziak eginda dituzten erregistroak eta behar bezala auditaturiko beste dokumentu guztiak izatea, onuradunarentzat aplikatzekoak diren merkataritza- eta sektore-legeek xedatzen dituzten baldintzetan; honela, ikuskapen- eta kontrol-eginkizunen gauzatze egokia bermatuko da.

g) Jasotako funtsen aplikazioa justifikatuko duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikokoak barne, ikuskapen- eta kontrol-ariketen helburu izan daitezkeen heinean. Dokumentu horiek bost urtez gorde beharko dira, jarduketa amaitzen denetik. Edo hiru urtez, laguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa bada.

h) Laguntza eman duen entitateak egin beharko dituen ikuskapen- eta fiskalizazio-ariketak onartzea eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri-kontuen Euskal Epaitegiak eta Europar Batasunak izendatutako fiskalizazio-organoei, beren eginkizunen barruan eta emandako lanari dagokionez eskatu duten informazio guztia entregatzea. Uneoro bete beharko da lankidetzeta-betebeharra, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2004 Lege Orokorrak 46. artikuluan xedatu dituen baldintzetan; edo aipatu legearen ordean onartutako horretan xedatutako baldintzetan.

i) Laguntza eman duen entitateari jakinaraztea, egoera hori ezagutu bezain pronto eta, nolana ere, justifikazioa izapidetu baino lehen, laguntza emateko aintzat hartu izan den edozein osagai objektibo edo subjektibotan egondako aldaketa eta, hala badagokio, jasotako funtsak itzultzea, dagokion itzultze-espeditentia ireki eta gero hori egitea eskatu bada.

j) Laguntzen xede izan diren birgaitze-lanen inguruan eskatu zaion informazio guztia entregatzea; eta eskaturiko formatuetan.

20. artikulua.– Laguntzen azken hartzaile diren Onuradunak. Azpikontratazio kasuetako bete-behar bereziak.

1.– Laguntzen azken hartzaile diren pertsona edo erakunde onuradunek hirugarren batzuekin itundu ahal izango dute neurriaren xede den jardueraren % 100 egitea.

2.– Azpikontratatuak den diruz laguntzeko moduko gastuaren zenbatekoa sektore publikoko kontratuen legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino handiagoa bada, onuradunak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, hornitzaile desberdinen gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko ditu, obrarako konpromisoa hartu, zerbitzua eman edo ondasuna entregatu aurretik. Kontratua idatziz egin beharko da.

Ezin izango da kontratua zatikatu kontratuaren zenbatekoa murrizteko eta artikulua honetan eskatutako betekizunak ez betetzeko.

Hornitzaileen hautaketa efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da. Egindako hautaketa berariaz justifikatu beharko da memoria batean, proposamen ekonomiko onuragarria aukeratu ez denean. Aurkeztutako eskaintzen arteko hautaketa ordainsari teknikoen edo obren justifikazioan aurkeztu beharko da, edo, hala badagokio, laguntza eskatzeko unean.

3.– Era berean, obraren exekutatze partziala edo osoa hitzartu duten kontratistei jakinarazi beharko diete dirulaguntzen arloan indarrean dagoen araudian eta Agindu honetan aurreikusitako lankidetzeta-betebeharra dutela, laguntzaren mugak betetzen direla behar bezala egiaztatu ahal izateko.

4.– Onuradunak ezin izango du obrak osorik edo partzialki exekutatzea itundu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29.7 artikuluan edo hura ordeztzen duen oinarriko araudian araututako kasuetan dauden pertsona edo erakundeekin; alderdi hau egiaztatzeko pertsona onuradunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkez dezake.

21. artikulua.– Laguntzen azken hartzaile diren onuradunak. Laguntzen publizitatea egiteko bete-behar berezia.

1.– Laguntzen azken hartzaile diren onuradunek laguntzen publizitatea egiteko bete-beharra bete beharko dute; eta baita Euskadiko identitate bisualaren eskuliburuan xedatutakoa ere.

2.– Obrak xede dituzten laguntzen jomuga den jarduketari edozein hedabidetan eginiko erreferentzia orok Programaren Irudi Eskuliburuan jasotako baldintzak bete beharko ditu. Aipatu eskuliburua Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioaren webgunean dago eskuragarri.

Halaber, honako osagai hauek instalatu eta mantendu beharko dira:

a) Behin-behineko kartel bat, obrak egiten diren bitartean, publikoak erraz ikus dezakeen leku batean egon beharko dena, proiektuaren kokapenean bertan. Ahal dela, obrak egiten diren bitartean eraikinaren fatxada estaliko duen instalazioan edo aldarmioan jarriko da, beti ere dagokion udal ordenantzak betez. Tamaina nahikoa izango du erraz asko ikus eta irakur dadin. Kartelak proiektuaren izenburua, Programaren izena eta irudia adieraziko ditu, Europar Batasunak eman duen laguntza ekonomikoa jasoko du, EBren logoa ere agertuz. Azkenik, «Europa egiteko modu bat» goiburua erakutsi beharko du. Egingo diren kartelaren eta zabalte-euskarrien diseinu grafikoak Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak xedatutako baldintzak bete beharko ditu. Baldintza horiek Programaren Irudi Eskuliburuan daude eskuragarri, ministerioaren webgunean (<http://www.mitma.es>).

b) Kartel iraunkor bat; publikoak erraz ikus dezakeen leku batean egon beharko du eta dagokion udal ordenantzak bete. Tamaina nahikoa izango du erraz asko ikus eta irakur dadin. Argi adierazi beharko ditu proiektuaren izenburua, Programaren izena eta irudia, Europar Batasunak eman duen laguntza ekonomikoa, EBren logoa eta, azkenik, «Europa egiteko modu bat» goiburua. Egingo diren kartelaren eta zabalte-euskarrien diseinu grafikoak Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak xedatutako baldintzak bete beharko ditu. Baldintza horiek Programaren Irudi Eskuliburuan daude eskuragarri, ministerioaren webgunean (<http://www.mitma.es>).

3.– Laguntzen Onuradunak Europako funtsen eskutik jasotako babesak jakinaraziko dio publikoari, eragiketaren deskripzio laburra eginaz bere webgunean, horrelakorik badu, bere helburu eta emaitzei lotuta jasotako babes-mailarekiko proportzioa bilatuz, eta Batasunaren finantza-babesa azpimarratuz.

4.– Halaber, eta hala badagokio, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak agindu honen xede diren laguntzen publikitatearen egiteko betebeharrak dagokienez xedatzen duena bete beharko da.

22. artikulua.– Laguntzen azken hartzaile diren onuradunak. Estatuko laguntzen mugak betetzea.

1.– Energia-efizientzia hobetzea eta iturri berriztagarriak dituen energia sustatzea xede duten inbertsioetarako emandako laguntzen azken hartzaileak jarduera komertziala edo merkataritzakoa garatzen duten eta Estatuko laguntzen araudiaren mende dauden enpresak direnean, laguntza horiek 2014ko ekainaren 17ko Batzordearen (EB) 651/2014 Erregelamenduan (barne-merkatuarekin bateragarriak diren laguntzen kategoria jakin batzuk aitortzen dituen, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz) eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen (EB) 1407/2013 Erregelamenduan jasotako baldintzen eta mugen mende egongo dira. Halaber, eta hala badagokio, «Enpresei eta autonomoi laguntzeko neurri buruzko Aldi Baterako Esparru Nazionala, COVID-19aren egungo agerraldiaren testuinguruan ekonomia babesteko bideratuak» delakoak xedatutakoa aplikatuko da. Neurri horiek ondokoak dira: zuzeneko dirulaguntzak, itzul daitezkeen aurrerapenak, abantaila fiskalak, maileguetarako bermeak eta hobariak COVID-19aren egungo agerraldiaren testuinguruan ekonomia babestea xede duten maileguetako interes-tasetan.

2.– Bereziki, laguntzaren azken hartzailea jarduera ekonomikoak edo merkataritza-jarduerak garatzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa denean ondoko erregimena aplikatuko da Estatuko laguntzei dagokienez:

a) Azken 3 zerga-urteotan emandako laguntzen zenbatekoa eta deialdi honen eskaturiko laguntza batuz gero lorturiko emaitza 200.000 eurotik beherakoa bada, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen (EB) 1407/2013 Erregelamendua aplikatuko da.

b) Azken 3 zerga-urteotan emandako laguntzen zenbatekoa eta deialdi honen eskaturiko laguntza batuz gero lorturiko emaitza 200.000 eurokoa edo handiago bada, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz barne-merkatuarekin bateragarriak diren laguntzen kategoria jakin batzuk aitortzen dituen 2014ko ekainaren 17ko Batzordearen (EB) 651/2014 Erregelamenduan xedatutakoa beteko da, energia-efizientzia hobetzeko neurri buruzko loturiko inbertsiorako emandako laguntzentzat aurreikusitako salbuespena aplikatuz (38. artikulua). Salbuespen horren existentzia jakinaraziko zaio Europako Batzordeari, Deialdi-agindu hau argitaratu den egunean zenbatzen hasiko den 20 eguneko epearen barruan.

Aurreko hizkietan xedatutakoari kalterik egin gabe eta laguntza hauek enpresek eta autonomoek egungo testuinguruan dituzten likidezia arazoak arin ditzaketela aintzat hartuz, Europako Batzordeak 2020ko apirilaren 2ko SA.56851 (2020/N) Erabakian onartu zuen «Enpresei eta autonomoi laguntzeko neurri buruzko Aldi Baterako Esparru Nazionala, COVID-19aren egungo agerraldiaren testuinguruan ekonomia babesteko bideratuak» delako esparrua (neurri horiek ondokoak dira: zuzeneko dirulaguntzak, itzul daitezkeen aurrerapenak, abantaila fiskalak, maileguetarako bermeak eta hobariak COVID-19aren egungo agerraldiaren testuinguruan ekonomia babestea xede duten maileguetako interes-tasetan) aplika daiteke, bai eta bere aldaketak ere, esleipenaren behin betiko ebazpena erregimen horren epealdia amaitu baino lehen eman bada.

3.– Ezarritako laguntzen gehieneko mugak errespetatzeari begira, laguntzen azken hartzaileek jaso dituzten laguntza guztien inguruko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, aipatuak egiaztatzen dituen dokumentazioarekin batera. Halaber, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, enpresa krisi-egoeran ez dagoela esanez («krisi-egoeran dagoen

enpresa» definizioa 2014ko ekainaren 17ko (EB) 651/2014 Erregelamenduko 2. artikulua 18. atalean dago).

23. artikulua.– Laguntzen azken hartzaile diren onuradunak. Kontratazio administratiboari buruzko legedia betetzea.

Aplikatzekoa den araudiari jarraiki, dirulaguntzen xede diren proiektuei loturiko sektore publiko entitateen lizitazioak Sektore Publikoko Kontratazio Plataforman argitaratu behar dira.

Era berean, diruz lagundutako erregulazio harmonizatuko kontratuen kasuan, 9/2017 Legeko 23. artikuluan zehaztutako zentzuan, Sektore Publikoko Kontratazio Plataforman argitaratzeaz gain, orokorrean eta beti ere lizitazio horien berezitasunen arabera, aplikatzekoa izango da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak dioena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

II. ATALA

ESKU HARTUKO DUTEN BESTE ENTITATE BATZUK

24. artikulua.– Birgaitze-bulegoak.

1.– Agindu honetan zehaztutako xedeetarako, Birgaitze-bulego izango dira «leihatila bakar» motako administrazio-izaeradun zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoak Agindu honetako laguntzen eskariak jasotzeko gaitu eta, horrez gain, laguntzen kudeaketa koordinatu, informatu eta errazteko eta azken hartzaileei zerbitzuak emateko baimendu baditu. Hori guztiaren xedea da energia-birgaitzerako proiektuen exekuzio eta kudeaketa integrala erraztea bizitegi-esparruan.

2.– Ministro Kontseiluak 2021eko apirilaren 27an onartu zuen Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak (SEEP) eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) ezarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak eta Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko 2021eko ekainaren 16ko Kontseiluaren Exekuzio-erabakiak (CID) diotenarekin bat, birgaitze-bulegoek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

2.1.– Eusko Jaurlaritzak 2022ko martxoaren 29an onartu zuen Iruzzurraren Aurkako Planari atxikitzea edo, bestela, antzeko edukia duen berezko plan bat izatea. Honen helburua da bermatzea eta adierazi ahal izatea funtsak, beren jarduketa-eremuan, aplikatzekoak diren arauak betez erabili direla; bereziki, iruzurraren prebentzio, detekzio eta zuzentzeari, ustelkeriari eta interes-gatazkei dagokienez. Iruzzurraren Aurkako berezko Plan bat izanez gero, Eusko Jaurlaritzarenak dioena ere bete beharko da.

2.2.– Eusko Jaurlaritzak 2022ko martxoaren 29an sinatu zuen iruzurraren aurka borrokatzeko adierazpen instituzionalarekin bat egitea.

2.3.– Interes-gatazkarik ezaren Adierazpena (IGEA) aurkeztea, Agindu honetako VI. eranskinean jasotako ereduari jarraiki. Betebehar hori dute kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituzten langile publikoek eta eginkizun horiek (edo horietako zenbait) jaso dituzten beste eragile batzuek, bai eta onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratistak, beren interesen alde baina EBren finantza-interesen aurka jardun badezakete interes-gatazka baten baitan.

2.4.– Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak aurreikusten duen «Ingu-

rumen-kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa (do no significant harm – DNSH printzipioa) eta aplikatzekoak diren Europako beste araudiak betetzea. Horretarako, DNSHren Autoebalua-zioa egingo da, DNSH Ingurumen-kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioaren Autoebalua-zioa, Agindu honetako V. eranskinean jasotako ereduari jarraiki.

2.5.– SEEP planean esleituriko Etiketatzeko klimatikoaren, digitalaren eta ingurumen-etiketatzeko baldintzak betetzea, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren VI. eta VII. eranskinei jarraiki.

2.6.– Edozein argitalpen, zabaltze-jarduera, webgune eta, orokorrean, hedabidetan proiektuari buruz eginiko erreferentzia guztiek SEEPen Irudi Eskuliburuan zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte. Aurrekoari kalterik egin gabe, SEEP planaren funtsei esker lorturiko finantzaketa eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren aldetik egon den kudeaketa aipatu beharko dira, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 18.4 artikuluan dioena betez.

2.7.– Era berean, finantzaketa honen jatorria aipatu beharko da, bere ikusgarritasuna bermatuz, bereziki diruz lagundu daitezkeen jarduketak eta beren emaitzak sustatzen direnean. Informazio koherentea, eraginkorra eta proportzionatua eman beharko da eta hartzaile anitz izango ditu jomugan, hedabideak eta publikoa barne. Halaber, eremu honetan garatuko diren beste lizitazio, hitzarmen eta instrumentu juridiko guztiek ondoko erreferentzia agertu beharko dute, goiburuan zein garapen-zatian: «NextGenerationEU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana, –Europar Batasunaren finantzaketarekin–», Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduko 9. artikulua dioenarekin bat.

2.8.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskatzen dion beste edozein informazio eta dokumentazio bidaltzea.

25. artikulua.– Erakunde laguntzaileak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak erakunde laguntzaile bat edo gehiago izenda ditzake beren esku utziko diren eginkizunak bete ditzaten. Eginkizun horien artean egongo da, hala badagokio, funts publikoak onuradunei transferitzea edo entregatzea. Hori guztia, urriaren 5eko 853/2001 Errege Dekretuak 7. artikuluan dioena eta 1/1997 Legegintza Dekretuak, azaroaren 11koak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak 52. artikuluan dioena betez. Nolanahi ere, funts ekonomiko horiek ezin dira erakunde laguntzaile beraren ondarearen zatizat hartu, inola ere.

2.– Erakunde laguntzaileak instrukzio-organoak izango dira laguntzak kudeatzeko, dirulaguntzei buruzko legedi orokorrean zehaztutako eginkizunen barruan. Beren ardura izango da egindako eskariak izapidetzea, ebazpen-proposamenak egitea organo eskudunei eta, dagokionean, ordainketak artikulatzea konturako aurrerapen modura zein laguntzen azken ordainketa gisara. Erakunde laguntzaile bilakatzen diren sektore publikoko erakundeek organo delegatu gisa jardun dezakete ere beste eginkizun batzuk garatzeko, beti ere horrela aurreikusiko bada sinaturiko lankidetzak-hitzarmenean eta bitarteko nahikoak badituzte horretarako.

Beren jardunaren eskutik, interesdunek beren eskarian aurkeztu duten dokumentazioa eta programetako bakoitzaren dagokion laguntzak eskuratu ahal izateko eskatu diren betekizunak aztertu ondoren ebazpen-proposamen bat egingo dute eta espedientea bultzatzeko neurriak zehaztuko dituzte, beharrezko komunikazioak eta jakinarazpenak mantenduz eta eginaz interesdunekin.

Erakunde laguntzaileen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko harremanak bi aldeek sinatuko dituzten lankidetzak-hitzarmenek arautuko dituzte. Hitzarmen horietan bataren eta bestearen lan-kargak banatzeko irizpideak zehaztuko dira.

Artikulu honek organo kudeatzaile izendatzen ditu erakunde laguntzaileak. Izaera horrek, baina, ez du zer ikusirik Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak definitzen duenarekin.

Laguntzak izapidetu eta bideratuko dituzten organoek beren jarduna egokituko dute aukeraketa prozesuan edo laguntza horien baldintzak betetzen diren ala ez egiaztatzeko prozesuan parte hartuko duten pertsonen interes-gatazken presentzia edo beren eza egiaztatzeko aukera izan dezaten, hori guztia Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an egin zuen bileran adostutako Erabakiak onartu zuen iruzurraren aurkako planak dioena betez.

3.– Artikulu honetan araututako erakunde laguntzaileek ez dute, inola ere, onuradunak aurkeztu duen zerga-izaerako informazioaz beste mota horretako informaziorik ikusiko, Administrazio Publikoa izan edo Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 2.3 dioenaren arabera izaera hori eduki ezean.

Interesdunak informazioa lagatzeko baimena ematen duenean ezingo da informazio hori hiru-garrenen esku utzi, zerga- edo ekonomia-izaerakoa bada. Laguntza hauek aitortzeko eskatzen diren betekizunen betetzea egiaztatzeko oinarria Zergen Foru-administrazioak edo -ogasunak bildutako informazioa denean, egiaztatze hori zuzenean egin beharko du eskarian eskatzailearen zerga-informazioa ikusteko berariaz baimendu den Administrazio Publikoak.

4.– Visesa, SA sozietate publikoa erakunde laguntzaile gisa jardungo da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta sozietateak berak adosten dituzten baldintzetan.

5.– Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 17/2002 Dekretuak arautzen dituen hirigintza-sozietate publikoak (HSP) ere laguntza hauetarako erakunde laguntzaileak izan daitezke, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta sozietate bakoitzak sinatzen duten aldebiko lankidetzeta-hitzarmenetan zehaztutako baldintzetan.

6.– Nolanahi ere, erakunde laguntzaile izendatuak izateko Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (DLO) 13. artikuluan zehazten dituen betekizunak bete beharko dituzte, bere 2. ataleko e) hizkian jasotakoa kenduta. Era berean, erakunde laguntzaileek DLOren 15. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute. Bestetik, erakunde laguntzaile horiek aukeratzeari dagokionez eta berekin formalizatu beharreko hitzarmenaren edukari dagokionez DLOren 16. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

7.– Aurrekoetz gain, honako entitate hauek erakunde laguntzaile izateko aukera izango dute ere:

- a) Organismo publikoek eta zuzenbide publikoko beste entitate eta korporazioak.
- b) Administrazio Publikoek osotasunean edo gehiengoarekin kontrolatzen dituzten enpresa publikoek eta merkataritza-sozietateak.
- c) 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak bere bosgarren xedapen gehigarrian jasotzen dituen elkarteak.
- d) Gobernu kanpoko erakundeek, gizarte ekonomiaren ordezkartza-elkarteek eta irabazi-asmerik gabeko beste erakunde guztiek, bereziki beren jardura babes berezia merezi duten sektore zurgarrietan garatzen duten horiek, Gizarte Ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legeak adierazten duen bezalaxe.
- e) Kreditu erakundeek eta laguntzak aitortuko dituen Administrazioak beharrezkotzat jo dituen beste sozietate edo entitate pribatu guztiek, beti ere azkenaren aurrean erakunde laguntzaile gisa

akreditatuta badaude eta prozesuan izango duten neutraltasuna eta objektibotasuna zalantza izpirik gabe bermatu bada.

8.– Gaiaren inguruko berariazko arauak egon ezean, erakunde laguntzaileentzat subsidiarioki aplikatzekoa izango da 698/1991 Dekretuak, abenduaren 17koak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeei eta dirulaguntza horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duenak eta beren kudeaketan parte hartzen duten Erakunde Laguntzaileen baldintzak, erregimena eta betebeharrak zehazten dituenak xedatutakoa.

9.– Ministro Kontseiluak 2021eko apirilaren 27an onartu zuen Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak (SEEP) eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) ezarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak eta Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko 2021eko ekainaren 16ko Kontseiluaren Exekuzio-erabakiak (CID) diotenarekin bat, erakunde laguntzaileek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

9.1.– Eusko Jaurlaritzak 2022ko martxoaren 29an onartu zuen Iruzuraren Aurkako Planari atxikitzea edo, bestela, antzeko edukia duen berezko plan bat izatea. Honen helburua da bermatzea eta adierazi ahal izatea funtsak, beren jarduketa-eremuan, aplikatzekoak diren arauak betez erabili direla; bereziki, iruzurraren prebentzio, detekzio eta zuzentzeari, ustelkeriari eta interes-gatazkei dagokienez. Iruzuraren Aurkako berezko Plan bat izanez gero, Eusko Jaurlaritzarenak dioena ere bete beharko da.

9.2.– Eusko Jaurlaritzak 2022ko martxoaren 29an sinatu zuen iruzurraren aurka borrokatzeko adierazpen instituzionalarekin bat egitea.

9.3.– Interes-gatazkarik ezaren Adierazpena (IGEA) aurkeztea, Agindu honetako VI. eranskinean jasotako ereduari jarraiki. Betebehar hori dute kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituzten langile publikoek eta eginkizun horiek (edo horietako zenbait) jaso dituzten beste eragile batzuek, bai eta onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratistak, beren interesen alde baina EBren finantza-interesen aurka jardun badezakete interes-gatazka baten baitan.

9.4.– Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak aurreikusten duen «Ingurumen-kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa (do no significant harm – DNSH printzipioa) eta aplikatzekoak diren Europako beste araudiak betetzea. Horretarako, DNSHren Autoebaluazioa egingo da, DNSH Ingurumen-kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioaren Autoebaluazioa, Agindu honetako V. eranskinean jasotako ereduari jarraiki.

9.5.– SEEP planean esleituriko Etiketatzeko klimatikoaren, digitalaren eta ingurumen-etiketatzeko baldintzak betetzea, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren VI. eta VII. eranskinei jarraiki.

9.6.– Edozein argitalpen, zabaltze-jarduera, webgune eta, orokorrean, hedabidetan proiektuari buruz eginiko erreferentzia guztiek SEEPen Irudi Eskuliburuan zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte. Aurrekoari kalterik egin gabe, SEEP planaren funtsei esker lorturiko finantzaketa eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren aldetik egon den kudeaketa aipatu beharko dira, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 18.4 artikuluan dioena betez.

9.7.– Era berean, finantzaketa honen jatorria aipatu beharko da, bere ikusgarritasuna bermatuz, bereziki diruz lagundu daitezkeen jarduketak eta beren emaitzak sustatzen direnean. Informazio koherentea, eraginkorra eta proportzionatua eman beharko da eta hartzaile anitz izango ditu

jomugan, hedabideak eta publikoa barne. Halaber, eremu honetan garatuko diren beste lizitazio, hitzarmen eta instrumentu juridiko guztiek ondoko erreferentzia agertu beharko dute, goiburuan zein garapen-zatian: «NextGenerationEU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana, –Europar Batasunaren finantzaketarekin–», Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduko 9. artikulua dionarekin bat.

9.8.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskatzen dion beste edozein informazio eta dokumentazio bidaltzea.

26. artikulua.– Birgaitzearen eragileak edo kudeatzaileak.

1.– Birgaitzearen eragiletzat edo kudeatzailetzat hartuko da laguntza publikoak bultzatu, jarraitu eta kudeatzeko jarduketak egin ditzakeen pertsona fisikoa edo juridikoa edo entitate publikoa edo pribatua. Eginkizun horien barruan ondokoak daude: laguntzei dagozkien zenbatekoak hirugarrenen eskutik jasotzea, finantzaketa lortzea, Agindu honetan jasotako programetako baten bitartez finantzaketa jaso dezaketen birgaitze- edo hobekuntza-jarduketak garatu ahal izateko beharrezkoak diren dokumentuak edo proiektu teknikoak idaztea edo beste jarduera batzuk egitea.

2.– Birgaitzearen eragileek edo kudeatzaileek deialdietako bitartekoak jaso ditzakete, zuzenean, «giltza eskuan» motako ereduak eskaintzen badizkiete etxebizitza-erakinen jabeei edo jabeen erkidegoei. Horretarako, jabetzarekin, jabeen erkidegoarekin, jabeen erkidegoen elkartearekin edo onuradunekin sinaturiko akordioa aurkeztu beharko dute. Akordio horrek eginkizun horiek betetzeko ahalordea eta baimena eman beharko die, baita eragile horiek laguntzen onuradun zuzenak bilakatzen diren kasuetan ere.

3.– Birgaitzearen eragilearen edo kudeatzailearen esku hartzeak ez du azken hartzailea den onuraduna dituen betebeharrak guztiak betetzetik salbuesten, kudeatzaile edo eragile horri eska diezaiokien erantzukizunari kalterik egin gabe.

4.– Ministro Kontseiluak 2021eko apirilaren 27an onartu zuen Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak (SEEP) eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) ezarri zuen onuradunek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak eta Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko 2021eko ekainaren 16ko Kontseiluaren Exekuzio-erabakiak (CID) diotenarekin bat, birgaitzearen eragileek edo kudeatzaileek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

4.1.– Eusko Jaurlaritzak 2022ko martxoaren 29an onartu zuen Iruzuraren Aurkako Planari atxikitzea edo, bestela, antzeko edukia duen berezko plan bat izatea. Honen helburua da bermatzea eta adierazi ahal izatea funtsak, beren jarduketa-eremuan, aplikatzekoak diren arauak betez erabili direla; bereziki, iruzurraren prebentzio, detekzio eta zuzentzeari, ustelkeriari eta interes-gatazkei dagokienez. Iruzuraren Aurkako berezko Plan bat izanez gero, Eusko Jaurlaritzarenak dioena ere bete beharko da.

4.2.– Eusko Jaurlaritzak 2022ko martxoaren 29an sinatu zuen iruzurraren aurka borrokatzeko adierazpen instituzionalarekin bat egitea.

4.3.– Interes-gatazkarik ezaren Adierazpena (IGEA) aurkeztea, Agindu honetako VI. eranskinean jasotako ereduari jarraiki. Betebeharrak hori dute kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituzten langile publikoek eta eginkizun horiek (edo horietako zenbait) jaso dituzten beste eragile batzuek, bai eta onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratistak, beren interesen alde baina EBren finantza-interesen aurka jardun badezakete interes-gatazka baten baitan.

4.4.– Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak aurreikusten duen «Ingu-

rumen-kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa (do no significant harm – DNSH printzipioa) eta aplikatzekoak diren Europako beste araudiak betetzea. Horretarako, DNSHren Autoebaluazioa egingo da, DNSH Ingurumen-kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioaren Autoebaluazioa, Agindu honetako V. eranskinean jasotako ereduari jarraiki.

4.5.– SEEP planean esleituriko Etiketatzeko klimatikoaren, digitalaren eta ingurumen-etiketatzeko baldintzak betetzea, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren VI. eta VII. eranskinei jarraiki.

4.6.– Edozein argitalpen, zabaltze-jarduera, webgune eta, orokorrean, hedabidetan proiektuari buruz eginiko erreferentzia guztiek SEEPen Irudi Eskuliburuan zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte. Aurrekoari kalterik egin gabe, SEEP planaren funtsei esker lorturiko finantzaketa eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren aldetik egon den kudeaketa aipatu beharko dira, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 18.4 artikuluan dioena betez.

4.7.– Era berean, finantzaketa honen jatorria aipatu beharko da, bere ikusgarritasuna bermatuz, bereziki diruz lagundu daitezkeen jarduketak eta beren emaitzak sustatzen direnean. Informazio koherentea, eraginkorra eta proportzionatua eman beharko da eta hartzaile anitz izango ditu jomugan, hedabideak eta publikoa barne. Halaber, eremu honetan garatuko diren beste lizitazio, hitzarmen eta instrumentu juridiko guztiek ondoko erreferentzia agertu beharko dute, goiburuan zein garapen-zatian: «NextGenerationEU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana, –Europar Batasunaren finantzaketarekin–», Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduko 9. artikulua dioenarekin bat.

4.8.– Jasotako funtsen aplikazioa justifikatuko duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, ikuskapen- eta kontrol-ariketen helburu izan daitezkeen heinean.

4.9.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskatzen dion beste edozein informazio eta dokumentazio bidaltzea.

IV. KAPITULUA

ERAIKINETAN BIRGAITZE-LANAK EGITEKO LAGUNTZA-PROGRAMA.

(URRIAREN 5EKO 853/2021 ERREGE DEKRETUA, 3. PROGRAMA)

27. artikulua.– Programaren xedea.

Programa honen xede da hiri-eremuetan zein landa-eremuetan gehienbat bizitegi-erabilera duten eraikinetan egindako obrak edo jarduketak finantzatzea, beti ere horien bitartez energia-efizientzia era esanguratsuan eta egiaztatuan hobetuko bada. Arreta berezia eskainiko zaio eraikinaren ingurutzailerari bizitegi-tipologia kolektiboko eraikinetan, beren etxebizitzak barne, eta familia bakarreko etxebizitzetan.

Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko 2021eko ekainaren 16ko Kontseiluaren Exekuzio-erabakiak (CID ingelesez) bere eranskinean jasotzen dituen helburuak betez, programa honetako laguntzen esleipenak eta exekuzioak ondoko helburuen lortzea babestuko dute:

a) CID-ren 27. Helburua: etxebizitzak berritzeko jarduketak 2023ko laugarren hiruhilekoan amaitzea, lehen mailako energian % 30eko batezbesteko aurrezteak lortuz gutxienez (231.000 berritze-jarduketak 160.000 etxebizitza bakarretan, gutxienez).

b) CID-ren 29. Helburua: etxebizitzak berritzeko jarduketak 2026ko laugarren hiruhilekoan amaitzea, lehen mailako energian % 30eko batezbesteko aurreztea lortuz gutxienez (510.000 berritze-jarduketak 355.000 etxebizitza bakarretan, gutxienez).

28. artikulua.– Laguntzen azken hartzaile diren onuradunak.

1.– Ondokoak laguntzen azken hartzaileak izan daitezke:

a) Isolatutako edo lerrotan taldekatutako familia bakarreko etxebizitzak eta dagoeneko eraikita dauden bizitegi-tipologia kolektiboko eraikinen eta beren etxebizitzak jabeak edo gozamen-dunak, pertsona fisikoak zein izaera pribatuko edo publikoko nortasun juridikoa duten pertsonak izanda.

b) Administrazio publikoak eta zuzenbide publikoko beste organismo eta entitate guztiak, bai eta higiezin jabe diren administrazio publikoek osotasunean edo partzialki kontrolatzen dituzten enpresa publikoak edo merkataritza-sozietateak.

c) Jabeen erkidegoak edo Jabetza Horizontalaren uztailaren 21eko 49/1960 Legeko 5. artikuluari edo aplikatzekoak diren antzeko foru-arauei jarraiki eratutako jabeen erkidegoen elkarteak.

d) Kode Zibilaren 396. artikulua zehazten dituen baldintzak betetzen badituzte ere jabetza horizontalerako titulua formalizatua izan ez duten eraikinen jabetza talde gisara duten jabeak.

e) Kode Zibilaren 396. artikulua zehazten dituen baldintzak betetzen dituzten eraikinen edo etxebizitzak jabeek taldeka eratu dituzten kooperatiba elkarteak bai eta Jabetza Horizontalaren uztailaren 21eko 49/1960 Legeko 5. artikuluari edo aplikatzekoak diren antzeko foru-arauei jarraiki eratutako jabeen erkidegoak edo jabeen erkidegoen elkarteak osatzen dituzten jabeen kooperatibak eta erabilera lagapeneko etxebizitza kooperatibak.

f) Eraikinen enpresa errentariak edo kontzesionarioak, bai eta indarreko kontratuaren bitartez izaera hori egiaztatu ahal duten kooperatibak ere. Kontratu horrek berariazko gaitasuna aitortu beharko die programaren xede diren birgaitze-jarduketak egin ahal izateko.

2.– Jarduketaren gauzatzea zenbait azken hartzailearen esku dagoenean, bakoitzak bere gain hartu duen kostuaren eta erantzukizunaren arabera banatuko da laguntza.

3.– Laguntzen azken hartzaileek laguntza horien kobratzea birgaitzearen eragilearen edo kudeatzailearen esku utz dezakete, Agindu honetako 26.2 artikuluan arautu den akordioaren bitartez.

4.– Azken hartzaileek edo, hala badagokio, beren ordezkariak jarduten duen birgaitzearen eragileak edo kudeatzaileak, laguntzaren zenbateko osoa dagokion jarduketak ordaintzera bideratuko dute. Jabeen erkidegoen eta jabeen erkidegoen elkartearen kasuan ere arau berdina aplikatuko da. Halere, laguntzaren zenbatekoa eta obraren kostuak etxebizitzetako jabeetan eta, hala badagokio, merkataritza-lokaletako eta bateragarriak diren beste erabileretako onibarretako jabeetan izango du eragina, jabetza horizontalari buruzko legedian jasotako arauari jarraiki.

Aurreko idatz-zatian ezarritakoari kalterik egin gabe, jabeen erkidegoko edo jabeen erkidegoen elkartzeko kideren batek ezingo balu laguntza jaso legezko arrazoien ondorioz, jabe edo gozamen-dun horrek ez du jasotako laguntzatik berari dagokion zati proportzionala jasoko eta zenbateko hori erkidegoko edo elkartzeko beste kide guztien artean hainbanatuko da.

5.– Etxebizitzaren jabeak eta maizterrak adostu badute azken horrek ordaindu beharko dituela dagokion birgaitze-jarduketak, errenta ordaintzearen truke, maizterrak eskubidea izango du laguntza hauek eskatzeko gaitasuna emango dion akordioaren sinatzea eskatzeko jabeen erkidegoari edo jabe bakarrari. Kasu horretan, maizterra azken hartzailea bilakatuko da.

29 artikulua.— Jarduketan xede diren eraikinen betekizunak.

Programa honetako jarduketan xede diren eraikinek ondoko betekizunak bete beharko dituzte:

a) Egingo diren jarduketan proiektua izatea. Proiekturik behar ez duten jarduketan kasuan, teknikari eskudunak memoria bat sinatu beharko du, jarduketak Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta indarreko arau guztiak betetzen dituela egiaztatuz. Bi kasuetan, dagoen Eraikinaren liburua aurkeztu beharko da birgaitzerako. Horren faltan, eraikina hobetzeko potentzialari buruzko azterlan bat aurkeztu beharko da, EAL legean zehazturiko oinarritzko betekizunak aintzat hartuz; eta proposaturiko jarduketa identifikatuko duen Esku-hartze plan bat.

Proiektuak eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzeko azterlan bat izango du barne. Azterlan hori eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzeko dagokion planean islatu beharko da, eraikuntza- eta eraispén-hondakinaren ekoizpenari eta kudeaketari buruzko araubide juridikoa ezartzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuak dioenarekin bat. Horrez gain, ondoko baldintzak bete beharko dira:

1.— Jarduketan eremuan sorturiko arriskutsuak ez diren eraikuntza- eta eraispén-hondakinak (pisuan kalkulatuta) % 70 gutxienez (2000/532/EC Erabakiak zehaztu zuen Europako Hondakin Legeak jasotzen duen 17 05 04 kategoriko material naturala kenduta) berriz erabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko da, beste material batzuren ordean hondakinak erabilia egindako betelanak barne, EBko hondakin-hierarkiarekin eta eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat.

2.— Eragileek eraikuntzari eta eraispénari loturiko prozesuetan sorturiko hondakinak mugatu beharko dituzte, EBko eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzeko protokoloa betez. Egun eskuragarri dauden hobekuntza teknikoak aintzat hartuko dira eta gaikako eraispén egingo da substantzia arriskutsuen kentze eta maneiatze segurua bermatu eta kalitate handiko birziklatze eta berrerabiltzea errazteko materialen gaikako kentzearen bitartez, eraikuntza- eta eraispén-hondakinatarako eskuragarri dauden sailkatze-sistemez baliatuz. Era berean, lehentasuna emango zaio gaikako eraispénari eta, ahal dela, sailkatzea hondakinak sortu diren tokian bertan egingo da.

b) Eraikinen diseinuek eta eraikuntza-teknikek zirkulartasuna babestuko dute eta, bereziki, ISO 20887 arauari edo eraikinen desmuntatze-gaitasuna edo egokigarritasuna ebaluatzeko beste arau batzuei dagokienez ondoko alderdiak frogatu beharko dituzte: efizientzia bitartekoen erabileran, berrerabiltzea eta birziklatzea errazteko egokigarritasuna, malgutasuna eta desmuntagarritasuna.

c) Amiantoa duten eraikuntza-produktuak eraikinetik edo jarduketa-eremutik atera beharko dira. Produktu horiek ateratzerakoan amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu dakizkiekeen segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretua bete beharko da. Lan hori legez baimendutako enpresa batek egin beharko du. Prozesu horretan sorturiko hondakinak kudeatzerakoan eraikuntza- eta eraispén-hondakinaren ekoizpenari eta kudeaketari buruzko araubide juridikoa ezartzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretua bete beharko da.

d) Bizitegi-tipologia kolektiboko eraikinen kasuan ondoko baldintzak bete beharko dira:

1.— Nasa gainetik eraikitako bere azaleraren % 50ak gutxienez, bateragarriak diren beste erabileretako behe solairuak edo beheko solairuak kenduta, bizitegi-erabilerarako izan beharko du. Ez dago jarduketan xede diren etxebizitzak pertsonen ohiko etxebizitza (eta iraunkorra) direla frogatu beharrik.

2.— Jarduketek jabeen erkidegoaren adostasuna izan beharko dute, jabe bakarreko eraikinen kasuan salbu.

3.– Laguntzen xede diren eraikinek 2000. urtea baino lehenagokoak izan behar dute.

Eraikuntza-lanen amaiera-data frogatu ahal izateko ondoko dokumentuak aurkeztu daitezke, lehenetsun-ordena honetan: obra-bukaerako ziurtagiria edo obra-harreraren akta; horien faltan, obra berriaren adierazpena, katastro-ziurtagiria edo lehenengoz okupatzeko lizentzia; eta, azkenik, katastroan edo eraikinen erroldan agertzen den hori. Eraikina osorik birgaitzeko esku-hartze bat egin bada, 117/2018 Dekretuak, uztailaren 24koak, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzkoak jasotzen duen zentzuan, eraikin osoaren amaiera-data, haren adina kalkulatzeko, honako hau izango da: osorik birgaitu ondoko lehen okupaziorako lizentziari dagokiona, edo, lizentzia hori eduki ezean, obren amaierako ziurtagiriarena. Aurreko dokumentuak falta badira, zuzenbidean onargarria den beste edozein frogabide erabiliz ziurtatu ahal izango da eraikinaren adina.

4.– Eraikinetako jabe diren pertsonak edo entitateek Eraikinaren Ikuskapen Teknikoa (EIT) eginda izan beharko dute eskaria formalizatu baino lehen. Ikuskapen horrek sarrera-erregistroa izan beharko du dagokion udalean eta eraikinaren adina dena dela, dagokion Erabilera eta Mantentze Plana izan beharko du, dokumentu horien gauzatzeko 5. Programak aurreikusten dituen laguntzak eskatzeko dagoen aukerari kalterik egin gabe.

5.– Ondoko eraikinetan proposaturiko jarduketek ez dute dirulaguntzarik jasoko:

a) eraikin hutsak, aurri-adierazpena jaso dutenak edo deklarazio hori egiteko prozesuan daudenak. Eraikin bat hutsik egongo da bere etxebizitzetako % 75 hutsik badaude, etxebizitza bakoitzeko errolda kolektiboko ziurtagirian jasotakoaren arabera.

b) partzialki eraitsitako eraikinak, barnealdea hutsik duten eraikinak eta fatxada eraistea aurreikusten duten eraikinak.

c) dagoeneko eraikita dituzten solairuak handitzeko edo eraikinaren bizitegi-erabilera aldatzeko xedearekin beren egitura egonkortzeko edo birgaitze integrala gauzatzeko proiektuak aurreikusten dituzten eraikinak.

6.– Jarduketek interes kulturala izendatutako edo beste edozein babes-erregimen duten eraikinetan eragiten dutenean, jarduketa horiek aldeztu aurretik baimendu beharko dira, aplikatzekoa den babes-erregimena kudeatzeko eskumena duen organoaren aldetik eta bere araudi propioa betez.

30. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

1.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketak dira: etxebizitzarako bizitegi-erabilera nagusi duten eraikinak hobetzeko edo birgaitzeko jarduketak, hurrengo artikuluan ezarritako mugekin, beti ere berrizta ezin daitezkeen lehen mailako energiaren kontsumo-adierazlean % 30eko aurreztearen lortuz gero gutxienez, energia-ziurtaginari dagokionez.

2.– Aurreko atalean ezarritakoaz gain, Eraikingintzaren Kode Teknikoaren arabera C, D eta E zona klimatikoetan dauden eraikinetan, familia bakarreko etxebizitzaren edo eraikinaren berokuntzaren eta hozkuntzaren urteko energia-eskari globala eta energia-eskaria aurreztu beharko da ere, eskatutakoaren arabera:

– D eta E zona klimatikoak: % 35, gutxienez.

– C zona klimatikoa: % 25, gutxienez.

3.– Interes arkitektonikoko edo historikoko gune izendaturiko multzo baten parte izateagatik babes-erregimen baten mende dauden eraikinen kasuan, ingurutzailerik termikoa osatzen duten osa-

gaien gaineko jarduketak mugatuta badituzte, ez dago artikulu honetako 2. atalean zehaztutako eskaria murrizteko betekizuna bete beharrik. Nolanahi ere, alda daitezkeen ingurutzalearen osagaiak Eraikingintzaren Kode Teknikoak barne hartzen duen DB HE Energia aurrezteko Oinarrizko Dokumentuak 3.1.1.a-HE1 eta 3.1.3.a-HE1 tauletan jasotzen dituen transmitantzia termikoko eta airearekiko iragazkortasuneko muga-balioak bete beharko dituzte.

4.– Halaber, eraikinaren berokuntzaren eta hozkuntzaren urteko energia-eskari globala artikulu honetako 2. atalean ezarritako hori baino maila altuagoan aurreztea lortu duten energia-efizientzia hobetzeko jarduketak azken 4 urteotan izan dituzten (eta hori frogatzen dezaketen) eraikinek ez dute eraikinaren berokuntzaren eta hozkuntzaren urteko energia-eskari globala murrizteko betekizuna bete beharrik. Jarduketa horiek ez badute eskaturiko aurrezte-portzentajea berdindu edo hobetu, betekizun hori betetzat joko da dagoeneko jarduketak eta eskariaren xede den jarduketaren barruan egindako esku-hartzeak batuz gero eskaturiko eskari-aurreztea lortuko bada. Alderdi hau egiaztatzeko, dagokion energia-efizientziako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

5.– Diruz lagundu daitezke 2020ko otsailaren 1a eta gero hasitako jarduerak.

Jarduketan hasiera-data egiaztatzeko emandako lizentziaren edo administrazio-baimenaren data hartuko da aintzat; horren faltan, aurkeztu beharreko erantzukizunpeko adierazpenak erregistroan duen sarrera-data hartuko da kontuan. Hala badagokio, dagokion obrak xede dituen exekuzio-agindua emateko data hartuko da aintzat.

6.– Ezingo da, inola ere, jatorri fosileko erregaia erabiltzen duten sorgailu termikoetan inbertitzea ekarriko duen jarduketarik diruz lagundu.

31. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Laguntzen gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko garatu beharreko jarduketan kostu osoa hartuko da aintzat, zenbatekoak finkatzeko xedearekin ondoko puntuetan jaso diren irizpideen arabera.

2.– Xede horietarako, eta aipatu 1. taula aplikatzearen ondorioz ezarritako mugen barruan, diruz lagundu daitezkeen kostutzat joko dira jarduketan garapenari loturiko kudeaketa-kostuak eta beren gastuak, jarduketan kudeaketan eta garapenean esku hartu duten profesional guztien ordainsariak, obra-zuzendaritza barne, beharrezko proiektuak, txosten teknikoak eta ziurtagiriak idazteko kostuak, administrazio-izapidetzeari loturiko gastuak eta antzeko beste gastu orokor guztiak, beti ere egokiro justifikatuta badaude eta artikulu honetan ezarritakoaren arabera zehaztutako mugaren barruan. Ezingo dira diruz lagundu lizentzia, tasa, zerga edo tributuei loturiko kostuak. Nolanahi ere, BEZ edo zeharkako zerga baliokidea diruz lagundu daitezkeen horien artean egongo dira, beti ere osotasunean edo partzialki berreskuratu edo konpentsatu ezin badira.

Proiektuak 5. programaren kargurako dirulaguntza jaso badu birgaitzearen exekuzio-proiektuak idazteko (urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretua), jasotako zenbatekoa programa honen kargura jasotako dirulaguntzatik kenduko da. Programa honi loturiko gehieneko laguntza-zenbatekoa zehazterakoan proiektuaren kostua diruz lagundu daitekeen inbertsioan sartuko da eta 5. programaren barruan proiektua idazteko jaso den zenbatekoa gehieneko zenbateko horretatik kenduko da (urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretua).

3.– Eraikineko eman beharreko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoak ezingo ditu jarraian deskribatzen diren emaitzazko mugak gainditu:

a) 1. taulan ezarritako gehieneko portzentajea eta diruz lagundu daitezkeen jarduketan kostua biderkatuz gero lorturiko emaitza.

b) 1. Taulak jasotzen duen etxebizitzako gehieneko laguntza-zenbatekoa eta eraikineko etxebizitzaren kopurua biderkatzean loturiko zenbatekoa. Horri, hala badagokio, nasa gainetik merkataritza-lokaletan eta etxebizitza-erabilera ez diren erabiletarako eraiki den metro karratu bakoitzeko zehazturiko laguntzaren zenbatekoa (taula berdinean zehaztua) gehituko zaio, jarduketari esker berritza ezin daitekeen lehen mailako energiari dagokionez lorturiko aurrezte-mailaren arabera. Nasa gainetik merkataritza-erabilerarako eta etxebizitza-erabilera ez diren erabiletarako eraiki den metro karratu bakoitzeko zehazturiko laguntzaren zenbatekoa kalkulatu ahal izateko dagokion onibarrek jarduketaren exekuzio-kostuetan parte hartu beharko dute.

Jarduketari esker aurreztu den energia	Jarduketaren kostua diruz laguntzeko gehieneko portzentajea	Etxebizitza	Merkataritza-lokalak eta beste erabilera batzuk
		Laguntzaren gehieneko zenbatekoa, etxebizitzako (eurotan)	Laguntzaren gehieneko zenbatekoa, m ² -ko (eurotan)
% $30 \leq \Delta C_{ep,nren} < \% 45$	40	6.300	56
% $45 \leq \Delta C_{ep,nren} < \% 60$	65	11.600	104
$\Delta C_{ep,nren} \geq \% 60$	80	18.800	168

1. taula. Gehieneko dirulaguntza-portzentajeak eta zenbatekoak

4.– Amiantoa duten osagaiak kentzea eskatzen duten kasuetan laguntzaren gehieneko zenbatekoa baimenduriko enpresaren batek egin beharko dituen amiantodun hondakinen kentze-lanari, maneiuari, garraioari loturiko kostuak estaltzeko handi daiteke. Gehieneko kopurua 1.000 euro izango dira etxebizitzako edo, handiagoa balitz, 12.000 euro birgaitze-jarduketan xede den eraikineko.

5.– Jarduketa horien kostua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren VI. eranskinean jasotako «Dagoeneko eraikita dauden higiezinaren energia-efizientzia berritzea, demostrazio-proiektuak eta energia-efizientziako irizpideen arabera babes-neurriak» izeneko 025bis esku-hartze eremuaren arabera izango da. Klimaren aldeko ekintzari loturiko jarduketei aplikatzen zaizkien portzentajeak zehazten ditu aipatuak.

32. artikulua.– Zaurgarritasun-egoeran daudenentzako laguntza osagarriak.

1.– Aurreko artikuluan zehazturiko laguntza-zenbatekoa osatzeko aukera egongo da, zaurgarritasun ekonomikoko egoeran dauden pertsonen mesederako. Laguntza hauek eraikinaren osagai pribatiboen jabeak eta gozamedunak izateagatik jarduketa ordaintzera behartuta dauden eta, horrez gain, hurrengo atalean zehaztutako zaurgarritasun ekonomikoko baldintzak betetzen dituzten pertsonen emango zaizkie soil-soilik.

2.– Zaurgarritasun ekonomikoko egoeran daude 65 urteko edo gehiagoko pertsonak eta mugikortasun mugatuko desgaitasuna edo desgaitasun sentsoriala duten pertsonak, beren bizikidetzaren unitateekin batera, 25.000 eurotik beherako haztatutako urteko diru-sarrerak badituzte; eta, baita ere, 12.000 eurotik beherako haztatutako urteko diru-sarrerak dituzten bizikidetzaren unitateak. Konputa daitezkeen diru-sarrerak kalkulatzeko moduari dagokionez, 39/2008 Dekretuak, martxoaren 4koak, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruen inguruko finantza-neurriak buruzkoak dioena beteko da. Egoera ekonomiko larriari loturiko laguntzak familiaren urteko errenta haztatuaren arabera eta bizikidetzaren unitateak dituen kideen arabera zehaztutako portzentaje baten bitartez kalkulatu dira, ondoko taulan jasotakoari jarraiki:

Hatzatutako diru-sarrerak	Bizikidetz-unitateak dituen kideak		
	Kide 1	2 kide	3 kide edo gehiago
9.000 eurora arte	% 100	% 100	% 100
9.001 euro eta 12.000 euro bitartean	% 100	% 100	% 100
12.001 euro eta 15.000 euro bitartean	% 25	% 50	% 100
15.001 euro eta 18.000 euro bitartean	% 0	% 25	% 50
18.001 euro eta 25.000 euro bitartean	% 0	% 0	% 25

2. taula. Zaugarritasun-portzentajeak

3.– Aurreko suposizio horietako bakoitzerako, komunitaterako emandako laguntza eta artikuluhoni jarraiki emandako laguntza osagarria batuz gero ezingo dira ondoko taulan etxebizitzako zehaztu diren gehieneko zenbatekoak, jarduketei esker aurreztu den energia-mailaren arabera-koak direnak:

Energia-aurreztea	Gehieneko dirulaguntza, % 0-ko zaugarritasuna barne (euro)	Gehieneko dirulaguntza, % 25eko zaugarritasuna barne (euro)	Gehieneko dirulaguntza, % 50eko zaugarritasuna barne (euro)	Gehieneko dirulaguntza, % 100eko zaugarritasuna barne (euro)
% 30≤DCepnr<% 45	6.300	8.663	11.025	15.750
% 45≤DCepnr<% 60	11.600	13.162	14.723	17.846
DCepnr≥% 60	18.800	19.975	21.150	23.500

3. taula. Laguntza-portzentajeak familia anitzeko eraikinetan

Familia bakarreko eraikinen kasuan, zaugarritasun ekonomikoko egoeran dagoen etxebizitzako gehieneko laguntza-zenbatekoa ondokoa izango da:

Energia-aurreztea	Gehieneko dirulaguntza, % 0-ko zaugarritasuna barne (euro)	Gehieneko dirulaguntza, % 25eko zaugarritasuna barne (euro)	Gehieneko dirulaguntza, % 50eko zaugarritasuna barne (euro)	Gehieneko dirulaguntza, % 100eko zaugarritasuna barne (euro)
% 30≤DCepnr<% 45	8.100	11.138	14.175	20.250
% 45≤DCepnr<% 60	14.500	16.452	18.404	22.308
DCepnr≥% 60	21.400	22.738	24.075	26.750

4. taula. Laguntza-portzentajeak familia bakarreko eraikinetan

33. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura.

1.– Aurreko artikuluetan zehaztutako laguntzak eskatu ahalko dira Deialdi-agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik, esleituriko kredituak agortzen diren arte. Aurreko artikuluan ezarritakoa oinarri hartuta, zaugarritasun ekonomikoko egoeran egon daitezkeelako pertsona zehatz batzuen alde eskatutako diren laguntza osagarrien eskariak eraikinaren titularren aldeko laguntzak eskatzeko egintza berebanean aurkeztuko dira.

Laguntzaren xede diren jarduketak aztertu eta ebazteko dagozkien eskariak aurkeztu diren ordenari zorrozki jarraituko zaio, funtsak agortzen diren arte.

Laguntzen xede den jarduketak proiektu bat behar badu eta eskarian memoria bakarrik sartu bada, organo eskudunak ondoko berariazko ebazpen-baldintza sar dezake laguntza emateko ebazpenean: laguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunean hasiko den hiru hileko gehieneko epean emandako laguntzari dagokion jarduketaren proiektua aurkeztu beharko dela.

2.– Energia-efizientzia hobetzea eta iturri berriztagarriak dituen energia sustatzea xede duten inbertsioetarako emandako laguntzen azken hartzaileak jarduera komertziala edo merkataritzakoa garatzen duten eta Estatuko laguntzen araudiaren mende dauden enpresak direnean, laguntza horiek 2014ko ekainaren 17ko Batzordearen (EB) 651/2014 Erregelamenduan (barne-merkatuarekin bateragarriak diren laguntzen kategoria jakin batzuk aitortzen dituena, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz) eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen (EB) 1407/2013 Erregelamenduan jasotako baldintzen eta mugen mende egongo dira.

3.– Europar Batasuneko araudiak ezarri dituen laguntzen gehieneko mugak errespetatzeari begira, laguntzen azken hartzaileek jaso dituzten laguntza guztien inguruko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, ezarritako mugak bete direla egiaztatuz. Halaber, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, enpresa krisi-egoeran ez dagoela esanez («krisi-egoeran dagoen enpresa» definizioa 2014ko ekainaren 17ko (EB) 651/2014 Erregelamenduko 2. artikulua 18. atalean dago).

4.– Laguntzaren esleipena Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Lurralde Ordezkariek sinatuko du, ezarritako baldintza guztiak bete eta eskaturiko dokumentazio guztia aurkeztu dela egiaztatu ostean.

5.– Ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilekoa izango da, eskaria aurkeztu den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori amaituta ebazpenik ez balego eskaria ukatu dela ulertuko da.

6.– Programa honetako laguntzak jaso duten eraikinetan energia-efizientzia eta iraunkortasuna hobetzeko obrak exekutatzeko gehieneko epealdia 26 hilekoa izango da, laguntza eman den egunetik zenbatzen hasita. Epealdi hori hogeita zortzi hilera arte zabal daiteke, salbuespen gisa, 40 etxebizitza edo gehiagotan eragiten duten jarduketak edo eraikinak direnean.

Jarduketak exekutatzeko ezarritako epealdiak ezusteko eta egokiro justifikatutako egoeretan luzatu ahalko dira soil-soilik, baldin eta egoera horiek epealdia betetzea ezinezkoa egiten badute, laguntzen azken hartzaileen aldetik hartu diren gutxieneko neurri tekniko edo plangintza-neurri egokien gainera. Dagokion udal-lizentzia edo -baimena eskaria egin denetik sei hil baino gehiago berandutu denean baino ez da eskatuko luzatze hori. Ezingo da, inola ere, guztira hogeita hamasei hil baino gehiago (laguntza eman den egunetik zenbatzen hasita) zenbatuko dituzten epealdi-luzapenak baimendu laguntzen xede den jarduketa exekutatzeko.

Edonola ere, exekuzio-epealdiek SEEP planak zehaztu dituen CID helburuekin bat egin beharko dute. Jarduketan exekuzioak, horrenbestez, 2026ko ekainaren 30a baino lehenago bukatu beharko dute.

7.– Azken hartzaileek laguntzaren xede diren jarduketan exekuzioa instrukzio-organismoaren aurrean justifikatu beharko dute, jarduketak exekutatzeko eman den gehieneko epealdia amaitu eta hiru hileko epearen barruan. Horretarako, laguntzen azken hartzaile diren onuradunek eskaturiko dokumentazioa aurkeztu beharko dute eta SEMren Erregelamenduko 34. artikulua bete beharko dute, zeinak ondokoa baitio: Batasuneko funtsak jaso dituztenek finantzaketa honen jatorria aipatu beharko dute, bere ikusgarritasuna bermatuz, Batasunaren ikurra eta «NextGenera-

tionEU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana, –Europar Batasunaren finantzaketarekin–» esango duen finantzaketa-adierazpen egoki bat erabiliz ere beharrezkoa denean, bereziki diruz lagundu daitezkeen jarduketak eta beren emaitzak sustatzen direnean. Informazio koherentea, eraginkorra eta proportzionatua eman beharko da eta hartzaile anitz izango ditu jomugan, hedabideak eta publikoa barne.

8.– Jarduketa baino lehen eta jarduketaren ostean ziurtatze-sistema berdinen bitartez egin-dako ebaluazioen eskutik ikusiko balitz berrizta ezin daitekeen lehen mailako energiari dagokionez azkenean lortu den aurrezte-maila proiektuan hasiera batean aurreikusitako hori baino txikiagoa dela, dirulaguntzaren zenbatekoa egiazki lorturiko aurrezte-mailara egokituko da, 1. taulak dioena aintzat hartuz horretarako. Berrizta ezin daitekeen lehen mailako energiari dagokionez azkenean lortu den aurrezte-maila ez bada % 30era iristen edo 30. artikuluan berokuntzaren eta hozkuntzaren urteko energia-eskari globalari lotuta zehaztu diren baldintzak edo Agindu honetako beste edozein betekizuna betetzen ez badira, laguntza baliogabetu egingo da.

9.– Laguntzen azken hartzaile diren onuradunek ez badute justifikazioari loturiko betekizuna betetzen, laguntza eskatzeko eskubidea galdu dela adieraziko da, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartu zuen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduak 89. artikuluan dioena betez. Horretarako, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 42. artikuluan zehaztutako prozedurari jarraituko zaio.

10.– Laguntzak jasotzeko interesa duten pertsonak, onuradun izateko betekizunen betetzea egiaztatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztiarekin batera, eskaria egin beharko dute eta horretarako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza elektronikoa (<https://www.euskadi.eus>) eskuragarri dagoen eta arau honen amaierako eranskinetan azaldu-riko eredu ofiziala erabili beharko dute. Eskariarekin batera aurkeztu beharko den dokumentazioa ondokoa da:

a) Eskatzailearen datuak, izen-deiturak eta izena edo sozietate-izena eta IFK adieraziz. Eskatzailea birgaitzearen eragile edo kudeatzaile bat denean, ordezkaritza-eginkizun horiek betetzeko baimena eta ahalordea ematen dion laguntzen azken hartzaile diren onuradunen akordioa aurkeztu beharko du.

b) Hala badagokio, ordezkararen datuak, izen-deiturak eta IFK adieraziz, bai eta betetzen dituen ordezkaritza-eginkizunak ere, aplikatzeko den araudi berezia betez.

c) Birgaitu beharreko etxebizitzaren, etxebizitzaren, eraikinaren edo eraikinen datuak: helbideak eta katastro-erreferentziak.

d) Birgaitu behar diren etxebizitzaren eta, bere kasuan, lokalen kopurua, beren eraikitako azalera eta solairuak (behe solairua barne) adieraziz.

e) Egin beharreko jarduketaren proiektua edo, bere ordez, jarduketaren justifikazio-memoria. Laguntzen azken hartzaile diren onuradunen oniritzia izan beharko dute biek. Memoria horrek deskripzioa, jarduketa-eremuka xehakaturiko aurrekontua eta planoak jaso beharko ditu, gutxienez. Era berean, jarduketa-proiektuaren dokumentazioan edo jarduketaren justifikazio-memorian, dagokionaren arabera, hasierako egoerarekiko aurreikusi den berrizta ezin daitekeen lehen mailako energiaren kontsumo-aurrezte, diruz lagundu daitekeen inbertsioa eta eskatzen den laguntzaren zenbatekoa adieraziko dira.

f) Dagoeneko eraikita dagoen eraikinaren energia-efizientziako ziurtagiria, egungo egoerarekin egina. Eraikuntzen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarritzko prozedura onartzen duen ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuak eskatzen duen edukia izan beharko du, teknikari

eskudun batek sinatuta eta autonomia erkidegoko organo eskudunaren erregistroan erregistratuta egon beharko du (edo erregistro hori egiteko eskaria eginda bederen, dagokion deialdiak azken hori onartzen badu); eta proiektuan aurreikusitako jarduketak amaitzerakoan lortu nahi den energia-efizientziako ziurtagiria. Bigarren hori, jarduketa gauzatu aurretik lehena lortzeko erabili den sistema berbera aplikatuz lortuko da ere. Teknikari eskudun batek sinatu beharko du eta laguntza lortzeko eskatzen diren betekizunak betetzen direla egiaztatu beharko du ere.

Ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretua indarrean sartu baino lehen hasitako jarduketa balitz, jarduketa hasteko unean gai honi dagokionez indarrean zegoen araudiak dioena bete beharko du ziurtagiriak.

g) Bere kasuan, laguntzen xede diren birgaitze-lanen exekuzioa onartzeko erkidegoak, behar bezala elkartutako jabeen erkidegoek edo kooperatibaren batzarrak hartu duten akordioaren aktaren kopia edo idazkariak edo administratzaileak luzaturiko ziurtagiria.

h) Hala badagokio, aktaren kopia edo idazkariak edo administratzaileak luzaturiko ziurtagiria, dirulaguntza eskatzeko baimendu den ordezkariaren izendapena jasoz.

i) Sinaturiko kontratua edo eskaintza eta sailka xehakatutako aurrekontua. Aurrekontuak adierazi beharko ditu ere neurketak, unitate prezioak eta guztizko prezioak, dagokion BEZ edo zeharkako zerga baliokidea agertuz. Jabeen Erkidegoak aurrekontua berariaz onartu duela egiaztatu beharko da ere. Kapituluak egindako laburpen-orriak enpresaren sinadura eta zigilua, IFK eta data jaso beharko ditu.

j) Hirigintza-eskaria eta/edo lizentzia, beharrezkoa denean; edo udal-baimen baliokidea. Obrak dagoeneko hasita badaude, tituludun teknikari eskudunak sinaturiko obra-hasierako ziurtagiria edo zuinketa-akta, eraikuntza-enpresako obra-zuzendariak sinatua eta datatua eta jabeen oniritziarekin.

k) Argazki-erreportajea (kolorez ahal bada). Birgaitze-jarduketek aldatuko dituzten gunek guztiak eta eraikinaren fatxada nagusia erakutsi beharko dituzte.

11.– Eskaria eta aurreko dokumentazioa aurkezteak esan nahi du Agindu honetan ezarritako oinarri guztiak, dirulaguntzak ezarriko dituen ebazpenaren edukia barne, salbuespenik gabe onartzen direla.

Eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioaren barruan ondokoa aurkeztu beharko da: aldeko ebaluazio bat edo, bere kasuan, erantzukizunpeko adierazpen bat, Suspertze eta Erresiliencia Mekanismoa ezarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak 2. artikuluko 6. atalean aurreikusten duen «Ingurumen-kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa betetzen dela adieraziz.

12.– Laguntzen azken hartzaileek laguntzaren xede diren jarduketan gauzatzea instrukzio-organoren aurrean justifikatu beharko dute. Horretarako, eta orokorrean, ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

a) Proiektua behar duten jarduketan kasuan, egiazki exekutatu den obraren proiektua.

b) Obra-bukaerako ziurtagiria, dagokionean. Obra-zuzendariak eta, hala badagokio, obra exekutatzeko zuzendariak sinatu beharko dute.

c) Instalazio termikoaren ziurtagiria, hala badagokio, instalazioaren zuzendariak edo baimenduriko instalatzaileak sinatua eta, RITE erregelamenduari jarraiki, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzaren dagokion organoan erregistratua.

d) Jarduketak bukatu ostean lorturiko energia-efizientziako ziurtagiria. Jarduketa aurretiko ziurtagirirako erabili zen egiaztatze-sistema berbera aplikatu beharko da eta teknikari eskudun batek sinatu beharko du ziurtagiria. Organo eskudunean erregistratua egon eta laguntza lortzeko eskaturiko baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko du.

e) Oinarri hauei jarraiki laguntzak deituzkoan eta laguntzak emateko ebazpenean ezarri diren baldintzak bete direla justifikatuko duen jarduketa-memoria. Gauzaturiko jarduerak eta lorturiko emaitzak adierazi beharko ditu. Aipatu memoria proiektua egin edo jarduketan exekuzioa zuzendu duen tituludun teknikari eskudun batek egin eta sinatu beharko du. Memoriak jarduketan bukaera-data zehaztu beharko du. Azkenik, aplikatzekoa den derrigorrez bete beharreko araudia bete dela egiaztatu beharko du ere.

f) Exekutututako obren argazki-dokumentazioa, kolorez ahal bada.

g) Erantzukizunpeko adierazpena, diruz lagunduriko jarduera finantzatu duten beste diru-sarrerak eta dirulaguntzak zehaztuz. Beren zenbatekoa eta jatorria azaldu beharko ditu.

h) Egindako jarduketei loturiko aginduen eta/edo kontratuen zerrenda ziurtatua eta kopia.

i) Egindako inbertsioari dagozkion eta aurkeztutako aurrekontuari eta kontratuei erantzuten dieten fakturen eta beren ordainketaren banku-frogagiriaren zerrenda ziurtatua eta kopia.

j) 100.000 eurotik beherako laguntza jaso duten proiektuen kasuan, hautazkoa izango da gastuaren frogagiriak barne izango dituen justifikazio-kontua aurkeztea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua (aurreikusitako atalase ekonomikoak handitzeko 26/2020 Legegintzako Errege Dekretuko 63. artikulua aldatu duena) onartu zuen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartu zuen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamenduaren 72. artikulua dioenaren arabera.

Hautazkoa izango da ere auditoretza-txostena barne izango duen justifikazio-kontu bat aurkeztea, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartu zuen 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamenduaren 74. artikuluan xedatutakoaren arabera.

13.– Obrak xede dituzten laguntzen jomuga den jarduketari edozein hedabidetan eginiko erreferentzia orok Programaren Irudi Eskuliburuan jasotako baldintzak bete beharko ditu. Aipatu eskuliburua Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren webgunean (<http://www.mitma.es>) dago eskuragarri. Halaber, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak publizitate-neurrien inguruan dioena ere bete beharko da.

Halaber, eta hala badagokio, 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak Agindu honetako xede diren laguntzen publizitatea egiteko betebeharrei dagokienez xedatzen duena bete beharko da ere.

34. artikulua.– Laguntzen bateragarritasuna.

1.– Programa honetako dirulaguntzak bateragarriak dira xede berbera duten beste laguntza publiko guztiekin, baldin eta ez bada jarduketan guztizko kostua gainditzen eta nazio-mailako zein Europako beste laguntza horien arautzeek ere bateragarritasun hori aitortzen badute ere. Aplikatzekoa da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak 9. artikuluan dioena. Aipatu artikulua arabera, Mekanismoaren barruan emandako laguntza Batasuneko beste programa eta instrumentu batzuen eskutik jasotako horri gehituko zaio eta inbertsio-proiektuek Batasuneko beste programa eta instrumentu batzuen laguntza jaso ahalko dute, beti ere laguntza horrek ez badu kostu berdina estaltzen, Suspertze eta

Erresilientzia Mekanismoaren barruko programen arteko eta horien eta Batasuneko beste instrumentu batzuen arteko finantzaketa bikoitza saihesteko.

2.– Ez dute Programa honi loturiko finantzariarik lortzerik izango Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM) barruko Auzo-mailako birgaitze-jarduketaren programaren (1. Programa) eskutik laguntzak jasoko dituzten eraikinek.

3.– Programa hau bateragarria da hurrengo Kapituluaren arautzen den «Etxebizitzetan energia-efizientzia hobetzeko jarduketak diruz laguntzeko Programa» delakoarekin, baldin eta frogatua geratzen bada laguntzen xedea ez dela kostu berdina izango.

4.– Halaber, Programaren laguntzek lehentasuna izango dute Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren Aginduak, 2021eko uztailaren 21ekoak, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriak buruzkoak ezartzen dituen horien aurrean, Agindu honetako 3. artikuluan eta Lehenengo Azken Xedapenean zehaztutako baldintzetan.

Proiektu teknikoaren batasuna babesteari begira, berariazko bateragarritasuna aitortzen da Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren Aginduak, 2021eko uztailaren 21ekoak birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obretarako zehazten dituen 3. laguntza-lerroarekin. Lerro horrek beste xede batzuk hartzen ditu aintzat, energia-efizientzia gain: irisgarritasuna, kanpoko bizigarritasuna edo suteetatik babesteko segurtasuna, esaterako.

V. KAPITULUA

ETXEBIZITZETAN ENERGIA-EFIZIENTZIA HOBETZEKO JARDUKETETARAKO LAGUNTZA-PROGRAMA.

(URRIAREN 5EKO 853/2021 ERREGE DEKRETUA, 4. PROGRAMA)

35. artikulua.– Programaren xedea.

Programa honen xedea da etxebizitzetan energia-efizientzia hobetzea xede duten jarduketak edo obrak finantzatzea. Etxebizitza horiek familia bakarrekoak izan daitezke edo familia anitzeko eraikinetan egon daitezke.

Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko 2021eko ekainaren 16ko Kontseiluaren Exekuzio-erabakiak (CID ingelesez) bere eranskinean jasotzen dituen helburuak betez, programa honetako laguntzen esleipenak eta exekuzioak ondoko helburuen lortzea babesteko dute:

a) CID-ren 27. Helburua: etxebizitzak berritzeko jarduketak 2023ko laugarren hiruhilekoan amaitzea, lehen mailako energian % 30eko batezbesteko aurrezteak lortuz gutxienez (231.000 berritze-jarduketak 160.000 etxebizitza bakarretan, gutxienez).

b) CID-ren 29. Helburua: etxebizitzak berritzeko jarduketak 2026ko laugarren hiruhilekoan amaitzea, lehen mailako energian % 30eko batezbesteko aurrezteak lortuz gutxienez (510.000 berritze-jarduketak 355.000 etxebizitza bakarretan, gutxienez).

36. artikulua.– Laguntzen azken hartzaile diren onuradunak.

1.– Ondokoak programa honetako laguntzen azken hartzaileak izan daitezke:

a) Etxebizitzaren jabeak, gozamedunak edo maizterrak, pertsona fisikoak zein izaera pribatu eta publikodun nortasun juridikoko pertsonak badira.

b) Administrazio publikoak eta zuzenbide publikoko beste organismo eta entitate guztiak, bai eta higiezin jabe diren administrazio publikoek osotasunean edo partzialki kontrolatzen dituzten enpresa publikoak edo merkataritza-sozietateak.

2.– Laguntzen azken hartzaile diren onuradunek laguntza horien kobratzea birgaitzearen eragilearen edo kudeatzailearen esku utz dezakete, Agindu honetako 26.2 artikuluan arautu den akordioaren bitartez.

3.– Azken hartzaile diren onuradunek edo, hala badagokio, beren ordeztu jar duten birgaitzearen eragileak edo kudeatzaileak, laguntzaren zenbateko osoa dagokion jarduketak ordaintzera bideratuko dute.

37. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketan xede diren etxebizitzak betekizunak.

1.– Programa honetako finantzaketa eskatu duten etxebizitzek beren jabeen, gozamenen edo maizterren ohiko bizilekua, eta iraunkorra, izan behar dute laguntza eskatzeko unean. Egoera hori dagokion ziurtagiria edo errolda-frogagiria aurkeztuz egiaztatuko da.

Betekizun honetatik salbuetsita daude:

a) Behar bezala justifikatutako lan, osasun edo mendekotasun arrazoiaren ondorioz aldi baterako hutsik dauden etxebizitzak, 39/2008 Dekretuak, martxoaren 4koak, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoak 24. artikuluko hirugarren paragrafoan dioenari eta bere ordeztu onarturiko araudiak dioenari jarraiki.

b) Indarreko legedian ezarritako irisgarritasun-betekizunak betetzen ez dituztelako mugikortasun urritua edo desgaitasun sentzoriala duten pertsonak hutsik utzi behar izan dituzten etxebizitzak.

c) Senar-emazteak banandu edo dibortziatu edo izatezko bikotea hautsi ondoren bikote horretako kide bati esleitu zaion etxebizitza, esleipendun izan ez diren pertsonak aipatu etxebizitza uztera behartuta daudenean.

d) Egokiro frogaturiko genero-indarkeriako zioen edo gizarte-izaerako antzeko zioen ondorioz abandonatuak izan diren etxebizitzak.

2.– Programa honetako laguntzak eskatu dituzten etxebizitzek indarreko araudiak ezartzen dituen gutxieneko bizigarritasun-baldintzak bete beharko dituzte, dagokion jarduketa hasteko unean edo, bestela, aipatua bukatzeko unean.

3.– Edonola ere, ez dago Eraikinaren Ikuskapen Teknikoa aldeztu aurretik egin beharrik Programa honetako laguntzak jaso ahal izateko.

38. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

1.– Programa honen eskutik diruz lagundu daitezkeen jarduketak dira etxebizitzetan egin eta berokuntzaren eta hozkuntzaren urteko energia-eskari globala % 7an gutxienez eta berrizta ezin daitezkeen lehen mailako energiaren kontsumoa % 30ean gutxienez murriztuko dituzten horiek.

2.– Diruz lagundu daitezke ere inguratzaile termikoaren eraikuntza-osagaiak aldatu edo ordezkaturiko dituzten jarduketak, bilatzen duten helburua ondokoa bada: bere ezaugarriak Eraikintzaren Kode Teknikoak barne hartzen duen DB HE Energia aurrezteko Oinarriko Dokumentuak 3.1.1.a-HE1 eta 3.1.3.a-HE1 tauletan jasotzen dituen transmitantzia termikoko eta airearekiko iragazkortasuneko muga-balioetara egokitzea.

3.– Diruz lagundu daitezkeen kostuak ondokoak har ditzake barne: esku hartuko duten profesional ezberdinen ordainsariak, beharrezko proiektuak (obra-zuzendaritza barne), txosten teknikoak

eta ziurtagiriak idazteko kostuak, administrazio-izapidetzeari loturiko gastuak eta antzeko beste gastu orokor guztiak, beti ere egokiro justifikatuta badaude. Ezingo dira diruz lagundu lizentzia, tasa, zerga edo tributuei loturiko kostuak. Nolanahi ere, BEZ edo zeharkako zerga baliokidea diruz lagundu daitezkeen horien artean egongo dira, beti ere osotasunean edo partzialki berreskuratu edo konpentsatu ezin badira.

4.– Diruz lagundu daitezke 2020ko otsailaren 1etik aurrera hasitako jarduerak.

Jarduketan hasiera-data egiaztatzeko emandako lizentziaren edo administrazio-baimenaren data hartuko da aintzat; horren faltan, aurkeztu beharreko erantzukizunpeko adierazpenak erregistroan duen sarrera-data hartuko da kontuan. Hala badagokio, dagokion obrak xede dituen exekuzio-agindua emateko data hartuko da aintzat.

5.– Ezingo da, inola ere, jatorri fosileko erregaia erabiltzen duten sorgailu termikoetan inbertitzea ekarriko duen jarduketarik diruz lagundu.

39. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Jarduketaren gutxieneko kostua 1.000 eurokoa edo handiagoa izango da, etxebizitza bakoitzeko.

2.– Dirulaguntzaren zenbatekoa jarduketa-kostuaren % 40 izango da, 3.000 euroko mugarekin.

Ezingo dira diruz lagundu lizentzia, tasa, zerga edo tributuei loturiko kostuak. Nolanahi ere, BEZ edo zeharkako zerga baliokidea diruz lagundu daitezkeen horien artean egongo dira, beti ere osotasunean edo partzialki berreskuratu edo konpentsatu ezin badira.

Jarduketa hauen kostua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren VI. eranskinean jasotako «Dagoeneko eraikita dauden higiezinaren energia-efizientzia berritzea, demostrazio-proiektuak eta energia-efizientziako irizpideen araberrako babes-neurriak» izeneko 025bis esku-hartze eremuaren araberrakoa izango da.

40. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura.

1.– Aurreko artikuluetan zehaztutako laguntzak eskatu ahalko dira Deialdi-agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera, esleituriko kredituak agortzen diren arte.

Laguntzaren xede diren jarduketak aztertu eta ebatziko dira dagozkien eskariak aurkezteko ordenari zorrozki jarraiki, funtsak agortzen diren arte.

Laguntzen xede den jarduketak proiektu bat behar badu eta eskarian memoria bakarrik sartu bada, organo eskudunak ondoko berariazko ebazpen-baldintza sar dezake laguntza emateko ebazpenean: laguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunean hasiko den hiru hileko gehieneko epean emandako laguntzari dagokion jarduketaren proiektua aurkeztu beharko dela.

2.– Energia-efizientzia hobetzea eta iturri berriztagarriak dituen energia sustatzea xede duten inbertsioetarako emandako laguntzen azken hartzaileak jarduera komertziala edo merkataritzakoa garatzen duten eta Estatuko laguntzen araudiaren mende dauden enpresak direnean, laguntza horiek 2014ko ekainaren 17ko Batzordearen (EB) 651/2014 Erregelamenduan (barne-merkatuarekin bateragarriak diren laguntzen kategoria jakin batzuk aitortzen dituena, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz) eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen (EB) 1407/2013 Erregelamenduan jasotako baldintzen eta mugen mende egongo dira.

3.– Europar Batasuneko araudiak ezarri dituen laguntzen gehieneko mugak errespetatzeari begira, laguntzen azken hartzaileek jaso dituzten laguntza guztien inguruko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, ezarritako mugak bete direla egiaztatuz. Halaber, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, enpresa krisi-egoeran ez dagoela esanez («krisi-egoeran dagoen enpresa» definizioa 2014ko ekainaren 17ko (EB) 651/2014 Erregelamenduko 2. artikulua 18. atalean dago).

4.– Laguntzaren esleipena Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Lurralde Ordez-kariak sinatuko du, ezarritako baldintza guztiak bete eta eskaturiko dokumentazio guztia aurkeztu dela egiaztatu ostean.

5.– Ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilekoa izango da, eskaria aurkeztu den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori amaituta ebazpenik ez balego eskaria ukatu dela ulertuko da.

6.– Programa honetako laguntzak jaso duten etxebizitzetan energia-efizientzia eta iraunkortasuna hobetzeko obrak exekutatzeko gehieneko epealdia hamabi hilekoa izango da, laguntza eman den egunetik zenbatzen hasita.

7.– Azken hartzaileek laguntzaren xede diren jarduketan exekuzioa instrukzio-organoaren aurrean justifikatu beharko dute, jarduketak amaitu eta hiru hileko gehieneko epealdiaren barruan.

8.– Jarduketa baino lehen eta jarduketaren ostean ziurtatze-sistema berdinen bitartez egindako ebaluazioen eskutik ikusiko balitz berrizta ezin daitekeen lehen mailako energiari zein berokuntzaren eta hozkuntzaren eskari globalari dagokienez azkenean lortu den aurrezte-maila ez dela Agindu honetako 38. artikuluan ezarritako mailara iristen edo Agindu honetako beste edozein betekizuna betetzen ez bada, laguntza baliogabetu egingo da.

Programaren laguntzak esleitu ahal izateko ezarri diren baldintzetako edozein ez betetzeak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulua ezartzen dituen suposizioetako edozeinetan, eta SEEP planari loturiko araudiko mugariak, helburuak, epealdiak eta beste edozein alderdi ez betetzeak, Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legearen 7. artikuluko zazpigarren baldintzari jarraiki, jasotako zenbatekoak osotasunean itzultzeko eta dirulaguntza ordaindu zenetik pilaturiko berandutze-interesa eskatzeko prozedura irekitzea ekarriko du. Horretarako, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluko II. kapituluaren arautzen den itzulketa-prozedura aplikatuko da.

9.– Laguntzen azken hartzaile diren onuradunek ez badute justifikazioari loturiko betekizuna betetzen, laguntza eskatzeko eskubidea galdu dela adieraziko da, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartu zuen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduak 89. artikuluan dioena betez. Horretarako, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 42. artikuluan zehaztutako prozedurari jarraituko zaio.

10.– Laguntzak jasotzeko interesa duten pertsonak, onuradun izateko betekizunen betetzea egiaztatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztiarekin batera, eskaria egin beharko dute eta horretarako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza elektronikoan (<https://www.euskadi.eus>) eskuragarri dagoen eta arau honen amaierako eranskinetan azaldu-riko eredu ofiziala erabili beharko dute. Eskariarekin batera aurkeztu beharko den dokumentazioa ondokoa da:

a) Eskatzailearen datuak, izen-deiturak eta izena edo sozietate-izena eta IFK adieraziz. Eskatzailea birgaitzearen eragile edo kudeatzaile bat denean, ordezkari-eginkizun horiek betetzeko baimena eta ahalordea ematen dion laguntzen azken hartzaile diren onuradunen akordioa aurkeztu beharko du.

b) Hala badagokio, ordezkariaren datuak, izen-deiturak eta IFK adieraziz, bai eta betetzen dituen ordezkari-tza-eginkizunak ere, aplikatzekoa den araudi berezia betez.

c) Birgaitze-jarduketak hartuko dituen etxebizitzaren datuak: helbidea eta katastro-erreferentzia.

d) Egin beharreko jarduketaren proiektua edo jarduketaren justifikazio-memoria. Laguntzen azken hartzaile diren onuradunen oniritzia izan beharko dute biek. Memoria baten kasuan, gutxieneko dokumentazioa ondokoa izango da: deskribapena, xehakaturako aurrekontua eta planoak. Eskaturiko laguntzaren zenbatekoa adieraziko du ere.

e) Egungo egoerarekin etxebizitzak duen energia-efizientziako ziurtagiria. Ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuak eskatzen duen edukia izan beharko du, teknikari eskudun batek sinatuta eta autonomia erkidegoko organo eskudunaren erregistroan erregistratuta egon beharko du (edo erregistro hori egiteko eskaria eginda bederen, dagokion deialdiak azken hori onartzen badu); eta proiektuan aurreikusitako jarduketak amaitzerakoan lortu nahi den energia-efizientziako ziurtagiria. Bigarren hori, jarduketa gauzatu aurretik lehena lortzeko erabili den sistema berbera aplikatuz lortuko da ere. Teknikari eskudun batek sinatu beharko du eta laguntza lortzeko eskatzen diren betekizunak betetzen direla egiaztatuko beharko du ere.

Ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretua indarrean sartu baino lehen hasitako jarduketa balitz, jarduketa hasteko unean gai honi dagokionez indarrean zegoen araudiak dioena bete beharko du ziurtagiriak.

f) Instalazio termikoaren ziurtagiria, hala badagokio, instalazioaren zuzendariak edo baimenduriko instalatzaileak sinatuta eta, RITE erregelamenduari jarraiki, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzaren dagokion organoan erregistratuta.

g) Laguntzaren xede diren osagaiak jarduketaren aurretik agertuko dituen argazki-erreportajea, kolorez ahal bada.

11.– Eskaria eta aurreko dokumentazioa aurkezteak esan nahi du Agindu honetan ezarritako oinarri guztiak, dirulaguntzak ezarriko dituen ebazpenaren edukia barne, salbuespenik gabe onartzen direla.

Eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioaren barruan ondokoa aurkeztu beharko da: aldeko ebaluazio bat edo, bere kasuan, erantzukizunpeko adierazpen bat, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak 2. artikuluko 6. atalean aurreikusten duen «Ingurumen-kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa betetzen dela adieraziz.

12.– Laguntzen azken hartzaileek laguntzaren xede diren jarduketaren gauzatzea instrukzio-organoren aurrean justifikatu beharko dute. Horretarako, eta orokorrean, ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, dagokion deialdietan eska daitekeen dokumentazio osagarriari kalterik egin gabe:

a) Oinarri hauei jarraiki laguntzak deituzkoan eta laguntzak emateko ebazpenean ezarri diren baldintzak bete direla justifikatuko duen jarduketa-memoria. Gauzaturiko jarduerak eta lorturiko emaitzak adierazi beharko ditu. Aipatu memoria tituludun teknikari eskudun batek egin eta sinatu beharko du. Memoriak jarduketaren bukaera-data zehaztu beharko du ere. Azkenik, aplikatzekoa den derrigorrez bete beharreko araudia bete dela egiaztatuko beharko du ere.

b) Jarduketak bukatu ostean lorturiko etxebizitzaren energia-efizientziako ziurtagiria. Jarduketa aurretiko ziurtagirirako erabili zen egiaztatze-sistema berbera aplikatu beharko da eta teknikari eskudun batek sinatu beharko du ziurtagiria. Organo eskudunean erregistratua egon eta laguntza lortzeko eskaturiko baldintzak betetzen direla egiaztatzea beharko du.

c) Instalazio termikoaren ziurtagiria, hala badagokio, instalazioaren zuzendariak edo baimenduriko instalatzaileak sinatua eta, RITE erregelamenduari jarraiki, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzaren dagokion organoan erregistratua.

d) Exekutututako obren argazki-dokumentazioa, kolorez ahal bada.

e) Gauzaturiko jarduketaren gastu- eta ordainketa-frogagiriak.

f) Hala badagokio, erantzukizunpeko adierazpena, diruz lagunduriko jarduera finantzatu duten beste diru-sarrerak eta dirulaguntzak zehaztuz. Beren zenbatekoa eta jatorria azaldu beharko ditu.

13.– Obrak xede dituzten laguntzen jomuga den jarduketari edozein hedabidetan eginiko erreferentzia orok Programaren Irudi Eskuliburuan jasotako baldintzak bete beharko ditu. Aipatu eskuliburua Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren webgunean (<http://www.mitma.es>) dago eskuragarri.

41. artikulua.– Laguntzen bateragarritasuna.

1.– Programa honetako azken hartzaileek laguntza hauek auzo-mailako birgaitze-jarduketak diruz laguntzeko programaren eta eraikinen birgaitze integrala diruz laguntzeko programaren laguntzekin batera eska ditzakete. Horretarako, baina, laguntza ezberdinen xedea kostu berbera ez dela frogatu beharko dute. Kasu horietan, laguntzaren eskarian zein egiaztatze-prozesuan berariaz jaso beharko da, erantzukizunpeko adierazpen baten bitartez, arestian aipatu programe-tan eskatu diren laguntzek ez dutela jarduketa berbera xede.

Nolanahi ere, Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko 2021eko ekainaren 16ko Kontseiluaren Exekuzio-erabakiak jasotzen dituen programa honen garapenari loturiko mugarren eta helburuen lorpenari dagokionez Espainiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren bitartez finantzatu diren jarduketak aintzat hartuko dira bakarrik.

2.– Programa honetako dirulaguntzak bateragarriak dira xede berbera duten beste laguntza publiko guztiekin, baldin eta ez bada jarduketan guztizko kostua gainditzen eta nazio-mailako zein Europako beste laguntza horien arautzeek ere bateragarritasun hori aitortzen badute. Aplikatzekoa da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak 9. artikuluan dioena. Aipatu artikulua araberak, Mekanismoaren barruan emandako laguntza Batasuneko beste programa eta instrumentu batzuen eskutik jasotako horri gehituko zaio eta inbertsio-proiektuek Batasuneko beste programa eta instrumentu batzuen laguntza jaso ahalko dute, beti ere laguntza horrek ez badu kostu berdina estaltzen, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren barruko programen arteko eta horien eta Batasuneko beste instrumentu batzuen arteko finantzaketa bikoitza saihesteko.

3.– Programako laguntzek lehentasuna izango dute Etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurri buruzkoak ezartzen dituen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduak ezartzen dituen aurrean, agindu honetako 3. artikuluan eta Lehenengo Azken Xedapenean zehaztutako baldintzetan.

VI. KAPITULUA

BIRGAITZEKO ETA BIRGAITZE-PROIEKTUAK IDAZTEKO DAGOEN ERAIKINAREN
LIBURUA EGITEN LAGUNTZEKO PROGRAMA

(URRIAREN 5EKO 853/2021 ERREGE DEKRETUKO 5. PROGRAMA)

42. artikulua.– Programaren xedea.

1.– Programaren xedea da birgaitzeko idazteko dagoen Eraikinaren liburua ezarri eta orokortzeko sustatzea eta, horretarako, dirulaguntza ematea, Liburua igortzeko ordainsari profesionalen gastuen zati bat ordaintzeko eta eraikinen birgaitze integralerako proiektu teknikoak garatzeko, ezarritako baldintzen arabera. Helburua da eraikinetan birgaitze energetiko adierazgarria eta kalitate handikoa aktibatzea, Europako helburuak betetzeko eta jarduera-sektore horren epe ertain eta luzeko jarduera sustatzeko.

2.– Agindu honen ondorioetarako, Eraikinaren Liburuak honako atal hauek barne hartuko ditu:

a) Eraikuntzaren datu orokorrak. Datuok aterako dira honako hauetan eskatutakoetatik: 250/2003 Dekretua, urriaren 21ekoa, Etxebizitzarako Eraikinaren Liburua Euskal Autonomia Erkidegoan arautzen duena edo, hori izan ezean, 117/2018 Dekretua, uztailaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzkoa eta garatzen diren dagozkion Aginduak.

b) Eraikuntzaren egoera eta Erabilera eta Mantentze Plana. Datu horiek aterako dira honako hauetan eskatutakoetatik: 250/2003 Dekretua, urriaren 21ekoa, Eraikinaren Liburua arautzen duena edo, hori izan ezean, 117/2018 Dekretua, uztailaren 24koa, Eraikinen ikuskapen teknikoari buruzkoa eta garatzen diren dagozkion Aginduak. Dirulaguntzen eskatzaileek ez badute EIT osatuta, edo hori indarrean ez badago, osatu egin beharko dute.

c) Eraikinaren ezaugarriak hobetzeko ahalmenaren diagnostikoa, eraikuntzaren antolamenduko legediak eskatutako oinarritzko baldintzei dagokienez, eta hori laguntzak eskaintzen dituztenek osatu beharko dute, aurreko dokumentuetan jasotako informazioa abiapuntu.

d) Eraikinaren hobetzeko Jarduteko Plana, hobekuntza-maila gorena lortzeko, esku-hartze baten bidez, hala badagokio, fasetan banatuta eta lehenetsita eta ekonomikoki balioztatuta. Jarduteko planak berariaz jasoko ditu lehen mailako energia ez-berriztagarriaren kontsumoa % 30 baino gehiago aurrezteko neurriak edo neurri-sortak, eta kasu bakoitzean kalkulaturako aurreztea adieraziko da. Hala, eraikinaren lehen mailako energia-kontsumoa murrizteari buruzko 1. taulan ezarritako hiru mailatarako neurriak edo neurri-sortak proposatuko dira. Hiru mailak hauek dira: % 30 eta % 45 artean, % 45 eta % 60 artean, eta % 60 baino gehiago.

3.– Kontseiluaren Exekuzio Erabakiaren (CID, ingelesez), 2021eko ekainaren 16koaren, Espainiako suspertze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoaren eranskinean ezarritako helburuak betetzeko, Programa honetako laguntzak eman eta exekutatzeko honako helburu hauek beteko dira:

a) CIDen 27. helburua: etxebizitzak berritzeko jarduketak amaitzea, lehen mailako energia, gutxienez, batez beste % 30 murriztuta (berritzeko 231.000 jarduketa 160.000 etxebizitza bakaurretan, gutxienez), 2023ko laugarren hiruhilekoan.

b) CIDen 29. helburua: etxebizitzak berritzeko jarduketak amaitzea, lehen mailako energia, gutxienez, batez beste % 30 murriztuta (berritzeko 510.000 jarduketa 355.000 etxebizitza bakaurretan, gutxienez), 2026ko bigarren hiruhilekoan.

43. artikulua.– Laguntzen azken hartzaile onuradunak.

1.– Programaren azken hartzaile izan daitezke honako hauek:

a) Familia bakarreko etxebizitza isolatuen edo lerroan multzokatutakoen jabeak edo gozamen-dunak, eta etxebizitza kolektiboko bizitegi-eraikinen jabeak edo gozamen-dunak, pertsona fisikoak edo pertsona juridiko pribatu edo publikoak izanik ere. Azken hartzaile izan daitezke, baita ere, administrazio publikoak eta zuzenbide publikoko erakunde eta entitateak, baita enpresa publikoak eta administrazio publikoek, osorik edo gehiengoz, partaidetutako merkataritza-sozietateak ere.

b) Jabeen erkidegoak, edo jabeen erkidegoen elkarteak, Jabetza Horizontalaren uztailaren 21eko 49/1960 Legearen 5. artikulua xedatutakoaren arabera eratu badira, edo aplikagarriak diren bestelako foru-arauen arabera eratu badira.

c) Elkartutako eraikinen jabe diren jabeak, Kode Zibilaren 396. artikuluan ezarritako eskakizunak biltzen dituztenak eta Jabetza Horizontalaren dagokion titulua egiletsi ez dutenak.

d) Kooperatiba-sozietateak, etxebizitzaren edo eraikinen jabeek osatutako elkarte bidez, Kode Zibilaren 396. artikuluan ezarritako eskakizunak biltzen dituztenak, eta jabeen erkidegoak edo jabeen erkidegoen elkarteak osatzen dituzten jabeak, Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legearen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera edo aplikagarriak diren foru-arauen arabera eratu direnak.

2.– Laguntzen azken hartzaileek baimendu ahal izango dute laguntzak birgaitzearen ordezkariari edo kudeatzaileari ordaintzea eta, horretarako, Agindu honetako 26.2 artikuluan aipatutako akordioa beteko dute.

3.– Azken hartzaileek, edo hala badagokio, haien izenean jardungo duen birgaitzearen ordezkari edo kudeatzaileak, laguntzaren zenbateko osoa erabiliko du dagozkion jarduketak ordaintzeko. Jabeen erkidegoen eta jabeen erkidegoen elkarteen kasuan, arau hori bete egin beharko da ere, laguntzaren zenbatekoa eta obren kostua etxebizitzaren jabeek eta, hala badagokio, merkataritza-lokaletako edo beste erabilera bateragarriko onibarretako jabeek ordaindu behar badute ere, jabetza horizontalari buruzko legedian aurreikusitako arauen arabera.

Hala ere, jabeen erkidegoko edo jabeen erkidegoen elkarteko kideren batek ezin badu laguntza jaso beste lege-arrazoi bat dela medio, ez zaio jabe horri emango jasotako laguntzaren dago-kion zati proportzionala, eta erkidegoaren edo elkartearen gainerako kideen artean proportzionalki banatuko da.

44. artikulua.– Diruz laguntzeko jarduketak egiteko eraikinen baldintzak.

1.– Programa honen bidez diruz laguntzeko jarduketak egiteko honako baldintza hauek beteko dituzte eraikinek:

a) Eraikina 2000. urtea baino lehenago amaitu izana.

b) Lur-arrasaren gainean eraikitako azaleraren % 50, gutxienez (beheko solairua edo solairuak izan ezik, erabilera bateragarria baldin bada), bizitegi-erabilerarako izatea.

2.– Aipatu bi baldintza horiek egiaztatzeko eskritura, erregistro-oharra edo katastroko datuen kontsulta deskriptibo eta grafikoa erabiliko dira.

3.– Proiektuak barne hartuko du eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko azterketa eta hori ondoren egingo da, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko planean,

105/2008 Errege Dekretuak, otsailaren 1ekoak, Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenak, ezartzen duenez. Honako hauek dira bete beharreko baldintzak:

a) Eraikuntzaren lekuan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakin ez arriskutsuen % 70 (pisuan), gutxienez (salbuetsita egongo da 2000/532 Batzordearen Erabakiak ezarritako hondakinen Europako zerrendan 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala), berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko da, baita beste material batzuk ordezkatzeko hondakinak erabiliz betetako operazioak ere, hondakinen hierarkiaren eta EBren eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketarako Protokoloaren arabera.

b) Operadoreek mugatu egingo dute eraikuntzarekin eta eraispenarekin lotutako prozesuetan sortutako hondakinak sortzea, EBren eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko Protokoloa jarraiki, teknika erabilgarri onenak kontuan hartuta, eta eraispen selektiboa egingo da, sustantzia arriskutsuak deuseztatu eta manipulatzeko eta, materialen deuseztapenaren bidez, kalitate handiko berrerabilpena eta birziklapena errazteko, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen sailkapen-sistemak erabilia. Halaber, ahal izanez gero, selektiboki eraitsiko da, eta hondakinak sortzen diren lekuan bertan sailkatuko dira.

4.– Eraikinen diseinuek eta eraikuntzarako teknikak zirkulartasuna sustatuko dute eta, zehazki, frogatuko dute, ISO 20887 estandarrari edo eraikinen desmuntatzeko edo egokitzeko ahalmena ebaluatzeko bestelako araei jarraiki, nola diseinatu diren baliabideen erabilera efizientea goa lortzeko, egokitzeko, malgutzeko eta berrabilpena eta birziklapena ahalbidetzeko moduan desmuntatzeko.

45. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Birgaitzeko Eraikinaren liburua egiteko dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa horrela kalkulatu da:

a) Familia bakarreko etxebizitzan eta 20 etxebizitza arteko familia anitzeko eraikinen kasuan: 700 euro, eta etxebizitza bakoitzeko 60 euro gehiago.

b) 20 etxebizitza baino gehiagoko familia anitzeko eraikinen kasuan: 1.100 euro, eta 40 euro gehiago etxebizitza bakoitzeko; dirulaguntza, gehienez, 3.500 euro izango da.

Eraikinaren Ikuskapen Teknikorik, Eraikinaren Ebaluazio Txotetik edo dokumentu analogorik ez badu, dirulaguntza % 50 handiagoa ere izan daiteke.

2.– Eraikinen birgaitze integralerako proiektu teknikoaren kasuan, dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa horrela kalkulatu da:

a) Familia bakarreko etxebizitzan eta 20 etxebizitza arteko familia anitzeko eraikinen kasuan: 4.000 euro, eta etxebizitza bakoitzeko 700 euro gehiago.

b) 20 etxebizitza baino gehiagoko familia anitzeko eraikinen kasuan: 12.000 euro, eta 300 euro gehiago etxebizitza bakoitzeko; dirulaguntza, gehienez, 30.000 euro izango da.

3.– Jarduketa horien kostua 025 esku-hartzearen kategoriarik dago, «Egungo eraikinen energia-efizientzia berritzea, erakusketa-proiektuak eta laguntzeko neurriak», eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren VI. eranskinean dago jasota.

4.– Laguntzaren zenbatekoa ez da guztizko kostua baino handiagoa izango, zergak kenduta. Hala ere, BEZ edo halako zeharkako zergaren kasuan, hauta daitezke, baldin eta ezin badira osorik edo zati batean berreskuratu edo konpentsatu.

5.– Diruz lagunduko diren proiektuen dokumentuak 2020ko otsailaren 1aren ondoren idatzitakoak izango dira.

Dokumentuak noiz idatzi ziren egiaztatzeko, diruz laguntzea nahi den dokumentazioa erregistro ofizialean zein egunetan sartu zen hartuko da kontuan.

6.– Programa honen dirulaguntza jasotzen duten dokumentuak, behin betiko bertsioan, 2026ko ekainaren 30a baino lehen egongo dira idatzita.

46. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura.

1.– Aurreko artikuluetan ezarritako laguntzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian deialdi-agindu hau argitaratu eta kredituak agortu arte eskatu ahalko dira.

Laguntzak jaso ditzaketen jarduketak eskaerak jaso diren orden zorrotzean hautatuko dira, funtsak agortu arte.

Proposatutako jarduketak proiektua behar badu, eta eskaeran memoria baino ez bada aurkeztu, organo eskudunak laguntza ematea ebatz dezake, eta eskatu, laguntza eman dela jakinarazi eta hiru hileko epean, aurkez dadila jarduteko proiektua, emandako laguntza egiteko beharrezkoa dena.

2.– Azken hartzaileak enpresak badira edo merkataritza-jarduera garatzen badute eta, hor-taz, aplikagarriak bazaizkie energia-efizientziarako neurriak hartzeko inbertsioak egiteko eta iturri berriztagarrietatik eskuratutako energia sustatzeko estatuko laguntzen araudia, honako hauetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte: 651/2014 (EB) Erregelamendua, Europako Batzordearena, 2014ko ekainaren 17koa, barne-merkatuarekin bateragarri izateko laguntza-kategoriak izendatzen dituena, Tratatuaren 107 eta 108 artikuluei jarraiki, eta 1407/2013 (EB) Erregelamendua, Batzordearena, 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasuneko Itunaren 107. eta 108. artikuluek minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

3.– Europar Batasunaren araudiak ezarritako laguntzen gehienezko zenbatekoak errespetatzeko, laguntzen azken hartzaileek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko dute, jasotako laguntza guztientzat, eta adieraziko dute ezarritako baldintzak betetzen direla. Halaber, enpresa krisi egoeran ez dagoela adierazteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluen 18 atalean ezarritako «enpresa krisian» definizioaren arabera.

4.– Laguntza emateko ebazpena Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Lurralde Ordezkaritari dagokio, eskaera bakoitzean ezarritako baldintzak betetzen direla eta aurkeztutako dokumentazioa egiaztatutakoan.

5.– Ebatzi eta ebazpena jakinarazteko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaera aurkezten den egunetik hasita. Aipatu epean ebazpenik jaso ez bada, eskaera ez dela onartu ulertuko da.

6.– Interesdunek eskaera eta onuradunak izateko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko beharrezko dokumentazioa aurkezteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoan, <https://www.euskadi.eus> webgunean, eskuragarri dagoen eredu ofiziala erabiliko dute. Arau honen amaierako Eranskinetan ere jasota datoz. Eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

a) Eskatzailearen datuak, izen-abizenak edo sozietate-izena, eta IFZ. Eskatzailea birgaitzearen ordezkaria edo kudeatzailea baldin bada, laguntzen azken hartzaile onuradunen adostasuna aurkeztuko dute, ordezkari edo kudeatzaileari baimena ematen diotela egiaztatzeko.

b) Hala badagokio, ordezkariaren datuak (izen-abizenak eta IFZ) eta dagokion ordezkariaren egiaztapena, aplikagarria den berariazko araudiaren arabera.

c) Liburuaren edo proiektuaren xede den eraikina edo eraikinak, laguntza motaren arabera, helbidea eta katastroko erreferentziak.

d) Liburuaren edo proiektuaren xede den eraikinaren etxebizitza kopurua eta, hala badagokio, lokal kopurua, programa motaren arabera. Eraikitako azalera eta altuera zenbakiak adieraziko dira, beheko solairua barne.

e) Birgaitzerako idatzita dagoen Eraikinaren liburua edo eraikinaren birgaitze integralerako proiektu teknikoa, programa motaren arabera. Laguntzen azken hartzaile onuradunen adostasuna jaso beharko du.

Eraikinaren birgaitze integralerako proiektu teknikoen kasuan, proposatutako jarduketaren justifikazio-memoria aurkez daiteke. Memoria horrek jasoko du, gutxienez: deskribapena, aurrekontua, jarduteko eremu bakoitzaren arabera sailkatuta, eta planoak. Halaber, jarduteko proiektuaren dokumentazioan edo jarduketaren justifikazio-memorian, dagokionaren arabera, lehen mailako energia ez-berriztagarriaren kontsumoa zenbat murriztea aurreikusi den adieraziko da, hasierako egoerarekin alderatuta, eta eskatutako laguntzaren zenbatekoa.

f) Egungo egoeran eraikinaren energia-efizientziaren ziurtagiria. Ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuak ezarritakoa jasoko du, teknikari eskudunak sinatuta eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzaren dagokion erregistroan erregistratuta egongo da. Erregistro-eskaera ere aurkez daiteke, dagokion deialdiak hala baimentzen badu.

g) Eraikinaren birgaitze integraleko proiektu teknikoen kasuan, proiektuaren energia-efizientziako ziurtagiria eta proiektuak barne hartutako jarduketak jasoko ditu. Ziurtagiri hori eraikinaren egungo egoeraren energia-efizientziaren ziurtagirirako erabilitako ziurtapen-programa berarekin egingo da, eta teknikari eskudunak sinatuko du.

h) Hala badagokio, aktaren kopia edo idazkariaren edo administratzailearen ziurtagiria, jabeen erkidegoen elkartarena edo kooperatibaren batzarrarena. Bertan adieraziko da onartu dela laguntzaren xede den eraikinaren birgaitze integralerako edo birgaitze integralerako proiektu teknikorako Eraikinaren liburua egitea.

i) Hala badagokio, aktaren kopia edo idazkari edo administratzailearen ziurtagiria, dirulaguntza eskatzeko ordezkaria baimentzen duena.

j) Eraikinaren birgaitze integraleko proiektu teknikoen kasuan, eragindako gune guztien eta eraikinaren fatxada nagusiaren argazkiak, kolorean ahal bada.

k) Aldeko ebaluazioa edo, hala badagokio, «ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» erantzukizunpeko adierazpena, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Europako Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 2. artikulua 6 atalean ezarritakoari jarraiki.

7.– Dokumentazio hori aurkeztean, baldintzatu gabe onartzen dira Agindu honetan ezarritako oinarriak, baita dirulaguntzak deitzeko ebazpenean xedatutakoa ere. Instrukzio-organismoek edukiak egiaztatzea dagokion laguntza ordaintzeko justifikazioa izango da.

8.– Laguntzen xede diren jarduketak zabaltzeko edozein komunikabidetan egingo den erreferentziak Programaren Irudi Gidaliburuko baldintzak beteko ditu. Gidaliburua eskuragarri egongo

da Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren webgunean (<http://www.mitma.es>). Halaber, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan publizitate-neurrietan ezarritakoa ere beteko du.

Horrez gain, eta hala badagokio, 19/2013 Legean, abenduaren 9koan, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoan aurreikusitakoa ere beteko du, Agindu honen xede diren laguntzen publizitateari dagokionez.

47. artikulua.– Laguntzen bateragarritasuna.

1.– Programa honen dirulaguntzak eta xede bera duten beste laguntza publikoak bateragarriak dira, jarduketan guztizko kostua gainditzen ez bada eta beste laguntzen araudiak (eremu nazional edo europarrekoak izanik ere) hala baimentzen badu. Hala, aplikagarria izango da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamendua, 2021eko otsailaren 12koa. Horren arabera, Mekanismoaren baitan emandako laguntza Europar Batasunaren beste programa eta tresnen arabera gehituko da proportzionalki, eta zehazten du eraberritzeek eta inbertsio-programek jaso ahalko dutela Europar Batasunaren beste programa eta tresnen laguntza, baldin eta laguntza horrek ez badu kostu bera diruz laguntzen. Hala, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren programen arteko eta Europar Batasunaren beste tresnen arteko finantziazio bikoitza saihestuko da.

2.– Zehazki, programa honetan emandako dirulaguntzak eta Auzo mailako birgaitze-jarduketarako laguntza-programan eta Etxebizitzetan energia-efizientzia hobetzeko jarduketarako laguntza-programan araututako laguntzak bateragarriak izango dira.

3.– Proiektuak programa honen dirulaguntza jaso duenean, jasotako zenbatekoari eraikinetan birgaitze-lanak egiteko programaren dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa deskontatuko zaio, 24. artikuluaaren bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera.

4.– Aldiz, programaren laguntzak ez dira bateragarriak izango 2021eko uztailaren 21eko Aginduan, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarenean, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoan ezarritakoekin. Hori dela eta, dokumentu hauek idazteko kostuak ez dira dagokion jarduketaren aurrekontu babesgarrian txertatuko.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Erakunde laguntzaileen informaziorako irispidea.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzen erakunde laguntzaileek, Eusko Jaurlaritzan etxebizitzaren arloko eskumena duen sailak esku hartzen duen prozeduretan instrukzio-organo eta kudeatzaile gisa jardungo dutenez, dagokion ebazpen-proposamena egiteko, ofizioz egiaztatu, kontsultatu eta ziurtatu ahal izango dituzte prozedura horietan interesdun edo ordezkari gisa esku hartzen duten pertsonen nortasun-datuak.

Nortasun-datu horien ofiziozko egiaztapenak, kontsultak eta ziurtapenak administrazioen artean datu elektronikoak trukatzeko ezarritako sistemen bidez egingo dira; berariaz, baina ez modu eskusiboan, nortasun-datuak kontsultatzeko eta egiaztatzekeo zerbitzuen bidez, nortasun-datuak kontsultatzeko eta egiaztatzekeo.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Birgaitze integral eta efizienteko obretarako agindu honetako laguntzak eta laguntza-eskaerak (3. lerroa).

1.– Birgaitze integral eta efizienteko erkidegoen obretarako laguntzen eskaerei dagokionez (2021eko uztailaren 21eko Aginduan, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailbu-

ruarenean, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketarako babesgarrietarako finantza-neurriak buruzkoan datoz araututa), eskaera horiek Agindu honetan araututako laguntzak eskatzeko direla ere ulertuko da, diruz lagundu daitezkeen energia-efizientzia hobetzeko jarduketei dagokienez.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Etxebizitzako, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza izango da laguntzen organo kudeatzailea, aurreko atalean ezarritako kasuan, eta Agindu honetan araututakoaren arabera ebatziko ditu laguntza-eskaerak.

Hala ere, Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzak Etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketarako finantza-neurriak buruzko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduak ezarritako izapidetze-arauen, ebatzeko organo eskudunaren, errekurso-araubidearen eta ordainketen arabera jokatu du.

3.– Birgaitze integral eta efizienteko erkidegoen obretarako gainerako jarduketei dagozkien laguntzak Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzak izapidetu eta ebatziko ditu, Etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketarako finantza-neurriak buruzko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduaren arabera.

4.– Aurreko atalen ondorioetarako, Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzak birgaitze integral eta efizienteko erkidegoen obrak eskatzen dituztenen eskura jarriko ditu eredu bateratuak, agindu honetan ezarritako baldintzak betetzeko.

Eskaerarekin batera, Agindu honetan adierazitako dokumentazioa eskatuko da, proiektuari, lizentziari eta kontratuei dagozkienak salbu. Horiek 2021eko uztailaren 21eko Aginduaren 50. artikuluan araututako moduan eta epeetan aurkeztuko dira.

Edonola ere, beharrezkoa da esku hartzeko proposamena aurkeztea 2021eko uztailaren 21eko Aginduaren III.A Eranskinak adierazi moduan, eta honako hauek barne hartuko ditu: eraikuntza- eta eraipen-hondakinak kudeatzeko azterlanaren aurrerapena, ISO 20887 estandarra edo proiektuaren idazketan eta obren exekuzioan eraikinen desmuntatzea edo moldatzeko ahalmena ebaluatzeko beste arauak kontuan hartu direla justifikatzen duen agiria, Agindu honen 41. artikuluen 3 eta 4 puntuetan adierazitakoaren arabera.

Agindu honetan aipatutako eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak izapidetzeko modua eskuragarri egongo da birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obretarako laguntzen egoitza elektronikoa.

5.– 2021eko uztailaren 21eko Aginduan araututako birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obrei dagozkien maileguen baimenak, laguntzak jasotzeko aldeko ebazpenak dutenak, aipatu Agindu horrek araututakoaren arabera eskatu, izapidetu eta ebatziko dira, eta hori kalkulatzeko kontuan hartuko dira Agindu honen arabera emandako laguntzak.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzeko urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuko 3, 4 eta 5 programen laguntzak emateko prozedura-izapidetze elektronikoa.

40/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 41.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, errekerimenduak automatikoki jakinarazi daitezke Agindu honetan araututako prozeduretan, eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzeko 3, 4 eta 5

laguntza-programen laguntzak emateko, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren 2. osagaia-
ren esparruan.

Xede horretarako, Etxebizitza alorrean sail eskudunaren Etxebizitzako Plangintzaren eta Pro-
zesu Ordezkarien Zuzendaritzaren titularraren ebazpen bidez, aurretik ezarriko da zeintzuk izango
diren prozedurak eta zehaztapenak, programazioa, mantentzea, ikuskapena eta kalitate-kontrola
definitzeko organo eskudunak, baita, hala badagokio, informazio-sistemaren auditoria eta haren
iturri-kodea ere. Halaber, eta ondorio horietarako, aurkaratzeaz arduratuko den organoa zein den
adieraziko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA.– Eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia hobetzeko aurretik
aurkeztutako laguntza-eskaerak.

Etxebizitzen edo bizitegi-eraikinen energia-efizientzia hobetzeko jarduketak 2020ko otsailaren
1aren ondoren hasi diren kasuetan, eta Agindu hau indarrean sartu aurretik, Etxebizitza eta Gizarte
Gaietako sailburuaren etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko 2006ko abenduaren 29ko
Aginduak edo Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren etxebizitzaren eta
eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrie-
tarako finantza-neurriei buruzko 2021eko uztailaren 21eko Aginduak xedatutakoaren arabera
laguntzak eskatu badira, Agindu honetan araututako laguntza-araubidean ere sartuko dira, eskaera
modu independentean aurkeztuta. Kasu horietan, honako hau da jarraitu beharrekoa:

a) Eskaeran jakinaraziko da beste laguntzak eskatu direla, eta justifikatu egingo da eskatutako
laguntzek ez dutela, batuta, diruz lagundu daitezkeen jarduketaren kostua gainditzen.

b) Jarduketak amaituta baldin badaude, eskaeran bertan aurkeztu daiteke jarduketaren justifika-
zio-dokumentazioa.

c) Jarduketaren energia-efizientziaren aurreztega egiaztatuzko, jarduketak hasterakoan indarrean
zegoen ziurtapen-programaren arabera egingo da, edo eskaerarako erabilitakoaren arabera edo,
hala badagokio, Eusko Jaurlaritzaren laguntzen justifikazioaren arabera; edonola ere, dokumen-
tazioa aurkeztuko da, teknikari eskudunak sinatuta, eta bertan ziurtatuko da laguntza jasotzeko
ezarritako baldintzak betetzen direla eta dagokion organoan erregistratu dela. Ildo horretatik, hala
badagokio, aplikagarria izango da eraikinen energia-efizientziaren ziurtapenerako prozedurari
buruzko 390/2021 Errege Dekretuaren 9. artikulua atalean xedatutakoa.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Agin-
duko aldaketak.

Bat.– Agindu hau indarrean sartzen denetik aurrera, Etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen,
irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei
buruzko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko
Aginduko 11.2 artikulua honela geratuko da idatzita:

«2.– Birgaitze-jarduketaren titular eta 26. eta 27. artikuluetan aipatzen diren finantza-neurrien
onuradun izango dira pertsona fisiko edo juridikoak, pribatuak edo publikoak, ondasun-erkidegoak
edo beste edozein unitate ekonomiko edo ondare bereziak. Horiek, nortasun juridikorik izan ez
arren, jabe, errentari, gozamedun, eskubide errealen titular edo birgaituko diren eraikinaren ele-
mentu pribatiboen (etxebizitzak edo lokalak izan) erabilera eta aprobetxamendurako legitimatzen
dituen beste edozein eskubide duten titullarrak izan behar dira, baldin eta, horretara behartuta

egonda, dagokien kuotarekin parte hartzen badute erkidegoaren, eraikuntzaren, eraikinaren edo kide diren higiezin-multzoaren obren ordainketan.

Aipatutako banakako finantza-neurriak eskuratu ahal izateko, 9. eta 10. artikuluetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte».

Bi.– Agindu hau indarrean sartzetik aurrera, Etxebizitzen eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurri buruzko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduko 14.1 artikulua honela geratuko da idatzita:

«1.– Jarduketa babesgarri horien xede izan ahal izango dira familia bakarreko etxebizitzak eta jabetza horizontaleko edo higiezin-konplexuko araubideko eraikinetako elementu pribatiboak, bizitegi-erabilera izango duten etxebizitzak zein lokalak, hogeit (20) urtetik gorako antzintasuna dutenak. Salbuespenak eta antzintasuna kalkulatzeko moduak hurrengo artikulua hiru hiru atalean xedatuko dira».

Hiru.– Agindu hau indarrean sartzetik aurrera, Etxebizitzen eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurri buruzko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduko 14.3 artikulua honela geratuko da idatzita:

«3.– Edonola ere, ez da beharrezkoa izango eraikin osoan alde aurretik Eraikinen Ikuskapen Teknikoa egin izana, familia bakarreko etxebizitzen eta baserrien kasuan izan ezik, horiei Eraikinen Ikuskapen Teknikoa legez eskatzea baitagokie. Hori, eskaera egin baino izan beharko dute eginda, eta dagokion udalean erregistratuta egongo da eta eraikinaren antzintasuna edozein delarik ere egingo da.

Era berean, emandako dirulaguntza likidatu aurretik, beharrezkoa izango da egiaztatzea EITan identifikatutako patologia guztiak zuzendu dituela, 1. (berehalakoa), 2. (oso premiazkoa) eta/edo 3. (premiazkoa) esku-hartze mailarekin, eta dagokion Erabilera eta Mantentze Plana duela».

Lau.– Agindu hau indarrean sartzetik aurrera, 2021eko uztailaren 21eko Agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzen eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurri buruzkoaren 18. artikulua b) letraren azken paragrafoa honela geratuko da idatzita:

«Esku-hartzeek behar adinako irismena izan beharko dute jasangarritasun energetikoaren arloan erregelamendu bidez eskatzen diren gutxieneko kalifikazio-irizpideak bete ahal izateko, eta, nolana ere, CO₂ isuriak gutxienez % 30 murriztea lortu beharko dute lehendik dagoen etxebizitzaren, lokalaren edo familia bakarreko eraikinaren adierazle globalarekiko. Jasangarritasun energetikoaren arloan eska daitekeen kalifikaziorik ezean, gutxienez E letra duen adierazle orokor bat lortu beharko du, energia-efizientziaren ziurtagiriaren adierazle globalaren arabera; hori etxebizitzen energia-efizientzia ziurtatzeko oinarriko prozeduraren arloan indarrean dagoen araudian aurreikusita dago. Esku-hartzeek ez badute lortzen obra mota hori aintzat hartzeko ezarritako gutxieneko energia-efizientziaren maila, 1. motako obratzat hartu daitezke, mota horretako baldintzak betetzen badira betiere».

Bost.– Agindu hau indarrean sartzetik aurrera, Etxebizitzen eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurri buruzko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduko 20.1 artikuluan jasota datorren 1 Taula honela geratuko da idatzita:

Diru-sarrera haztatuak	Kide kopurua	1. motako obrak	2. motako obrak	3. motako obrak	4. motako obrak
9.000 euro arte	3 edo gutxiago	I: % 75 A: % 65	I: % 75 A: % 70	I: % 80 A: % 70	I: % 60 A: % 50
	3 baino gehiago	I: % 80 A: % 70	I: % 80 A: % 75	I: % 85 A: % 75	I: % 65 A: % 55
9.001 eurotik 15.000 eurora	3 edo gutxiago	I: % 70 A: % 60	I: % 75 A: % 65	I: % 75 A: % 65	I: % 55 A: % 45
	3 baino gehiago	I: % 75 A: % 65	I: % 80 A: % 70	I: % 80 A: % 70	I: % 60 A: % 50
15.001 eurotik 25.000 eurora	3 edo gutxiago	I: % 60 A: % 50	I: % 65 A: % 55	I: % 65 A: % 55	I: % 55 A: % 45
	3 baino gehiago	I: % 65 A: % 55	I: % 70 A: % 60	I: % 70 A: % 60	I: % 60 A: % 50
Gehienez		I: 7.500 euro A: 5.500 euro	I: 9.500 euro A: 7.500 euro	I: 10.000 euro A: 8.000 euro	I: 5.000 euro A: 3.000 euro

Sei.– Agindu hau indarrean sartzen denetik aurrera, Etxebizitzen eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduko 23. artikuluan b) letraren azken paragrafoa honela geratuko da idatzita:

«b) 2. mota. Energia-efizientzia hobetzeko obrak:

Eraikinaren eta bertan dauden etxebizitzen energia-efizientziaren mailak hobetzeko obrak, energia aurrezteari eta energia-efizientziari buruzko araudi aplikagarria egokitzeko. Esku-hartzeek ez badute lortzen 25. artikuluan obra mota hori aintzat hartzeko ezarritako gutxieneko energia-efizientziaren maila, 1. motako obratzat hartu daitezke, mota horretako baldintzak betetzen badira betiere».

Zazpi.– Agindu hau indarrean sartzen denetik aurrera, Etxebizitzen eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduko 23. artikuluan b) letraren bigarren gidoia honela geratuko da idatzita:

«– Isolamendu termikoa. Isolamendua kanpoaldetik jartzen denean, suterik izanez gero fatxadan zehar hedapen bertikala mugatzeko prebentzio-sistemak jarriko dira edo, hala badagokio, haren biderazintasun tekniko edo ekonomikoak justifikatu».

Zortzi.– Agindu hau indarrean sartzen denetik aurrera, Etxebizitzen eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduko 25. artikuluan b) letra honela geratuko da idatzita:

«b) 2. mota. Energia-efizientzia hobetzeko obrak:

– Energia-efizientziaren Ziurtagiriaren adierazle globalaren arabera (eraikinen energia-efizientzia ziurtatzeko oinarriko prozeduraren arloan indarrean dagoen araudian aurreikusita dago), eraikineko egungo adierazle globalarekin alderatuta, CO₂ isuriak % 30etik gora murriztea lortzen duten edo lor dezaketen jarduketek, jasangarritasun energetikoaren arloko erregelamenduzko araudiak gutxienez ezartzen duen E letrako edo goragoko adierazle orokor bat gutxienez lortuz, aurrekontu babesgarriaren % 40ko laguntza lortu ahal izango dute. Gehienezko zenbatekoa

gutxienekoaren arabera kalkulatu da; 5.000 euro etxebizitza bakoitzeko eta 50.000 euro atari bakoitzeko.

– Energia-efizientziaren Ziurtagiriaren adierazle globalaren arabera (eraikinen energia-efizientzia ziurtatzeko oinarritzko prozeduraren arloan indarrean dagoen araudian aurreikusita dago), eraikineko egungo adierazle globalarekin alderatuta, CO₂ isuriak % 50etik gora murriztea lortzen duten edo lor dezaketen jarduketek, jasangarritasun energetikoaren arloko erregelamenduzko araudiak gutxienez ezartzen duen D letrako edo goragoko adierazle orokor bat gutxienez lortuz, aurrekontu babesgarriaren % 50eko laguntza lortu ahal izango dute. Gehienezko zenbatekoa gutxienekoaren arabera kalkulatu da; 6.500 euro etxebizitza bakoitzeko eta 65.000 euro atari bakoitzeko».

Bederatzi.– Agindu hau indarrean sartzen denetik aurrera, 2021eko uztailaren 21eko Agindua-ren, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren, etxebizitzen eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoaren 35.2 artikulua honela geratuko da idatzita:

«2.– Arau honetan aurreikusitako finantza-neurriak bateragarriak dira beste administrazio batzuek helburu bererako eman dezaketen beste edozein laguntzarekin, baldin eta laguntza horiek bateragarritasun hori finkatzen badute. Hala ere, honako hauekin erabat bateraezinak direla deklaratu da:

a) Lehendik dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketetarako laguntza-programa (PREE programa), Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) kudeatua.

b) EGEFek kofinantzatutako beste edozein laguntza edo dirulaguntza.

c) Beste laguntza publiko batzuk, Europako programen esparruan etxebizitzaren arloan hauta daitezkeen jarduketengatik, beste egitura-funts edo eraldatzeko aparteko funts batzuen bidez kofinantzatutakoak, baldin eta aldi berean Eusko Jaurlaritza partaide bada, etxebizitzaren arloan eskumena duen sailaren bitartez.

2 bis.– Next Generationek edo Europako Egitura eta Inbertsio Funtsek (EIE) ezarritako laguntzen kasuan, higiezinaren parkea energia-efizientziarako berritzeko programa baten arabera, Agindu honetan ezarritako finantza-neurriak ez dira bateragarriak izango baldin eta energia-efizientziako jarduketa berak EIE funts baten edo batzuen laguntza edo Europar Batasuneko programa batena edo batzuen eta beste tresna batzuen jaso badezake aldi berean. Helburua da Europako Inbertsio Funtsetako bat itzultzeko ordainketa-eskaeran sartutako gastuak Europar Batasuneko beste funts edo tresna batek edo funts berak diruz laguntzea galaraztea, beste programa baten arabera.

Horren ondorioz, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren programak arautzen dituen urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan ezarritako laguntzei heltzeko aukera dute eraikinen eta etxebizitzen energia-efizientziaren jarduketak horien araubidearen arabera ebatziko dira, eta Agindu honetan ezarritakoen gainetik egongo dira.»

Hamar.– Agindu hau indarrean sartzen denetik aurrera, Etxebizitzen eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduko 49.2 artikulua j) letra honela geratuko da idatzita:

«j) Erabilera eta Mantentze Planaren ziurtagiria eta EITan antzemandako akatsak zuzentzeko ziurtagiria, baldin eta jarduketa babesgarriak egingo diren eraikinen EITak aurreikusten baditu esku-hartze mailak: 1 (berehalakoa), 2 (oso premiazkoa) edota 3 (premiazkoa).

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Alokairua eta etxebizitzaren eta bizitoki-erakinen bestelako erabilerak sustatzeko jarduketari buruzko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko abenduaren 7ko Aginduko aldaketak.

Agindu hau indarrean sartzen denetik aurrea, Alokairua eta etxebizitzaren eta bizitoki-erakinen bestelako erabilerak sustatzeko jarduketari buruzko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko abenduaren 7ko Aginduko 35. artikulua lehengo paragrafoa honela geratuko da idatzita:

«1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio publiko batzuek helburu bererako ematen dituzten bestelako laguntzekin, baita Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren programak arautzen dituen urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan energetikoki efizienteak diren eraikinetan alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitze laguntza-programan».

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Aplikazio-arau osagarria.

Agindu honetan espresuki aurreikusi gabeko guztiari aplikagarriak izango zaizkio honako hauetan aurreikusitakoa: 853/2021 Errege Dekretua, urriaren 5ekoa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren programak arautzen dituen; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorra Antolatzeko Printzipioen Legearen testu bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartutakoa; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Lege Orokorra; eta 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Legearen, azaroaren 17koaren, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA.– Indarrean jartzea.

Agindu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 21a.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

I. ERANSKINA

ERAIKINEAN BIRGAITZE-LANAK EGITEKO LAGUNTZA-PROGRAMARI DAGOZKION LAGUNTZAK
ESKATZEKO EREdua

URRIAREN 5EKO 853/2021 ERREGE DEKRETUKO 3 PROGRAMA

1) ESKAERA BIRGAITZE BULEGO BATEAN AURKEZTEN BADA, ADIERAZI BULEGOAREN IZENA.

2) OBRA MOTA ENERGIA-EFIZIENTZIA HOBETZEA IZANGO DA.

3) ESKATZAILEAREN ETA DIRULAGUNTZAREN HARTZAILEAREN DATU PERTSONALAK:

a) Identifikazio-dokumentua:

NAN

AIZ

IFK

PASAPORTEA

BESTE BAT

b) Identifikazio-zenbakia.

c) Sexua G E.

d) Izen-abizenak / Sozietate-izena

e) Titularra:

Jabea

Gozamenduna

Errentaria

Administrazio edo enpresa publikoak

Jabeen erkidegoak edo jabeen erkidego elkarteak.

Elkartutako eraikinen jabeak

Kooperatiba-sozietateak

Eraikinen enpresa errentari edo emakidadunak

f) Emandako laguntzak jaso nahi diren kontu-zenbakia (IBAN)

g) Elkarreragingarritasunagatik datuak kontsultatzeari espresuki aurka egitea BAI EZ

**Aurka egiten bada, datu ekonomikoak aurkeztu beharko dira.*

4) LAGUNTZAREN HARTZAILEAREN IZENEAN JARDUTEN DUEN BIRGAITZEAREN

ORDEZKARIAREN DATU PERTSONALAK

Eskatzailea ez bada dirulaguntzaren amaierako hartzailea, beharrezkoa da identifikatzea:

a) Identifikazio-dokumentua:

- NAN
- AIZ
- Pasaporte
- IFK
- Beste bat

b) Identifikazio-zenbakia.

c) Izen-abizenak / Sozietate-izena

d) Titularra:

- Ordezkaria
- Birgaitzearen ordezkaria edo kudeatzailea

5) ADMINISTRAZIOAK JAKINARAZPENAK BIDALTZEKO DATUAK

Administrazioak izapidean zehar bidaltzen dituen jakinarazpenak ahalordetzeen erregistro elektronikoan alta eman duen ordezkariari bidaliko zaizkio. Ordezkaririk ez badago, lehenengo interesdunari bidaliko zaizkio.

a) Jakinarazpen-bidea:

«Nire karpeta» ataleko jakinarazpenetara bidaliko dira. Sartzeko, beharrezkoa da identifikazio elektronikoa izatea.

b) Jakinarazpenaren hizkuntza Gaztelania Euskara. Posta elektronikoa eta mezu bidez bidalitako jakinarazpenak hizkuntza horretan bidaliko dira.

c) Jakinarazpenak jasotzeko datuak. Mezu elektronikoa bat eta telefono mugikorreko mezu bat bidaliko dira Nire karpeta atalean jakinarazpenik baldin badago.

(1) Posta elektronikoa:

(2) Posta elektronikoa berretsi:

(3) Telefono mugikorra:

6) ESKATZEN DITUEN LAGUNTZAK

a) Dirulaguntza BAI EZ.

b) Zerga-arinketa aitortzea.

c) Emandako dirulaguntzaren % aurreratzea.

Dirulaguntzaren % 30 arte aurreratu ahal izango da, energia-efizientzia hobetzeko jarduketetan.

7) BIRGAITU BEHARREKO ERAIKINAREN DATUAK

a) Eraikin-mota:

- Familia bakarreko etxebizitza isolatua
- Lerroan multzokatutako familia bakarreko etxebizitzak
- Bi familiako etxebizitzak
- Etxebizitza kolektiboko bizitegi-eraikina

b) Probintzia:

Araba/Álava Bizkaia Gipuzkoa

c) Udalerria:

d) Kalea:

e) Ataria edo atariak:

f) Posta-kodea:
Kontuan hartutako eraikuntza-teknikak zirkulartasuna errazten dute: proposatutako jarduketan ondoriozko eraikuntza- eta eraispén-hondakinen % 70, gutxienez, berrerabili, birziklatu eta berreskuratuzko prestatzeko beharrezko ekintzak egin dira.

Adierazpen honetan ezarritako baldintzaren bat ez bada betetzen, jasotako diru kopurua itzuliko da, horri dagokion berandutze-interesak barne.

Horrela jasota gera dadin, adierazpena sinatu dut (e)n, sinadura digitalak adierazitako egunean.

Teknikari eskudunaren sinadura.

VI. ERANSKINA

INTERES GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA

Kontratuaren edo deialdiaren izena:

.....

Espedientearen erreferentzia.....

(Deklaratzailearen nortasuna)....., zerbitzu ematen diot (entitateari),
eta gisa,

ADIERAZTEN DUT

Lehenengoa: Honako honen berri badudala:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 Erregelamenduaren (EB, Euratom) (EBren finantza erregelamendua) 61.3 artikulua ("interes gatazka") honako hau dio: "interes gatazka sortuko da arriskuan jartzen direnean eginkizunen inpartzialtasuna eta objektibotasuna, hainbat jatorritako arrazoiengatik: familia arrazoiak, afektiboak, kidesun politikoa edo nazionala, interes ekonomikoa edo interes pertsonalei lotutako edozein zuzeneko edo zeharkako arrazoi."

2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua ("ustelkeriaren aurkako borroka eta interes gatazken prebentzioa") helburuak dira lehia ez desituratzea, prozeduraren gardentasuna bermatzea eta hautagai eta lizitzaile guztien tratu berdintasuna bermatzea.

3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua ("abstenitzea") ezartzen duenez: "prozeduran esku hartetik abstenituko dira administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean:

a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administrazioaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Ezkontza lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administrazioaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkarietza edo mandataritzarako.

c) Aurreko letran aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.

e) Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan."

Bigarrena. Ez dago/daude EBren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikulua araberako interes gatazkatzat jo daitekeen ezein egoeratan, ezta lizitazio/emakida prozedurari eragin diezaiokkeen Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluko ezein abstentzio kausatan ere.

Hirugarrena. Konpromisoa hartzen du/dute berehala jakinarazteko kontratazio organoari/ebaluazio batzordeari edozein interes gatazka edo abstentzio kausa, egoera hori sortzen duena edo sor dezakeena.

Laugarrena. Prozedura hauetako esparruan garatzen diren gaiak eta dokumentazioa konfidentziasunez tratatuko ditut, eta ez dut desegoki erabiliko bertan parte hartzeagatik lortuko dudan informazioa.

Bosgarrena. Badakit interes gatazkarik ezaren adierazpenak, faltsua dela frogatzen bada, ondorioak izango dituela, aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen diziplina/administrazio/lege ondorioak.

(Data eta sinadura, izen-abizenak eta NAN)

VII. ERANSKINA

ERAIKUNTZA-PROIEKTUETAN ZIRKULARTASUNA INPLEMENTATZEKO ETA 853/2021 ERREGE DEKRETUAREN PROGRAMETAN ZIRKULARTASUNAREN BALDINTZAK EBALUATZEKO LAGUNTZA-DOKUMENTUA (ERREFERENTZIA: ISO 20887:2020)

ISO 20887 nazioarteko estandarraren helburua da eraikuntzaren alorrean ekonomia zirkularraren irizpideak txertatzeko printzipio orokorrak eskaintzea. Horren xedea da eraikuntzaren hondakinak deuseztatzea eta eraikinen, orokorrean, edo bereizitako atalen bizitza erabilgarria luzatzea.

Proiektu zirkularraren helburu nagusietako bat da (ingelesez, «Design for disassembly and adaptability») (DfD/A), aktibo moldaerrazak sortzea, etorkizuneko egoeran edo desmuntatzerakoan zatiak berrerabili, birziklatu edo balioz handitu daitezzen.

Azpmarratu behar da ez dela bete beharreko dokumentua, ez baitu halako eraginik araubidean. Hala ere, 853/2021 EDk eskatutako berariazko baldintza da, hau da, diruz lagundu daitezkeen jarduketan eraikinen diseinuak eta eraikuntza-teknikek kontuan hartzea zirkulartasun-printzipioak. Hortaz, azken hartzaileek ezagutu egingo dituzte eta kontuan hartuko dituzte proposatutako proiektuetan. Gainera, proiektuaren fase ezberdinetan zehar, azken hartzaileek proiektuaren informazioa kudeatzen laguntzeko dokumentazioa txerta dezakete, hala zirkulartasuna hobetzeko.

ISO 20887 ESTANDARREAN DESKRIBATUTAKO ZIRKULARTASUN-PRINTZIOEN DESKRIBAPENA

853/2021 EDaren programen eraikietan birgaitze energetikorako jarduketak egiteko, proiektuek kontuan hartu behar dituzte desmuntatzeko ahalmenari buruz ISO 20887k deskribatutako printzipioak eta, ahal den heinean, jarduketaren berariazko ezaugarriak ere hartuko dira kontuan.

ERAIKITAKO AKTIBOAK DESMUNTATZEKO AHALMENARI BURUZKO PRINTZIOIAK

Osagai eta instalazioetara irisgarritasuna. Instalazioen eta eraikuntza-sistemen zati ezberdinak irisgarriak izatea esan nahi du, hala horiek ordezkatu eta mantentzea errazteko. Ildo horretatik, loturek hobeto funtzionatzen dute, agerikoak direnean. Desmunta daitezkeen loturak baldin badaude, horiek eraikitzeke xehetasunak malgutasun nahikoarekin diseinatuko dira, zati bakoitza manipulatzeko aukera egon dadin.

Independentzia. Zati, osagai, modulu eta sistema ezberdinak kendu eta berritzeko aukera ematen dute, eraikin osoan eragin gabe. Eraikin bate sistema nagusiak (egitura, ingurutzalea, instalazioak eta akaberak) independenteak direla eta lehorreko lotura-erabilera bermatzeak desmuntatzeko ahalmena areagotzen du.

Akaberak: hautatutako akaberak substratuak berrerabiltzea edo birziklatzea baldintzatuko dute. Errazagoa izango da amaierako akaberarik behar ez duten elementuak berrerabili eta birziklatzea.

Ekonomia zirkularra laguntzea: eraikinaren zatiak berrerabili, birziklatu, berriz egokitu eta ordezkatzeko laguntzen duten materialak eta soluzioak hautatzea esan nahi du.

Sinpletasuna: sistema batek eskatzen zaion errendimenduaren baldintzak ahalik eta elementu edo osagai gutxienarekin eta pertsonalizazio txikienarekin betetzeko duen ezaugarria da. Hala, matxurak murriztu eta eraikina konpontzea eta mantentzea errazten da.

Estandarizazioa: pieza normalizatuak hartzen badira kontuan, desmuntatzeko ahalmena hobetu egingo da. Tamaina estandarreko materialak hautatzen badira, errazagoa izango horiek ordezkatzeko, hori beharrezkoa balitz.

Desmuntatzeko erraztasuna: zirkulartasuna errazteko, desmuntatzeko erraza ez ezik, segurua

ere izan behar da.

MOLDAGARRITASUN-PRINTZIPIOA

Moldaeraztasuna: eraikinak obra handiak behar izan gabe hainbat funtziotara moldatzeko duen ahalmena da.

Bihurgarritasuna: erabiltzailearen beharrezko aldaketa nabarmenetara aldaketan bidez egokitzeko ahalmena da.

Hedatzeko ahalmena: erabiltzaileen beharrezko aldaketan direnean eraikinak egokitzeko ahalmena da eta, horretarako, espazio, ezaugarri, aukera eta ahalmen berriak eskuratzen dira. Eraikinen kasuan, hedatzeko ahalmenak esan nahi du hedatze bertikala edo horizontala izateko diseinatu dela.

ZIRKULARTASUNA HOBETZEKO EKINTZAK ETA JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTAZIO PROPOSAMENA

ISO 20887 estandarrak proiektuaren fasearen arabera ekintza-sorta bat gomendatzen du, eraikitako aktiboen moldatzeko eta desmuntatzeko ahalmena hobetzeko. Gomendio horiek jarraitzea eta proiektuaren bizitza erabilgarrian zehar dokumentazioa behar bezala kudeatzea onuragarria da proiektuen zirkulartasunerako.

Dokumentazio-proposamen bat jaso da jarraian (ez da derrigorrezkoa). Diruz lagundutako proiektuek dokumentazio hori jaso dezakete, eraikuntza-proiektuetan zirkulartasuna ezartzen aurrera egiteko.

Zirkulartasuna hobetzeko ekintza posibleak eta justifikatzeko dokumentazio proposamena		
Fasea	ISO 20887:2020 Aurreikusitako ekintzak	Fase bakoitzean barne hartutako ekintzak justifikatzeko dokumentazio-proposamena
Proiektua	Desmuntatzeari dagozkion adierazleak betetzea.	<ul style="list-style-type: none"> ● DfD/A diseinuaren adierazleekin desmuntatzeko ahalmenaren printzipioen ebaluazioa (ISO 20887:2020-ren C Eranskina) ● Exekuzio-proiektua, xehetasun tekniko eta zehaztepenekin.
	Desmuntatzeko estrategiak diseinatzea.	<ul style="list-style-type: none"> ● Desmuntatzeko gidaliburua. Erabilera-jarraibideak (Eraikinaren Liburua).
	Erabilitako material eta elementuen trazabilitatea ziurtatzea.	<ul style="list-style-type: none"> ● Materialaren fitxa edo pasaporteak, datu teknikoekin, hornitzailea, jatorriari buruzko informazioa, erabilera posibleak eta aktiboaren bizitza erabilgarriaren amaieran balioa emateko proposamenak. ● Zuzeneko identifikazio-sistemak txertatzea: barra-kodeak, RFID edo antzekoak.
	Eraikinaren behar bezalako mantentze-lanak deskribatzea.	<ul style="list-style-type: none"> ● Mantentze Plana Eraikinaren Liburuan.
	Informazioa behar bezala kudeatzen dela eta hori eraikuntza-eragileei helarazten zaiela ziurtatzea.	<ul style="list-style-type: none"> ● Eraikinaren bizitza erabilgarrian informazioa kudeatzeko prozedura. ● BIM ereduak, dagozkion informazioarekin.
Eraikuntza	Zirkulartasunaren helburuei laguntzeko aldaketa-ordenak kudeatzea.	<ul style="list-style-type: none"> ● Ordena-liburua.
	Informazioa behar bezala kudeatzea.	<ul style="list-style-type: none"> ● As-built (Eraikinaren Liburua) ● BIM eredu eguneratua (as-built ereduak)
Erabilera	Mantentze-prozedurak betetzea.	<ul style="list-style-type: none"> ● Eraikina bizitza erabilgarrian zehar konpondu, eraberritu edo birgaitzeko egindako esku-hartze guztien inguruko informazioa (Eraikinaren Liburua).
	Informazioa behar bezala kudeatzea.	<ul style="list-style-type: none"> ● BIM eredu eguneratua, dagozkion aldaketekin.

Zirkulartasuna hobetzeko ekintza posibleak eta justifikatzeko dokumentazio proposamena		
ISO 20887:2020		Fase bakoitzean barne hartutako ekintzak justifikatzeko dokumentazio-proposamena
Fasea	Aurreikusitako ekintzak	
Bizitza erabilgarriaren amaiera	Behar bezalako eraispen/desmuntatzea egiteko eragileak prestatzea.	
	Hondakinak kudeatzeko agertoki posibleak garatzea, kontuan hartuta eraikina dagoen berariazko testuinguruaren ezaugarriak.	<ul style="list-style-type: none"> ● Eraikuntzako hondakinen kudeaketa 105/2008 EDren arabera aztertzea. ● Materialen fluxuen erregistroa duten albaranak. ● Trazabilitatearen amaierako txostena edo balorizazio-ziurtagiria.
Dibulgazioa	Diseinu zirkularraren emaitzak eta eraikinaren bizitza erabilgarriaren faseetan zehar aurre egindako erronka posibleak zabaltzea.	<ul style="list-style-type: none"> ● Proiektu zirkularrari buruzko informazio kualitatibo eta kuantitatiboa emango duten argitalpenak.

VIII. ERANSKINA

HITZARMEN-EREDUA, EUSKO JAURLARITZAREN LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILAREN ETA ENTITATEEN ARTEKOA, SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO LAGUNTZA-PROGRAMEN BIRGAITZE-BULEGOEN FUNTZIOAK GARATZEKO. BULEGOAK EUROPAR BATASUNA-NEXT GENERATION-EUK FINANTZATZEN DITU ETA URRIAREN 5EKO 853/2021 ERREGE DEKRETUAK ARAUTU (3, 4 ETA 5 PROGRAMAK)

BILDU DIRA

ALDE BATETIK, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bidez, Ignacio María Arriola López sailburu jaunak ordezkaturik. Lehendakariaren 18/2020 Dekretuaren bidez izendatu zen, eta honetarako baimena eman zaio 2022koren(e)ko bilkuran, Gobernu Kontseiluak hala erabakita.

BESTE ALDETIK, (...) entitatea, ordezkari duena, karguan, eta honetarako baimena eman zaio Sozietatearen Administrazio Kontseiluak(e)ko bilkuran hala erabakita.

Alde biek, hitzarmen hau izenpetzeko nahikoa ahalmen legala badutela aitortu diote elkarri, eta horretarako ondoko hau

ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa.– COVID-19k eragindako pandemiak krisi ekonomiko, sozial eta sanitarioa ekarri du. Erronka handia denez, erantzun bateratua eman behar izan zaio Europan. Epe ertainera erantzuteko, asmo handiko Berreskuratze Funts bat jarri da abian COVID-19 osteko munduko ekonomiak berreraikitze prozesuan laguntzeko, 2021etik aurrera.

Bigarrena.– 2020ko abenduaren 31n argitaratu da 36/2020 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoaren modernizaziorako eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana exekutatzeko premiazko neurriak onartzen dituena.

Hirugarrena.– Bestalde, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua betetzeko, Ministro Kontseiluak, 2021eko apirilaren 27ko bilkuran, Espainiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana onartu du, eta bertan datoz jasota 2021-2024 aldian abiaraziko diren proiektuak, ekonomiaren suspertze eta transformazio azkarrean eragina maximizatzeko. Plan hori positiboki ebaluatu du Europako Batzordeak 2021eko ekainaren 16an eta Europako Kontseiluak onartu du 2021eko uztailaren 13an.

Plan horren lehenengo ardatza da ekoizpen-eredua birbideratzeko inbertsio publiko eta pribatua indartzea eta, horretarako, trantsizio berdea, deskarbonizazioa, energia-efizientzia, energia berriztagarriak hedatzea, ekonomiaren elektrifikazioa, energia biltegitratzea, ekonomia zirkularra, naturan oinarritutako soluzioak eta sektore ekonomiko guztien erresilientzia hobetzea da helburua; zehazki, 2. osagaien barne hartu ditu eraikinak birgaitu eta hobetzeko jarduketak sustatzea, hiri- zein landa-eremuetan, Espainiako Hiri Agendaren esparru estrategikoari begira, eta energiaren eta jasangarritasunaren eremuan ahalik eta asmo handiena ziurtatuta.

Laugarrena.– 2. osagaiak eraberritze- eta inbertsio-multzo bat ezartzen du, bizitegi-erabilerako eraikinen birgaitze-arloan berariaz aurrera egiteko aukera emango dutenak. Jarduera hori sustatzeko, erregulazio-eremuko neurriak eta ingurune egokia sortzeko finantzazioa erabiliko dira. Laguntza-sistema horren artikulazioa urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan garatzen da. Dekretu horren bidez, Bizitegi Birgaitzearen eta Etxebizitza Sozialaren arloko laguntza-programak arautzen dira, autonomia-erkidegoen bitartez honako laguntza-programa hauek antolatu eta arautzen dituena:

1. Auzo mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programa.
2. Birgaitze-bulegoei laguntzeko programa.
3. Eraikinean birgaitze-lanak egiteko laguntza-programa.
4. Etxebizitzetan energia-efizientzia hobetzeko jarduketetarako laguntza-programa.
5. Birgaitzeko eta birgaitze-proiektuak idazteko dagoen eraikinaren liburua egiten laguntzeko programa.
6. Energetikoki efizienteak diren eraikinetan alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitzen laguntzeko programa.

Bosgarrena.– Planaren ondorioz, aparteko baliabide publiko kopurua bideratuko da, eta beharrezkoa da ezarritako epeetan jarritako helburuak lortzea. Hala, jarduketak garatzeko, ezinbestekoa da eragile ekonomiko eta sozialen parte-hartzea; aurrez ezarritako laguntzen azken hartzaile izan daitezkeen herritarrei informazio zehatza ematek hasi eta dagozkion jarduketak egiteko ehun ekonomiko produktiboa egokitzea arte.

Horren jakitun izanik, Eusko Jaurlaritzak baliabide ekonomikoak jarri ditu aipatu 2. programa horretarako, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan Birgaitze Bulego horiei esleitzen zaizkien funtzioen kostua finantzatzea helburu. Azken xedea da «leihatila bakar» izatea, bertan bideratu ditzaten, espresuki eta berariaz, programa ezberdinen onuradun izan daitezkeenek aurkez ditzaketen laguntza-eskaerak. Baliabide ekonomiko horiek guztiak dirulaguntzak dira, eta horiek zuzenean egitura daitezke, Dirulaguntza Orokorren azaroaren 17ko 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera. Horri egiten dio erreferentzia programak garatzeko urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 25. artikulua.

Seigarrena.– Edonola ere, aurreikusitako jarduketak garatzeko erakunde-artikulazioak herritarrengana ahalik eta gehien hurbiltzea eskatzen du, herritarra izango baita eraikin eta etxebizitzak birgaitzeko programen azken hartzailea. Hortaz, programen inguruko informazio argia eman behar da, beren beharrezan ahalik eta gehien hurbiltzeko. Gainera, Espainiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziak ezarritako helburua betetzeko, beharrezkoa da espediente horien izapidetze administratiboa ahalik eta arinen egitea.

Zazpigarrena.– Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren ustez, estrategia onena da bulego-sare bat hedatzea lurraldeko ahalik eta azalera handienean, eta gaur egun arlo horretan dagoen sareaz baliatzea, birgaitzerako hirigintza-sozietateen figuren bidez; sare hori badago eta aktiboa da, eta baliteke beste eragile publikoen parte hartzea ere behar izatea.

Halaber, kontuan hartu behar da, laguntzen azken hartzaileen ikuspegitik, haien titulartasuneko etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko inbertsioak ez direla jarduketa motaren arabera aurkezten; aldiz, inbertitzeko erabaki konplexua da, eta eraikin osoen beharrezan barne hartzen dituzte. Hala, kontserbatzeko betebeharra, energia-efizientzia edota irisgarritasun-baldintzak hobetzea izan daitezke.

Hori dela eta, ez du zentzurik Birgaitze Bulegoaren funtzioak, hitzarmen honen helburuetako bat dira, urriaren 5eko Errege Dekretuak araututako 3, 4 eta 5 programak garatzera mugatzea; aldiz, herritarrei informazioa eta aholku emateko aukera beste laguntza-lerroetara ere zabaldu beharko litzateke, aipatu programekin lotura badute. Birgaitzeari dagokionean, gaur egun indarrean daudenak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren uztailaren 21eko Agindukoak dira. Edonola ere, laguntza mota bakoitzerako ezarritako oinarrien berezko eremuak errespetatuko dira.

Zortzigarrena.– Birgaitze Bulego diren entitateen lankidetzak, orobat, konpentsazio ekonomikoak artikulatzeko modua definitzea behar du. Aipatu konpentsazioak Lurralde Plangintza eta Garraioetako

Sailak urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 2. programari emango dizkio, haren 25. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bederatzigarrena.– Laburbilduz, lankidetzeta-hitzarmen honen helburua da aldebiko harremana ezartzea Eusko Jaurlaritzaren eta Birgaitze Bulegoaren lanak gain hartzen dituzten entitateen artean. Helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko alorrean programa eta laguntza-lerro ezberdinak lankidetzan garatzea.

Hamargarrena.- Bestalde, hitzarmen hau bat etorriko da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeko duen irailaren 29ko HFP 1031/2021 Aginduak araututakoarekin, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaien neurrien mugari eta helburuak bete eta aurrekontu- eta kontu-exekuzioa betetzen dela jarraitzeko Estatuko, Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Entitateek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen duen irailaren 29ko HFP 1031/2021 Aginduak araututakoarekin.

Hamaikagarrena.– Hitzarmenak bete egingo du Eusko Jaurlaritzaren Iruzuraren aurkako Neurrien Plana. 2022ko martxoaren 29ko Gobernu Kontseiluan onartu zen Plan hori.

Hamabigarrena.- Azkenik, kontuan hartuko da 2022 ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legean xedatutakoa. Zehazki, II. Tituluan, V. Kapituluaren, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako funtsak kudeatzeari buruzkoa. Halaber, kontuan hartuko da otsailaren 8ko Gobernu Kontseiluaren Akordioa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketara eta proiektuen aurrekontu- eta kontu-exekuzioarekin, kudeaketa eta jarraipenarekin lotutakoa.

Horregatik guztiagatik, aldeek Hitzarmen hau arautu eta sinatzeko interesa dute, eta honako hauek izango dira

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Xedea.

Hitzarmen honen xedea da aldebiko harremanak ezartzea Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako Sailaren eta (...) entitatearen artean, azken horrek gara ditzan Birgaitze Bulegoaren funtzioak urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan ezarritako 3, 4 eta 5 programei dagokienez (aurrerantzean, «Programak») eta etxebizitzaren eta 2021eko uztailaren 21eko eraikinaren birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketara babegarrietarako finantza-neurrien 1. eta 2. lerroei dagokienez (aurrerantzean, «Lerroak»). Zehazki,

853/2021 Errege Dekretuaren 3 Programa, Eraikinean birgaitze-lanak egiteko laguntza-programa. Laguntza horiek 2022ko ekainaren 21eko Aginduak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarenak garatzen ditu.

853/2021 Errege Dekretuaren 4 Programa, Etxebizitzetan energia-efizientzia hobetzeko jarduketarako laguntza-programa. Laguntza horiek 2022ko ekainaren 21eko Aginduak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarenak garatzen ditu.

853/2021 Errege Dekretuaren 5 Programa, Birgaitzeko eta birgaitze-proiektuak idazteko dagoen eraikinaren liburua egiten laguntzeko programa. Laguntza horiek 2022ko ekainaren 21eko Aginduak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarenak garatzen ditu.

2021eko uztailaren 21eko Aginduaren, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren, 1. Lerroa, partikularren obretarako finantza-neurriak.

2021eko uztailaren 21eko Aginduaren, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren, 2. Lerroa, erkidegoen obretarako finantza-neurriak.

Bigarrena. Birgaitze Bulegoaren konpromisoak.

1.– Entitateak Birgaitze Bulegoaren berezko funtzioak hartuko ditu gain, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan xehatuta datozenak. Zehazki, entitateari dagokio Birgaitze Bulegoko zerbitzuak eskaintzea, «leihatila bakar» modura, eta horien helburua izango da laguntzen kudeaketa koordinatzea, informatzea eta erraztea eta zerbitzuak eskaintzea, herritarren, jabeen erkidegoen, enpresen eta birgaitze-ordezkarien zerbitzura bizitegi-sektorean birgaitze-proiektuak inplementatu eta kudeatzen laguntzeko. Aipatu laguntzak Lehenengo Klausulan aipatutako Programak eta Lerroak izango dira.

2.– Zehazki, eta gutxienez, entitateak honako funtzio hauek beteko ditu, Programa eta Lerroei dagokienez:

a) Programen eta Lerroen laguntzen berri ematea:

a.1.) Herritarrei jakinaraziko die Programa eta Lerro horiek daudela, eta eskatzeko aukera dutela, izan zuzenean, izan bizitegi-eraikinen jabeen erkidegoak administratzen dituen pertsonen bidez. Horretarako, berariazko espazioa izango du entitateak, eta etengabe emango du arreta bertan, pertsona batek edo gehiagok, entitateak jendearentzako arretarako duen ordutegian.

a.2) Laguntzak eska ditzaketen pertsonen informazioa ematea, gidatzea eta aholku ematea, aurrez aurre edo ezarritako beste edozein komunikabideren bidez (telefono, posta elektronikoa, webgune bidez). Helburua da zalantzak argitzea eta laguntzen baldintzen inguruan laguntza ematea.

a.3) Programen eta Lerroen laguntzak daudela hainbat bitartekotatik hedatzea eta, hala badagokio, hedatze-kanpainak egitea. Edozein kasutan, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan eta uztailaren 21eko Aginduan ezarritako publizitate- eta komunikazio-betebeharrak errespetatuko dira.

b) Herritarrek Programa eta Lerroetako laguntzak jasotzeko eskaerak aurkezten laguntzea;

b.1) Eskaerak behar bezala beteta daudela eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu dela egiaztatzea. Horretarako, honako hau egingo dute:

- Eskatzailea identifikatzea, aurkeztutako dokumentuak egiaztatu eta balioztatzea.
- Dokumentuak zuzentzeko eskatzea, dokumentuak falta diren edo zuzenak ez diren kasuetan.

b.2) Aurkeztutako eskaerak, behar bezala bete direla egiaztatutakoan, Eusko Jaurlaritzaren TRAMITAGUNE izapidetze elektronikorako plataformara gehitzea. Kasu guztietan adieraziko da eskaera aurrez aurre aurkeztutako eguna, eta entitatean eskaera aurkeztu eta, gehienez, hiru eguneko epean gehituko da plataformara.

b.3) Laguntza-programei lotutako datu pertsonalen tratamenduz arduratzea. Tratamendu horren azken arduraduna Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza da, eta horien pribatutasun-neurrien arduraduna Sailaren Zerbitzu Zuzendaritza.

Tratamenduaren xedea, iraupena, izaera eta helburua, interesdunen datu pertsonalak eta kategoriak, eta arduradunaren betebeharrak eta eskubideak Hitzarmen honen eranskinean datoz ezarrita.

Entitateek ez dute inoiz jasoko zerga-informaziorik, ez badira Administrazio Publikotzat hartzen, eta hori 40/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2.3 artikuluan dago ezarrita.

Interesdunak informazioa ematea baimentzen duenean, ezingo dute hirugarrenei laga jasotako

zerga-informazioa edo informazio ekonomikoa.

Laguntzak jasotzeko eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, Zerga Administrazioak jasotako informazioaren arabera egiten denean, eskaeran eskatzailearen zerga-informazioa kontsultatzeko baimena duela dioen Administrazio Publikoak egingo du zuzenean eta, edonola ere, Eusko Jaurlaritzak eskuragarri duen informazioaren bidez.

c) Programen eta Lerroen bilakaeraren jarraipena egitea;

c.1) Hiru hilean behin emango zaio Etxebizitzako Sailburuordetzari Programa eta Lerro bakoitzeko bilakaeraren berri, eta honako datu hauek jakinaraziko zaizkio:

c.1.1) Helburuen bilakaera. Interesdun kopurua.

c.1.2) Helburuen bilakaera. Erregistratutako laguntza-eskaera kopurua.

c.1.3) Helburuen bilakaera. Eskatutako laguntzen xede diren «etxebizitza bakarrak».

c.1.4) Birgaitze Bulegoaren gastuen egoera.

c.1.5) Hobetzeko proposamenak.

c.1.6) Laguntza-programaren bilakaerari buruzko beste edozein informazio.

d) Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 3, 4 eta 5 Programei dagokienez, entitateek Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean jakinarazten diren printzipioetatik eratorritako betebeharrak mugatuko duten haien lana, eta honako hauek izango dira.

d.1) Mugarren eta helburuen jarraipena eta ziurtapena egitea.

d.2) Etiketatzeko berdea eta etiketatze digitala.

d.3) Jarduketek ingurumenean eragin ditzaketen arrisku esanguratsuen analisia.

d.4) Iruzurra, ustelkeria saihestea eta interesen gatazka aztertzea.

d.5) Estatuko laguntza-araubidearen bateragarritasuna egiaztatzea eta finantziketa bikoitza saihestea.

d.6) Gardentasuna eta komunikazioa eta, horretarako, laguntzen azken eskatzaileak identifikatzea.

3.- Entitateak hiru hilean behin egin beharko ditu honako jarduketak hauek, Birgaitze Bulegoaren lanak egiteagatik jasotako laguntzak justifikatzeko:

a) «Birgaitze-bulegoei laguntzeko programa» 2. programari dagozkion dirulaguntzak ordaintzeko informazioa eta justifikazio-dokumentazioa prestatu eta helaraztea, Birgaitze Bulegoen diruz laguntzeko jarduketak eta kostuei buruzko urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera. Informazio horrek barne hartuko du ezarritako helburuetarako jasotako aurrerapenen egoera, hala badagokio. Ondorio horietarako, entitateak Bulegoari lotutako gastuen eta kostuen kontabilitatea eta entitatearen gainerako kontabilitatea bereizita izango ditu.

Ezingo dira diruz lagundu urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 23. artikulua kontuan hartzen ez dituen gastuak, eta honako hauek dira:

a.1) Bulegoaren informazio-ekipoen eta -kudeaketaren diseinu, ezarpen eta kudeaketaren kostuak.

a.2) Eskatzaileen zalantzak eta kontsultak argitzeko berariazko zerbitzuak emateko kostuak.

a.3) Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 3 eta 4 programetako laguntzak eskatzeko aukera duten proiektuen kudeaketarako energia-efizientzian laguntzeko eta aholku emateko zerbitzuak eskaintzeko kostuak.

a.4) Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 3 eta 4 programen sustapen eta hedapenerako berariazko jardueren kostuak.

Entitateak osorik edo zati batean esleituko ditu entitatearen langileak eta bitarteko materialak zalantzak argitu, laguntza eta aholku emateko zerbitzuak eskaintzeko. Kostuak zerrendaren arabera inputatuko dira (**adierazi egingo da zein den langileen eta bitarteko materialen berezko atxikipen-konpromisoa**).

Hala ere, goian aipatutako zerbitzuak eskaintzearen berezko izaeragatik horiek hitzarmen honen xede diren Programa eta Lerroetarako berdin garatzen badira, justifikazio-dokumentazioa bakarra eta bereizezina izango da.

Aipatu dokumentazioan adieraziko da jarduketa horien kostua 025bis esku-hartzearen kategoriari dagokiola, «Egungo eraikinen energia-efizientzia berritzea, erakusketa-proiektuak eta laguntzeko neurriak», eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren VI. eranskinean dago jasota.

b) Hiru hilean behin prestatu eta helaraziko da Eusko Jaurlaritzaren gardentasun-atarian Sailak argitaratu behar duen informazioa.

4.- Next Generation Funtsen organo kudeatzaileei SEEPak eskatutako betebeharrak betetzea:

4.1.– Eusko Jaurlaritzak 2022ko martxoaren 29an onartutako Iruzuraren aurkako neurrien Planera atxikitzea edo, hala badagokio, eduki analogoko berezko plana edukitzea. Helburua da bermatzea eta adieraztea, dagokion, jarduteko eremuan, funtsak aplikagarriak diren arauen arabera erabili direla eta, zehazki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez. Entitateak Iruzuraren aurkako neurrien Plana baldin badu, Eusko Jaurlaritzarenak ezarritakoa ere bete beharko du.

4.2.– Eusko Jaurlaritzak 2022ko martxoaren 29an sinatutako adierazpen instituzionalera atxikitzea.

4.3.– Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (DACI) aurkeztea, hitzarmen honen IV. Eranskineko ereduaren arabera. Betebehar hori dagokie kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituzten langile publikoei eta lan horietako batzuk egiten dituzten beste eragileei, baita onuradun pribatu, bazkide, kontratista eta azpikontratistei ere, horien jarduketak funts hauen bidez finantzatu badira eta beren interesen alde jardun badezakete, EBren finantza-interesen aurka, interes-gatazkaren esparruan.

4.4.– «Ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa («*do no significant harm*–DNSH») printzipioa) errespetatzea, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan aurreikusitakoa. Horretarako, DNSHren autoebaluazioa egingo da, Kalte Esanguratsurik Ez Eragiteko Printzipioaren Autoebaluazioa – DNSH, hitzarmen honen V. Eranskineko eredia jarraiki.

4.5.– Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean ezarritako klima- eta ingurumen-etiketatzearen eta etiketatze digitalaren baldintzak betetzea, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Europako Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren VI. eta VII. Eranskinean jarraiki.

4.6.– Proiektuari egindako erreferentzia guztietan (argitalpenetan, hedapen-jardueretan, webguneetan eta, orokorrean, edozein hedapen-bitartekotan) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Irudi Gidaliburuan agertzen diren baldintzak beteko dira. Aurrekoaren kaltetan izan gabe, jarduketa SEEPen funtsen bidez finantzatu dela adieraziko da, eta hori Garraio, Mugikortasun eta hiri Agenda Ministerioak kudeatzen duela, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18.4 artikuluan aurreikusitako moduan.

4.7.– Era berean, finantzaketaren jatorria aipatu eta agerikoa dela bermatuko da, bereziki diruz lagundu daitezkeen jarduketak eta horien emaitzak sustatzen direnean; informazio koherentea, eraginkorra eta egokia emango da, hainbat hartzailerei zuzendutakoa, baita komunikabideei eta jendarteari ere. Oro bat, eremu honetan garatzen diren lizitazio, hitzarmen eta gainerako tresna juridiko guztiek jasoko dute haren goiburukoan eta testuan honako erreferentzia hau: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana – Europar Batasunak – NextGenerationEUK finantzatua», Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeko duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikulua jarraiki.

4.8.– Jasotako funtsen aplikazioaren justifikazio-dokumentuak gordetzea, baita dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrolerako jarduketan xede izan baitaitezke.

4.9.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskatzen dion beste edozein informazio eta dokumentazio igortzea.

5.– Honako hauetan ezarritako betebeharrak: 853/2021 Errege Dekretua, urriaren 5koa, 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Lege Orokorra eta 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina. Bereziki, entitateek jasotako dirulaguntzaren egiaztagiria gordetzeko betebeharra dute, eta jasotako laguntzen fiskalizazio-funtzioak egingo dituzten organismoen (Europako Batzordearen, Iruzuraren aurka egiteko Bulegoaren eta Kontu Auzitegiaren) finantza-kontrolen menpe egongo dira.

Hirugarrena. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 3, 4 eta 5 Programen berriazko jarraipena.

1.– Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila eta ... entitateak, EAEk Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana osatzen duten Programei lotutako helburuak betetzeko eta haren 2 Programaren funtsak aplikatzeko, gutxi gorabeherako honako helburu hauek ezarriko dira:

a) Bulegoaren bidez bideratutako jarduketa (espediente) kopurua;

a. 3 Programa. XXX jarduketa.

b. 4 Programa. XXX jarduketa.

c. 5 Programa. XXX jarduketa.

b) Jarduketek zerbitzu eginiko etxebizitza bakar kopurua;

a. 3 Programa. XXX etxebizitza.

b. 4 Programa. XXX etxebizitza.

c. 5 Programa. XXX etxebizitza.

2.- Aurreko atalean aipatutako helburuen behar bezalako jarraipena egiteko, gomendagarria da egutegi bat zehaztea, eta bertan adieraztea hitzarmenaren indarraldiko helburuak (**izapidetu beharreko hitzarmenean gutxi gorabeherako egutegia adieraziko da**).

3.- Zehaztutako helburuak betetzean desbideratzeak badaude, jarraipenerako aldeko batzordea deituko da, dagozkion zuzenketa-neurriak hartzeko, helburuak berriz definitzeko edo, hala badagokio, hitzarmena bertan behera uzteko.

Laugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren konpromisoak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bidez, hori baita Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Birgaitze Programak arautzen dituen urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan bakoitzari ezarritako laguntzen zuzeneko onuraduna, honako konpromiso hau hartzen du gain:

Birgaitze Bulegoen berezko lanetan laguntzeari dagokionez:

a) Birgaitze Bulegoaren eskura jarriko du haren konpromisoak betetzeko beharrezko informazioa eta aholkularitza. Helburua da aurreko klausuletan gain hartutako gainerako kudeaketa-eta izapidetze-funtzioak egiten laguntzea. Konpromiso horrek barne hartzen du Sailak egingo dituen prestakuntza-ikastaroak ematea. Ondorio horietarako, pertsona bat izendatuko du Bulegoarekin harremana izateko.

b) Beharrezko dokumentu-euskarria jarriko du Bulegoaren eskura, baita Eusko Jaurlaritzaren TRAMITAGUNE izapidetze elektronikorako plataformara eta Eusko Jaurlaritzak garatzen dituen Bulegoaren funtzioak egiteko beharrezkoak diren beste software-programetara sarbidea eman ere. Azken xedea da alderatu beharreko informazioa osoa eta homologatua izatea; zehazki, Programa eta Lerroei lotutako laguntzen kalkuluari dagokionez.

Birgaitze Bulegoak aitortzeari dagokionez:

c) Entitatea Birgaitze Bulego aitortuta gehituko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioarekin (MITMArekin) sinatzen dituen hitzarmenetan, 2. programari dagozkion funtsak aplikatzeko.

Birgaitze Bulegoen dirulaguntzak ordaintzeari dagokionez:

d) Birgaitze Bulegoak gastuak justifikatu baino lehen, eta bigarren klausularen hirugarren puntuak xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Estatuko Administrazio Orokorrak 2. programarako (Birgaitze Bulegoei laguntzeko programarako) emandako dirulaguntza itzuli beharrik gabe ordainduko du, bulegoen berezko funtzioak egiteko eta kontuan hartuta ez dela bateragarria 1. programarekin, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, finantzaketa bikoitza saihesteko.

Entitateak jasotako laguntzen zenbatekoa 800 euro artekoa izango da, efizienteki birgaitutako etxebizitza bakoitzeko, hori Bulegoaren bidez kudeatu baldin bada, 3. programaren (Eraikinean birgaitze-lanak egiteko laguntza-programaren) eta 4. programaren (Etxebizitzetan energia-efizientzia hobetzeko jarduketetarako laguntza-programaren) bidez. Egiaztatu egingo da, dagozkion justifikazioaren bidez, eta Bigarren Klausulan ezarritako Birgaitze Bulegoen diruz lagundu daitezkeen kostuei dagozkien kostuen % 100 behar bezala ziurtatuko da.

Dirulaguntzak justifikatu aurretik ordainduko dira, hiru hilean behin eta, hala badagokio, aurretik ordaindu diren aurreratzeak ordaindu ondoren.

e) Aurreko letran ezarritako justifikazioa egin baino lehen, entitateari aurreratzea aurrerakinak ordainduko zaizkio, ondorengo klausulan ezarritakoari jarraiki.

Bosgarrena. 2. programari dagozkion laguntzak aurreratzea.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta

Garraio Sailaren bidez, eta entitatea ados daude Bulegoa ezartzeko kostuak behar bezala artikulatzeko beharrezkoa dela 2. programan aipatzen diren Birgaitze Bulego horiei dagozkien laguntzak aurreratzearekin. Ondorio horietarako, dirulaguntzaren % 30 aurreratuko da, gehienez, hitzarmen honen laugarren klausulan ezarritako 3. programan birgaitutako etxebizitza bakarretarako ezarri diren helburuen arabera.

2.- Aurrerakinak hitzarmen hau berretsi eta hilabete bateko epean hasiko dira ordaintzen, eta behin baino ez dira emango. Ez dira 2. programaren laguntza gehiago emango, ezarritako helburuen % 30 gainditu dela justifikatu arte. Helburuak aurreko zenbakian zehaztu dira.

3.- Aurreratutako funtsak jasotzeak, onuradun gisa, honako hauek ezarritako betebeharrak onartzen direla esan nahi du: 853/2021 Errege Dekretua, urriaren 5ekoa, 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Lege Orokorra eta 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina.

4.- Birgaitze Bulegoak ez badu justifikatzen zenbatekoa aurrez jasotzeko eskubidea duela, aurrerakin horiek ez dira entitatearen berezko ondasunaren parte izango eta, hortaz, berariazko funtsa eratu beharko du hori kudeatzeko. Haren araubide juridikoa urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuak ezarritakoa eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuak ezarritakoa, baita hori garatzen duen Mekanismoa ere, izango da.

Seigarrena. Hitzarmena aldatzeko araubidea. Hitzarmenaren edukia aldatzeko, sinatzaileek aho batez adostuko dute.

Zazpigarrena. Hitzarmenaren indarraldia.

1.- Hitzarmena aurrez bertan behera uzteko aukeraren kaltetan izan gabe, hitzarmen honen indarraldia haren sinadura berresten den unetik 2026ko abenduaren 31ra bitartekoa izango da. Ondorioak izango ditu honako hau indarrean sartzen den egunetik aurrera aurkezten diren eskaera guztietan: Agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 3, 4 eta 5 programen laguntzak deitzen dituenak.

2.- Alderen batek ez baditu gain hartutako konpromisoak betetzen, beste aldeak ahalmena izango du Hitzarmen hau bertan behera uzteko.

Zortzigarrena. Datu pertsonalak tratatzea.

Hitzarmen honen xede diren datu pertsonalen tratamendua datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/1979 (EB) Erregelamenduak arautuko du. Horren bidez, 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko erregelamendu orokorra) indargabetzen da. Halaber, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ere arautuko du tratamendua.

HITZARMENA indarrean sartzen den egunean, XXXXXXXXXXXXXXXX sozietateak, datu pertsonalak tratatzeko arduraduna izango da. Tratamendu horren azken arduraduna Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza da, eta horien pribatutasun-neurrien arduraduna Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Zerbitzu Zuzendaritza.

Tratamenduaren xedea, iraupena, izaera eta helburua, interesdunen datu pertsonalak eta kategoriak, eta arduradunaren betebeharrak eta eskubideak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eta XXXXXXXXXXXXXXXX sozietateak sinatzeko Hitzarmen honen I. eranskinean datoz ezarrita.

Eranskin hori bereizezina da eta Hitzarmenaren izaera juridiko bera du. Loteslea da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 28.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

Bederatzigarrena. Hitzarmenaren lege-araubidea. Jarraipena.

1.- Hitzarmen honek izaera juridikoa eta administratiboa du eta haren interpretazioa eta garapena Administrazio Publikoen arteko lankidetzarako hitzarmenen erkidegoko eta estatuko araudien arabera da; bereziki, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoa eta, osagarri, Dirulaguntzen Lege Orokorraren azaroaren 17ko 38/2003 Legeak ezarritakoa.

2.- Bi aldeek adosten dute kide kopuru bereko aldebiko batzordea eratzea, hitzarmen honetan gain hartutako konpromisoen jarraipena eta interpretazioa egiteko.

3.- Hitzarmena bertan behera gelditu daiteke, eta bi aldeetako batek hala eskatuta, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikuluan jasotako arrazoiak gertatzen badira. Hitzarmena bertan behera uzteko akordioaren bidez, aldean artean eskatuko diren eta ordura arte ordaindu gabe dauden betebeharrak ekonomikoak ordainduko dira.

Eta horrela jasota gera dadin eta ados daudela adierazteko, Hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, adierazten diren leku eta egunean.

Entitatea
XXXXXX.
Sin.:

Lurralde plangintza, etxebizitza eta
garraioetako sailburua
Sin.: Iñaki Arriola López

I.A ERANSKINA

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN ARLOKO BETEBEHARREI BURUZKOA

(Eranskina ezin da Hitzarmenetik banatu eta horren zuzenbidezko izaera bera du. Gainera, Eranskina loteslea da Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduko 28.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.)

I. TRATAMENDU-ENKARGUAREN OBJEKTUA

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietatea gaitzen da Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Kontseiluaren 2022ko ekainaren 21eko AGINDUAREN babesean aurreikusitako laguntzak kudeatu eta izapidetzeko beharrezko datu pertsonalak tratatzeko, tratamendu-eragile gisa eta eranskin hau barne hartzen duen Hitzarmeneko baldintzetan. Agindu horren bidez, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan bildutako bizitegi-eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia handitzeko birgaitzerako laguntza-programekin lotutako laguntzen deialdi publikorako oinarriak ezartzen dira eta deialdia erregulatzen da. Aipatutako errege dekretuaren bitartez, halaber, Next Generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko –Europar Batasunak finantziatutakoa– bizitegiak eta etxebizitza sozialak birgaitzeari buruzko 3., 4. eta 5. Programak erregulatzen dira.

Honetan datza tratamendua:

- Bilketa.
- Erregistratzea.
- Egituratzea.
- Kontserbazioa.
- Erkatzea.
- Berreskuratzea.
- Kontsulta.
- Komunikazioa.
- Transmisio bidezko komunikazioa.
- Interkonexioa.
- Mugaketa.
- Eraldaketa.
- Ezabatzea.
- Suntsiketa.
- Bestea batzuk.

II. ERAGINPEKO INFORMAZIOA IDENTIFIKATZEA

Hitzarmen honen objektua betetzetik eratorritako prestazioak gauzatzeko, tratamendu-arduradun den Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak **EZ** dio

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietateari informaziorik emango, laguntzen kudeaketa eta izapiderako beharrezko datu pertsonalak zuzenean jaso eta tratatuko ditu XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietateak.

III. IRAUPENA

Hitzarmenaren zazpigarren atalean aurreikusten da eranskin honen indarraldia.

Indarrean egoteari uzten dionean, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietateak eranskin honetako IV. ataleko i) letran zehazten den bezala ekingo du.

IV. TRATAMENDU-ERAGILEAREN BETEBEHARRAK

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietatea eta bere langileak honetara behartuta daude:

a) Tratitzen dituen datu pertsonalak Hitzarmen honen objektu den helbururako bakarrik erabiltzea. Inoiz ezingo dituzte helburu pertsonaletarako erabili.

b) Datuak Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren jarraibideen arabera tratatzea.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietateak jarraibideetakoren batek 2021ko apirilaren 27ko Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua edo datuen babesari buruzko Batasuneko edo kide diren Estatuetakoa beste edozein xedapen urratu duela baderitzo, eragileak berehala emango dio horren berri Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari.

c) Tratamenduaren edozein arduradunek burututako jarduera-kategoria guztien erregistro idatzia jasotzea, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza berariaz barne hartuz. Hau izan behar du erregistroak:

1. XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietatearen izena eta harremanetarako datuak; bertako datuak babesteko ordezkariarenak, hala badagokio, eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzarenak.

2. Arduradun bakoitzaren ardurapean egindako tratamendu-kategoriak, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza berariaz barne hartuz.

3. Hirugarren herrialde edo nazioarteko erakunde bati datuak pasatzea aurreikusita ez badago ere, gertatuko balitz, transferentzia horien zerrenda, baita aipatutako hirugarren herrialdearen edo nazioarteko erakundearen identifikazioa ere eta, 2016ko apirilaren 27ko Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduko 49. artikuluko 1. ataleko bigarren paragrafoan adierazten diren transferentzien kasuan, berme egokien dokumentazioa ere bai.

4. Datuen tratamenduarekin lotuta aplikatzen diren segurtasunezko antolakuntza-neurri eta -tekniken deskribapen orokor bat, hauei lotuta:

a.- Datu pertsonalak izenordeengatik ordezkatzeko eta zifratzeko.

b.- Tratamendu-sistema eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia iraunkorra ziurtatzeko gaitasuna.

c.- Datu pertsonalen eskuragarritasuna eta horietara sarbidea azkar berreskuratzeko gaitasuna, gorabehera fisiko edo teknikoren bat izaten bada.

d.- Tratamenduaren segurtasuna ziurtatzeko neurri tekniko eta antolamenduzkoen eraginkortasuna kontrolatzeko, ebaluatzeko eta balioztatzeko prozesua.

e.- Hirugarren pertsoneri daturik ez helaraztea, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren berriazko baimena bada salbu, legalki onargarriak diren kasuetan.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietateak datuak helaraz diezazkieke Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzako beste tratamendu-eragile batzuei, Zuzendaritzaren jarraibideen arabera. Kasu horretan, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak, alde aurretik eta idatziz, datuak jasoko dituen erakundea, helarazi beharreko datuak eta komunikaziorako segurtasun-neurriak identifikatuko ditu.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietateak hirugarren herrialde bati edo nazioarteko erakunde bati datu pertsonalak transmititu behar badizkio, Batasuneko edo kide diren Estatuetakozuzenbidea betez, alde aurretik Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari jakinaraziko dio lege-eskakizun hori, Zuzenbide horrek interes publikoagatik debekatzen badu izan ezik.

d) Azpikontratazioa.

Hitzarmenaren objektu diren eta datu pertsonalen tratamendua berekin dakarten prestaziorik ez azpikontratatzea, eragilearen zerbitzuek normal funtzionatzeko beharrezko zerbitzu osagarriak izan ezik.

Tratamenduren bat azpikontratatzea beharrezkoa balitz, alde aurretik eta idatziz helarazi beharko litzaioke Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari, hamar egun baliodun lehenago, azpikontratatu nahiko liratekeen tratamenduak zehaztuz eta enpresa azpikontratista eta bere harremanetarako datuak argi eta garbi identifikatuz. Azpikontratazioa burutu ahal izango da Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak ez badu zehaztutako epean aurka egiten. Baina alde aurretik Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari kontsulta egin beharko dio.

Azpikontratista ere tratamendu-eragilea denez gero, bera ere behartuta dago dokumentu honetan ageri diren XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietatearen betebeharrak konplitzera, baita Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak ematen dizkion jarraibideak ere. XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietateari dagokio harreman berria erregulatzea, eragile berria Sozietatearen baldintza beren (jarraibideak, betebeharrak, segurtasun-neurriak...) eta forma-betekizun beren mende egon dadin, datu pertsonalen tratamendu egokiari eta eraginpeko pertsonen eskubideak bermatzeari dagokionez. Eragileordeak betebeharren bat urratzen badu, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietateak horren ardura osoa izaten jarraituko du Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren aurrean.

e) Sekretupean mantentzea eskura izandako datu pertsonalak Hitzarmena betez, baita horren objektua bukatu ondoren ere.

f) Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonak, berriaz eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta segurtasun-neurri aproposak betetzeko konpromisoa hartzen dutela bermatzea. Horretarako, era egokian eman behar zaie segurtasun-neurri buruzko informazioa.

g) Aurreko atalean zehaztutako betebeharra konplitzearen egiaztagiria Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren esku mantentzea.

h) Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsoneri datu pertsonalen babesean beharrezko formakuntza ematen zaiela bermatzea.

i) Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari honako eskubide hauek baliatzeari erantzuten laguntzea:

1. Eskurapena, zuzenketa, ezabapena eta aurkakotasuna.

2. Tratamenduaren mugaketa.

3. Banakako automatizatutako erabakien objektu ez izatea (profilen garapena barne).

Eraginpean dauden pertsonen eskurapenerako, zuzenketarako, ezabapenerako eta aurkakotasunerako eta banakako automatizatutako erabakien objektu ez izateko eskubideak Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren aurrean erabiltzen dituztenean, horrek Sozietateari jakinarazi egin behar dio. Jakinarazpena berehalakoa izan behar da eta ezin da inoiz lanegun bat baina gehiago pasa eskaera jasotzen denetik, horrekin batera, hala badagokio, eskaera ebatzeko esanguratsuak izan daitezkeen beste informazio batzuk eman behar dira.

j) Informaziorako eskubidea.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietateak, datuak jasotzen dituen momentuan, egingo diren datuen tratamenduei buruzko informazioa eman behar du. Informazioa emateko erabiltzen den idazkera eta formatua izango dira laguntzen eskaera-ereduan agertuko direnak.

k) Datuen segurtasun-urratzeen berri ematea.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietateak Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari, behar baino gehiago luzatu gabe eta edonola ere 48 orduko gehiengo epea baino lehen, bere gain dauden datu pertsonalen segurtasun-urraketa jakinaraziko dizkio eta segurtasun-gorabehera dokumentatzeko eta jakinarazteko esanguratsua den informazio guztia emango dio.

Jakinaraztea ez da beharrezkoa izango segurtasun-urraketa hori nekez izan daitekeenean arriskutsua pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako.

Edukiz gero, gutxienez hurrengo informazioa emango da:

a) Datu pertsonalen segurtasun-urratzearen izaeraren deskribapena eta, ahal denean, eraginpeko interesdun motak, horien gutxi gorabeherako kopurua eta eraginpeko datu pertsonalen erregistro motak, horien gutxi gorabeherako kopurua barne.

b) XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietateko datuen babeserako ordezkariaren izena eta harremanetarako datuak, hala badagokio, edo informazio gehiago lortu ahal izango den beste harremanetarako gune bat.

c) Datu pertsonalen segurtasun-urraketaren ondorio posibleen deskribapena.

d) Datu pertsonalen segurtasun-urraketa zuzentzeko hatutako edo proposatutako neurrien deskribapena eta, egokia bada, efektu kaltegarriak arintzeko hartutako neurriak ere bai.

Informazioa aldi berean ematea ezinezkoa bada, eta hala den neurrian, informazioa era gradualean emango da, behar baino gehiago luzatu gabe.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietateari dagokio ahal den epe laburrenean interesdunei segurtasun-urraketa jakinaraztea, urraketa erraz pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako arrisku handia izan daitekeenean.

Komunikazioa hizkera argi eta sinplean gauzatu beharko da eta gutxienez hau eginez:

a) Datuen babes-urraketaren izaera den azaldu.

b) XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietateko datuen babeserako ordezkariaren izena eta harremanetarako datuak eman, hala badagokio, edo informazio gehiago lortu ahal izango den beste harremanetarako gune bat adierazi.

c) Datu pertsonalen segurtasun-uraketaren ondorio posibleak deskribatu.

d) Datu pertsonalen segurtasun-uraketa zuzentzeko Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak hartutako edo proposatutako neurriak deskribatu eta, egokia bada, efektu kaltegarriak arintzeko hartutako neurriak ere bai.

e) Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari datuen babesaren inpaktuari buruzko ebaluazioak egiten lagundu, egokia denean.

f) Egokia denean, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari lagundu kontrol-agintaritzari aldez aurreko kontsultak egiten.

g) Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren esku jarri betebeharrak konplitu direla frogatzeko beharrezko informazio guztia, baita arduradunak edo berak baimendutako beste auditore batek auditoretzak edo ikuskapenak egiteko behar den informazioa ere.

h) Segurtasun-neurriak ezarri.

Dena den, mekanismoak ezarri beharko ditu honetarako:

1) Tratamendu-sistema eta -zerbitzuetan konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko.

2) Datu pertsonalen eskuragarritasuna eta horietara sarbide azkarra berreskuratzeko, gorabehera fisiko edo teknikoren bat izaten bada.

3) Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarritako neurri tekniko eta antolamenduzkoen eraginkortasuna kontrolatzeko, ebaluatzeko eta balioztatzeko.

4) Datu pertsonalak izenordeez ordezkatzeko eta zifratzeko, hala badagokio.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietatea Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren zuzenbideen menpe egongo da pribatutasunaren arloan.

l) Datuen erabileraren amaiera.

Hitzarmena bukatutakoan, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietateak datuak tratatzeko erabilitako ekipamendu informatikoetan egon litezkeen datuak zeharo ezabatuko ditu.

Aldi berean, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietateak Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari datu pertsonalak itzuliko dizkio eta, egokia bada, datuen tratamendurako erabilitako horien euskarriak ere bai.

Itzulpen horrek berekin ekarri behar du eragileak erabilitako ekipamendu informatikoetako datuak erabat ezabatzea.

Hala ere, eragileak datuak behar bezala blokeatuta dituen kopia bat gorde dezake, Hitzarmena betetzetik ardurak erator daitezkeen bitartean.

Lan horiek burutzeko, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren segurtasunari eta pribatutasunari buruzko zuzenbideen mende egongo dira bai XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietatea, bai Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.

V. TRATAMENDU-ARDURADUNAREN BETEBEHARRAK

Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari dagokio eta, egokia bada, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari:

a) XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietateak egingo dituen tratamendu-lanek datuen babesean duten eraginaren ebaluazioa egitea.

b) Dagozkion aldez aurreko kontsultak egitea.

c) XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX sozietateak Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua bete dezan zaintzea, aldez aurretik eta tratamendu osoan zehar.

d) Tratamendua gainbegiratzea, ikuskatzeak eta auditoretzak gauzatzea barne.

II.B ERANSKINA

IRUZUR, USTELKERIA EDO INTERES GATAZKA ARRISKUAREN EBALUAZIOARI BURUZKOA.
INTERES GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA (IGEA)

(Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenaz gain, hirugarrenen interes-gatazka eta iruzurren aurrean ekiteko plan bat existitzen dela, prozedimendu bat eskura dagoela, ere frogatu behar da, horiek saihesteko, antzemateko, zuzentzeko eta pertsegitzeko neurri egokiak barne hartzen dituen).

INTERES GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA (IGEA)

Kontratuaren edo deialdiaren izena:

.....

Espediente-erreferentzia

(Deklaratzailearen nortasuna),en/(a)n (erakunde deitzailea) gisa zerbitzuak ematen dituena,

ADIERAZTEN DUT

Lehenengoa. Informazio honen berri dudala:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) (EBeko Finantza Erregelamendua) Erregelamenduko 61.3 «Interes-gatazka» artikulua hau ezartzen duela: «interes-gatazka egongo da arriskuan jartzen direnean eginkizunen inpartzialtasuna eta objektibotasuna, honako arrazoi hauengatik: familia-arrazoiak, arrazoi afektiboak, kidesan politiko edo nazionala, interes ekonomikoa edo interes pertsonalari lotutako edozein zuzeneko edo zeharkako arrazoi».

2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64 «ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa» artikulua helburuak helburu hauek dituela: lehiaren desitxurapena saihestea, prozedimenduan gardentasuna bermatzea eta hautagai eta lizitatuak guztien arteko tratu-berdintasuna ziurtatzea.

3. Sektore Publikokoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23 «Abstentzioa» artikulua ezartzen duela prozeduran esku hartzetik abstenituko direla «hurrengo atalean zehazten diren egoeretakoren bat duten administrazioetako lan egiten duten agintari eta langileek»:

a) Landuko den gaien interes pertsonala izatea edo landuko den gaiaren ebazpenak egin diezaiokeen beste batean; interesdun sozietate edo erakunde bateko kudeatzailea izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitezko egoera izatea eta laugarren gradurainoko odolkidetasunezko ahaidetasuna edo bigarrenerainoko ezkontza-ahaidetasuna izatea interesdunen arteko edonorekin, erakunde edo sozietate interesdunetako administrazioarekin, baita prozedimenduan esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari eta mandatariekin ere, edo haiekin laneko bulegoa partekatzea, edo haien kide izatea aholkularitzan, ordezkartzan edo mandataritzan.

c) Aurreko atalean aipatutako pertsonaren batekin laguntasun estua edo ageriko ikusezina izatea.

d) Dagokion prozedimenduan aditu edo lekuko gisa esku hartu izana.

e) Gaiari zuzenean interesa duen pertsona fisiko edo juridiko batekin zerbitzu harremana izatea, edo azken bi urteetan hari edozein motako zerbitzu profesionalak eskaini izana edozein egoera eta lekutan.

Bigarrena. Ez dagoela/daudela EBeko Finantza Erregelamenduko 61.3. artikuluan interes-gatazkatzat jo daitekeen egoeretako batean ere, ezta lizitazio/emakida prozedimenduari eragin diezaiokeen Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluko abstentziorako kausa batean ere.

Hirugarrena. Konpromisoa hartzen duela/dutela kontratazio-organoari, ebaluazio-batzordeari edo hierarkiako nagusiari, luzatu gabe, jakinarazteko interes-gatazka edo abstentziorako kausa den edozein egoera, agertoki hori sortzen duena edo sor dezakeena. Gainera, hala bada ebaluazio prozesuan eta prozedimendu horrekin lotutako ekintza guztietan parte hartzeari utziko diot.

Laugarrena. Prozedimendu hauen esparruan garatzen diren zereginak eta dokumentazioa konfidentziasunez tratatuko ditudala eta horietan parte hartzeagatik jasotzen dudana informazioa ez dudala era desegokian erabiliko.

Bosgarrena. Badakit faltsua dela frogatzen den interes-gatazkarik ezeko adierazpen batek, aplikatu beharreko araudiak zehazten dituen diziplina- administrazio- eta lege-ondorioak izango dituela.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NANA)

III.C ERANSKINA

INGURUMENARI «KALTE ESANGURATSURIK» EZ ERAGITEKO PRINTZPIOA (DNSH)
BETETZEARI BURUZKO

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

..... jaunak/andereak, NAN zenbakia duenak, elkargo ofizialekoa elkargokide-zenbakidun teknikari-titulazioa duenak, IFZ duen erakundearen izenean eta bera ordezkatzuz,

ADIERAZTEN DU

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (SEEP) esparruko deialdiari dagozkion laguntzak eskatzeko aurkeztutako «.....» eraikinaren proiektu, memoria edo liburuaren egilea dela.

Laguntzak eskatzeko aurkeztutako eraikinaren proiektu, memoria edo liburu horrek, edo horretatik eratorritako jarduketek, aipatutako programaren barnean, honako hau betetzen dutela:

Bertan garatzen diren jarduerak ez diete kalte esanguratsurik sortzen segidan aipatuko diren ingurumenarekin lotutako helburuei, 2020/852 Erregelamenduko (EB) 17. artikulua araberak. Artikulu horrek marko bat ezartzen du ingurumenerako jasangarriak diren inbertsioak errazteko ingurumenerako jasangarriak diren jarduera ekonomikoen sailkapen-sistema (edo «taxonomia») bat ezarri. Hona hemen ingurumenarekin lotutako helburuak:

- Klima-aldaketa arintzea.
- Klima-aldaketara moldatzea.
- Ur- eta itsas-baliabideen erabilera jasangarria eta babesa.
- Ekonomia zirkularra, hondakinak saihestea eta birziklatzea barne.
- Atmosferaren, uraren eta lurzorua kutsaduraren prebentzioa eta kontrola.
- Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta errekuiperatzea.

Jarduketek 853/2021 Errege Dekretuan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzte, gainera, jarduketak 2. osagarrian zehaztutako eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren islatutako ezaugarri eta baldintza espezifikoetara moldatzen dira ingurumenerako helburu bakoitzerako:

Ingurumenerako Helburua	Jarduketetan bete beharreko baldintza espezifikoak
1. Klima-aldaketa arintzea.	Energia-efizientzia hobetuko da 2010/31/EB Zuzentarauan ezarritakoaren arabera. Horrek kontsumoek behera egin dezaten lagunduko du eta, beraz, GEB* isurketak gutxitzen.
2. Klima-aldaketara moldatzea	Ez dira baldintza zehatzak azaltzen, baina jarduketek helburu honetarako onurak dakartzate (eraikuntzen eta ingurunearen baldintzen hobekuntza).
3. Ur- eta itsas-baliabideak	Ez dira baldintza zehatzak azaltzen jarduketek ez dutelako helburu honetarako ondorio esanguratsurik sortu behar.
4. Ekonomia zirkularra	<p>Proiektu-mailako baldintza espezifikoak:</p> <p>i. Berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk errekuperatzeko erabiliko dira eraikitzen den lekuetan sortutako eraikuntzatik eta eraispenetik eratorritako arriskutsuak ez diren hondakinen gutxienez %70 (pisuan), hondakinen jerarkiaren eta EBko Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen kudeaketa-protokoloaren arabera. Hondakinen erabilpen horiek beste material batzuk ordezkatzeko hondakinak erabiliko dituzten betelanak barne hartzen dituzte. %70 horretatik kanpo gelditzen da 2000/532 /EC Erabakian ezarritako Hondakinen Europar zerrendako 17 05 04 mailan aipatzen den material naturala.</p> <p>ii. Operadoreek eraikuntzarekin eta eraispenarekin lotutako prozesuetan sortzen den hondakin kopurua mugatu beharko dute, EBko Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen kudeaketa-protokoloaren arabera. Horretarako eskuragarri dauden teknika hoberenak kontuan hartu beharko dituzte eta eraispen selektiboa erabili beharko dute sustantzia arriskutsuak segurtasunez kendu eta eskuztatu ahal izateko eta kalitate handiko berrerabilera eta birziklapena errazteko materialak era selektiboan kenduz, eraikuntzarako eta eraispenerako eskuragarri dauden sailkapen-sistemak erabilia. Halaber, eraispina ahal izanez gero era selektiboan egitea hobetsiko da, baita sailkapena hondakinak sortzen diren lekuan egitea ere.</p> <p>iii. «Eraikinen diseinu eta eraikuntza-teknikak zirkulartasunaren aldekoak izango dira eta, bereziki, frogatuko dute, nola dauden diseinatuta ISO 20887ren edo eraikinen desmuntatzeko gaitasuna edo moldagarritasuna baloratzeko beste arau batzuen arabera, baliabideen erabileran eraginkoragoak, moldagarriagoak, malguagoak eta berrerabilera eta birziklapena ahalbidetzeko desmuntagarriak izateko».</p>
5. Kutsadura	Ez dira ondorio nabarmenak espero. Neurri horretan aurreikusitako jarduketek garapenean erabiliko diren eraikuntzarako osagarri eta materialek ez dute amiantorik izango, ezta 1907/2006 (EE) Erregelamenduko XIV eranskinean ageri den baimena behar duten sustantzien zerrendan oso kezkarri bezala identifikatzen den sustantziarik ere. *
6. Biodibertsitatea eta ekosistemak	Ez dago baldintza zehatzik azaltzen, jarduketek ez dutelako biodibertsitatean ez ekosistemetan zeharkako edo zuzeneko eragin kaltegarriak sortu behar.

(* 853/2021 Errege Dekretuan ezarritako programaren baldintzak.

Erantzukizunpeko adierazpen honen objektu diren jarduketek DNSH printzipioaren helburuekin lotutako indarrean den araudi aplikagarria beteko dute.

Proiektuan eta proiektua laguntzen duen hondakinen kudeaketari buruzko ikerketan deskribatutako jarduketek b) azpiatalean deskribatutako ekonomia zirkularraren helburuaren oinarriko ebaluazioa egiteko ezarritako irizpide zehatzak betetzen dituzte, honen arabera:

Proposatutako eraikinen birgaitzea lehendik eginda dauden eraikinek markatzen dituzten baldintzetatik abiatzen da. Ondorioz, eraikuntza zirkularreko irizpideak esku-hartze zehatzek ahalbidetzen duten heinean kontuan hartu dira.

Kontuan hartutako eraikuntza-teknikek zirkulartasunaren alde egiten dute: proposatutako jarduketetatik eratorritako eraikuntza- eta eraispen-hondakinen (EEH) gutxienez %70 berrerabili, birziklatu eta errekuperatu ahal izateko beharrezko neurriak hartu dira.

Adierazpen honetan ezarritako baldintzetakoren bat hausten bada, jasotako dirua eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira.

Eta horrela ager dadin, adierazpen hau sinatu dut ...(e)n..... sinadura digitaleko egunean.

Eskudun teknikariak sinatua.

IX. ERANSKINA

EUSKO JAURLARITZAKO LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILAREN ETA ERAKUNDEEN ARTEKO HITZARMEN EREDUA BIRGAITZE BULEGOEN ETA ERAKUNDE LAGUNTZAILEEN FUNTZIOAK GARATZEKO; EUROPAR BATASUNAK NEXT GENERATION EURREN BIDEZ FINANTZATUTAKO ETA URRIAREN 5EKO 853/2021 ERREGE DEKRETUAK (3., 4. ETA 5. PROGRAMEK) ARAUTUTAKO SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO (SEEP) BIZITEGIAK BIRGAITZEKO PROGRAMETARAKO LAGUNTZEI DAGOKIENEZ.

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

ALDE BATETIK, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bidez, Ignacio María Arriola López jaunaren ordezkartzarekin, Lehendakariaren 18/2020 Dekretuko izendapenaren arabera sailburu den aldetik, 2022ko ...aren ... (e)an egindako Gobernu Kontseiluan lortutako akordioaren bidez jardunaldi honetarako baimena duena.

BESTETIK, (...) erakundea, ... (e)k ordezkatuta, ... den aldetik, eta ... sozietateko administrazio-kontseiluak lortutako akordioaren bidez ... egunean izandako bileran.

Alderdiek elkarri aitortzen diete legezko gaitasuna dutela hitzarmen hau sinatzeko, eta, horretarako, honako hau

AZALTZEN DUTE

Lehenengoa.– COVID-19ak sortutako pandemiak ekonomia- gizarte- eta osasun-krisialdia izan du ondorio. Erronkaren tamainagatik Europa-mailako erantzun bateratua eskatu du. Epe ertainera erantzuteko, Errekuperazio Funts handi bat martxan jarri da, 2021etik aurrera COVID-19aren osteko munduan ekonomien berreraikuntza-prozesuan laguntzeko.

Bigarrena.– 2020ko abenduaren 31n argitaratu zen abenduaren 30eko 36/2020 Errege-lege Dekretua, horren bidez Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko neurriak onartu ziren.

Hirugarrena.– Bestalde, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (MRR) ezarri zuen Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua betez, Ministroen Kontseiluak, 2021eko apirilaren 27ko bileran, Espainiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (SEEP) onartu zuen eta 2021-2024 epean martxan jarriko diren proiektuen bidez gauzatu da ekonomiaren errekuperazio eta transformazio azkarrean duen eragina handitzeko helburuz. 2021eko ekainaren 16ean Europako Batzordeak positiboki baloratu zuen plana eta 2021eko uztailaren 13an Europako Batzordeak onarpena eman zion.

Plan honen lehen ardatza inbertsio publikoa eta pribatua indartzea da produkzio-ereduak bideratzeko, trantsizio berdea bultzatuz, baita deskarbonizazioa, energia-efizientzia, energia berriztagarrien zabalkuntza, ekonomiaren elektrifikazioa, energia-metaketa-aren garapena, ekonomia zirkularra, naturan oinarritutako konponbideak eta ekonomia-sektore guztien erresilientziaren hobekuntza ere. Horrez gain, planaren barnean 2. Osagarria dago eta zehazki birgaitze-jarduketak bultzatzea eta eraikin-parkea hobetzea ditu helburu, bai ingurune hiritarretan, bai landa-inguruneetan, Espainiako Hiri Agendako esparru estrategikoa jomuga izanda eta energiaren eta jasangarritasunaren esparruan ahalik eta asmorik handienak izatea ziurtatuz.

Laugarrena.– 2. osagarri horrek zehazki bizitegi-erabilera duten eraikinen birgaitze-prozesuan aurrera egitea ahalbideratuko duten hainbat erreforma eta inbertsio ezartzen ditu, birgaitzea erregulazioaren esparruko neurrien bidez bultzatuz eta horretarako mesedegarria den ingurune bat sortzeko finantzaketaren bidez. Laguntza-sistema horren egitura urriaren 5eko 853/2021 Errege

Dekretuan garatzen da. Dekretu horrekin Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (SEEP) bizitegiak eta etxebizitza sozialak birgaitzeko laguntza-programak erregulatzen dira, esate baterako, hurrengo laguntza-programak:

1. Auzo-mailako birgaitze jarduketetarako laguntza-programa.

2. Birgaitze-bulegoetarako laguntza-programa.

3. Eraikin-mailako birgaitze jarduketetarako laguntza-programa.

4. Etxebizitzen energia-efizientzia hobetzeko jarduketetarako laguntza-programa.

5. Eraikita dagoen eraikinaren liburua egiteko laguntza-programa eraikina birgaitzeko eta horretarako proiektuak idazteko.

6. Energia-efizientzia duten eraikinetan alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitzen laguntzeko programa.

Bosgarrena.– Planak dakartzkien baliabide-publikoen mobilizazio itzelak eta markatutako helburuak zehaztutako epean betetzeko beharrak haiekin dakarte jarduketak gauzatzeko, askotariko ekonomia- eta gizarte-agenteeek esku hartzeko beharra; herritarrei informazioa eraginkortasunez emateki hasi, aurretik ezarritako laguntzen azken hartzaile posible gisa, eta dagozkion jarduketak gauzatu ahal izateko produkzio-ekonomia sarea moldatzeraino.

Horren jakitun delarik, Eusko Jaurlaritzak aipatutako 2. Programako baliabide ekonomikoen aurrekontu-egozpena egin du. Era berean, horiek bere funtsekin osatu ditu Birgaitze Bulego horiei urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan esleitzen zaizkion funtzioen garapenaren kostuak finantzatzeko asmoz, hainbat programen onuradun izan daitezkeen pertsonen laguntza-eskaerak berariaz eta zehazki bideratu daitezzen «leihatila bakarrak» eraikitzeke helburuarekin. Baliabide ekonomiko horiek guztiak dirulaguntzak dira eta zuzenean eskaini ahal izango dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera, programen garapenaren oinarri den urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 25. artikulua lege horretara egiten baitu bidalketa.

Seigarrena.– Era berean, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 7. artikuluan eta 3., 4. eta 5. Programei dagozkien deialdiak arautzen dituen Aginduan, hainbat baldintza betez gero, erakunde laguntzaileek esku-hartzeko aukera kontuan hartu da laguntza horien izapidetze administratiboa kudeatzeko. Zentzu horretan, zehaztu behar da etxebizitzak birgaitzeko jarduketa babesgarri buruzko 317/2002 Dekretuko 18. artikulua onartzen duela Birgaitzeko Hirigintza Sozietateek (BHS) haien gain hartzea momentu bakoitzeko Eusko Jaurlaritzaren finantzia arloko neurriei dagozkien funtzioak, bizitegi-sareko eraikinak birgaitzea bultzatzeko, elkarlanerako dagokien hitzarmena sinatzearen bidez.

Zazpigarrena.– Edonola, aurreikusitako jarduketetarako erakundeek egituraketa herritarrengana ahalik eta gehien gerturatu behar da momenturen batean, herritarrak baitira aipatutako eraikin eta etxebizitzak bizitegi-birgaitze programen azken hartzaileak, programei buruzko informazio hurbila eta eraginkorra emateko eta programak haien beharretara hurbiltzen saiatzeko. Gainera, SEEPak markatutako helburuak betetzeko espediente horien izapidetze-administratiboa arindu behar da.

Zortzigarrena.– Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak denbora darama adierazten estrategia onena lurraldean ahalik eta gehien hedatzen den bulego-sarea zabaltzea dela. Horretarako bizitegiak birgaitzeko jada eginda dagoen sarea aprobeixatu beharko litzateke, birgaitzeko hirigintza sozietateen bidez. Gainera, jada existitzen den eta aktibo dagoen sareak beharra izan dezake beste eragile publiko osagarri batzuen partehartzerako.

Era berean, laguntzen azken hartzaileen ikuspuntutik kontuan hartu behar da jabeen etxebizitzak

eta eraikinen bizitegi-birgaitzeak inoiz ez direla jarduketa motaren arabera isolatuta aurkeztu behar, normalean bizitegi-higiezin beharrak osotasunean kontuan hartzen dituen inbertsiorako erabaki konplexua barne hartzen baitute; kontserbaziorako betebeharratik hasi eta energia-efizientziara arte, irisgarritasunaren hobekuntzatik pasatuz.

Horregatik ez du zentzurik Birgaitze Bulegoaren funtzioak, elkarlanerako hitzarmen honen objektuaren zati bat dena, energia-efizientzian eragiteko urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuko 3., 4. eta 5. Programen garapenera mugatzeak. Hiritarrek jasoko duten informazioa eta laguntza egun birgaitze-arloan indarrean dauden laguntza motetara zabaldu beharko litzateke, aipatutako programetako laguntzekin lotura handia baitute. Zehazki, uztailaren 21eko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Aginduaren bidez indarrean dauden birgaitzeko laguntzetara hedatu beharko litzateke, neurri hauek dituztenak: etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko, irisgarritasunerako eta energia-efizientziarako jarduketa babesgarriak laguntzeko finantza-neurriak. Edonola ere, laguntza mota bakoitzerako ezarritako oinarrien berezko esparruak errespetatu behar dira.

Bederatzigarrena.– Era bereran, beharrezkotzat jotzen da, hitzarmenaren objektua osatuz, aipatuko erakunde horiek Erakunde Laguntzaile gisa laguntzea, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuko 7. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 16. artikuluan arautzen denez. Laguntza horien funtzioak kasuan kasuko laguntza ekonomikoak izapidetzeko, presatzeko eta ebazteko lanen garapenean laguntzea eta, hala badagokio, azken hartzaileen aldeko kasuan kasuko ordainketak gauzatzea dira.

Hamargarrena.– Hitzarmen honen objektu den erakundeen elkarlanak, Birgaitze Bulego gisa eta Erakunde Laguntzaile gisa, konpentsazio ekonomikoak emateko prozesua zehaztea ere eskatzen du. Hain zuzen, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak erakundeei emango dizkien konpentsazio-prozesua. Laguntzak urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuko 2. Programaren kontura, 25. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri eta, hala badagokio, Dirulaguntzei buruzko urriaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, autonomia erkidegotik datozen beste funts batzuen kontura izango dira.

Hamaikagarrena.– Laburbilduz, elkarlanerako hitzarmenaren helburua Eusko Jaurlaritzaren eta Birgaitze Bulegoen eta Erakunde Laguntzaileen lanak egiten dituzten erakunde horien arteko aldebiko harremana ezartzea da eta harreman hori elkarrekin eta aldiberekotasunez sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoan eraikinen eta etxebizitzaren bizitegi-birgaitzearen arloko programak era eraginkorrean garatzeko elkarlana sortu ahal izateko.

Hamabigarrena.– Bestalde, hitzarmen horrek irailaren 29ko 1030/2021 HFP Aginduan araututakoa bete beharko du. Agindu horren bidez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko kudeaketa-sistema eratzen da. Bestalde, irailaren 29ko 1031/2021 HFP Aginduan araututakoa ere bete beharko du, bertan Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko osagarrien neurrien aurrekontuen eta kontabilitatearen betearazpenerako mugarri eta helburuen betetze-prozesua jarraitzeko Estatuko, autonomiako eta tokiko sektore publikoari eman beharreko informazioaren prozedimendua eta formatua zehazten da.

Hamahirugarrena.– Hitzarmenak 2022ko martxoaren 29an Gobernu Kontseiluan onartutako Eusko Jaurlaritzaren Iruzuraren Aurkako Neurrien Planean jasotakoarekin beteko du.

Hamalagarrena.– Azkenik abenduaren 23ko 11/2021 Legean ezarritakoa beteko da, bertan 2022rako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek onartzen dira, zehazki II. Tituluko V. Kapituluan, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari Lotutako Funtsak Kudeatzea; baita otsailaren 8ko Gobernu Kontseiluko akordioa ere, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin lotutako jarduketan eta proiektuen aurrekontuen eta kontabilitatearen betearazpenaren, kudeaketaren eta jarraipenaren harira.

Aurretik azaldutako guztiagatik, alderdiei Hitzarmen honen izenpetzea arautzea eta formalizatzea

komeni zaie,

KLAUSULA HAUEN ARABERA

Lehenengoa. Objektua.

1.– Hitzarmen honen objektua Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren eta (...) erakundearen arteko aldebiko harremanak ezartzea da, azken horrek Birgaitze Bulegoaren funtzioak gara ditzan, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan ezarritako 3., 4. eta 5. Programei (hemendik aurrera «Programak») dagokienez eta etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren inguruko jarduketa babesgarriari buruzko 2021eko uztailaren 21eko Aginduko finantza-neurrien 1. eta 2. Lerroei dagokienez (hemendik aurrera «Lerroak»). Zehazki,

Eraikin-mailako birgaitze jarduketetarako 3. laguntza Programa, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretukoa, 2022ko ekainaren 21eko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailburuaren Aginduz garatutakoak.

Etxebizitzaren energia-efizientzia hobetzeko jarduketetarako 4. laguntza Programa, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretukoa, 2022ko ekainaren 21eko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailburuaren Aginduz garatutakoak.

Eraikita dagoen eraikinaren liburua egiteko, eraikina birgaitzeko eta birgaitzeko proiektuak idazteko 5. laguntza Programa, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretukoa, 2022ko ekainaren 21eko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailburuaren Aginduz garatutakoak.

Eraikuntza-lan partikularretan jarduketa babesgarriak egiteko finantzia arloko neurrien 1. Lerroa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailburuarena.

Eraikuntza-lan komunitarioen jarduketa babesgarriak egiteko finantzia arloko neurrien 2. Lerroa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailburuarena.

2.– Horrela, hitzarmen honen objektua Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren eta (...) erakundearen arteko aldebiko harremanak ezartzea da Erakunde Laguntzailearen lanak gara ditzan, elkarrekin eta aldiberekotasunez Bulegoaren funtzioekin batera. Zehazki urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuko 7. artikuluan ezarritako Erakunde Laguntzailearen funtzioak garatzeko, baita azaroaren Dirulaguntzei buruzko 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 16. Artikuluan ere, aurreko azpiatalean aipatutako laguntzen Programei eta Lerroei dagokienez.

Bigarrena. Erakundearen konpromisoak Birgaitze Bulego gisa.

1.– Erakundeak urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan garatzen diren Birgaitze Bulegoaren funtzioak bere gain hartuko ditu. Zehazki, erakundeari dagokio Birgaitze Bulegoaren zerbitzua aurkeztea «leihatila bakar»-erara. Bulego horien funtzioa inplementazio eta kudeaketa erraztea bultzatzen duten laguntzen eta prestazioen kudeaketari buruz informazioa ematea eta kudeaketa koordinatu eta erraztea da. Helburua Lehenengo Klausulan aipatzen diren Programei eta Lerroei lotutako esparru hauetara aplikatzen da: hiritarrei zuzendutako bizitegietan, jabeen erkidegoetan, jabeen erkidegoetan eta orokorrean enpresa eta eragile birgaitzaileetan.

2.– Erakundeak garatuko dituen Programen eta Lerroekin lotutako hurrengo funtzioak garatuko ditu eta horiez arduratuko da zehazki eta gutxienez:

a) Programa eta Lerroetako laguntzen informazioa ematea eta horiek zabaltea;

a.1) Hiritarrei kasuan kasuko Programen eta Lerroen berri ematea eta zuzenean zein bakoitzaren bizileku diren eraikinetako jabeen erkidegoetako administrarien bidez, Programa eta Lerro horiekin lotutako laguntzak eskatzeko aukera jakinaraztea. Erakundean horretarako espazio fisiko bat egon beharko da, erakundearen jendaurreko ordutegian pertsona baten edo gehiagoren arreta iraunkorra eskainiko duena.

a.2) Laguntza eska dezaketen pertsonen informazioa, orientabideak eta aholkuak ematea, aurrez-aurre edo ezarritako edozein komunikazio-kanalitik (telefonoa, posta elektronikoa, weba, etab.), laguntzen baldintzei eta betekizunei buruzko zalantzak argitzeko eta orientabideak emateko.

a.3) Programen eta Lerroen laguntzak jakitera ematea eta, egokia bada, zabaltze-kanpainak egitea hainbat komunikabide erabilita, betiere urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan eta uztailaren 21eko Aginduan ezarritako publizitateari eta komunikazioari buruzko betebeharrak errespetatuz.

b) Hiritarrei, Programetako eta Lerroetako laguntzak jasotzeko aukera izan ditzaten, eskaerak aurkezten laguntzea.

b.1) Kasuan kasuko eskaerak ondo bete direla eta beharrezko dokumentazioa eman dela ziurtatzea. Horretarako hau egin beharko dute:

- Eskatzaileak identifikatu eta aurkezten dituzten dokumentuak egokiak diren ziurtatu eta ebaluatu.
- Dokumentuak ez badia nahikoak edo horietan akatsen bat badago, zuzendu ditzaten eskatu.

b.2) Zuzen beteta daudenean, eskaerak Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen TRAMITAGUNE izapidetze-plataforma elektronikora sartzea. Informazioa plataforman sartzean nolana ere zehaztu beharko da aurrez-aurreko eskaera egin den data eta beti egingo da gehienez erakundean egindako eskaerak sartzen direnetik 3 lan-egunetara.

b.3) Laguntza-programei lotutako datu pertsonalen tratamendu-eragile funtzioa eskuratzea, tratamendu horren arduraduna Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza delarik eta tratamenduaren pribatutasun-neurrien arduraduna Saileko Zerbitzu Zuzendaritza delarik.

Tratamenduaren objektua, iraupena, izaera eta helburua; datu-pertsonal mota eta interesdunen mailak, eta arduradunaren betebeharrak eta eskubideak Hitzarmen honen eranskinetan ezartzen dira.

Erakundeek ez badute kontuan hartzen Administrazioa Publikoa edo Sektore Publikoko Araubide Juridikoko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.3 artikulua araberako kondizio hori, inoiz ezingo dute zergen informazioaren hartzaile izan.

Interesdunak informazioa lagatzeko baimena ematen duenean, ezingo diete jasotako zergen informazioa edo informazio ekonomikoa hirugarrenei laga.

Zergen Administrazioak bildutako informazioan oinarrituta laguntza horiek aitortzeko baldintzak betetzen direla ziurtatzen denean, ziurtatze-lan hori zuzenean Administrazio Publikoak egin beharko du. Zehazki eskaeran eskatzaileari buruzko zerga-informazioa eskuratze baimena duen Administrazio Publikoak. Eta gehienez ere, Laguntza Zergen Administrazioako informazioaz gain, Eusko Jaurlaritzak izan dezakeen informazioaren bidez egin daiteke lan hori.

c) Programen eta Lerroen bilakaeraren jarraipena:

c.1) Hiru hilabete behin Etxebizitza Sailburuordetzari Programa eta Lerro bakoitzaren bilakaera eta martxari buruzko informazioa ematea banan-banan, honi buruzko datuak emanez:

- c.1.1) Helburuen bilakaera. Interesdun pertsonen zenbatekoa.
- c.1.2) Helburuen bilakaera. Eskatutako eta erregistratutako laguntzen zenbatekoa.
- c.1.3) Helburuen bilakaera. Eskatutako laguntzen objektu diren «etxebizitza bakarrak».
- c.1.4) Birgaitze Bulegoaren gastuen egoera.
- c.1.5) Hobekuntzarako proposamenak.
- c.1.6) Laguntza-programen bilakaerari buruzko beste edozein informazio.

d) Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuko 3., 4. eta 5. Programei dagokienean, erakundeek haien jarduerak egokituko dituzte Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean (SEEP) jasotzen diren printzipioetatik eratorritako hurrengo betebeharrak;

- d.1) Mugarri eta helburuen jarraipena eta egiaztatpena.
- d.2) Etiketatze berdea eta etiketatze digitala.
- d.3) Jarduketan ondoriozko ingurumenerako arrisku esanguratsuen analisia.
- d.4) Iruzurra eta ustelkeria ekiditea eta interes-gatazka analizatzea.
- d.5) Estatuko laguntza-araubidearen bateragarritasuna ziurtatzea eta finantzaketa bikoitza ekiditea.
- d.6) Laguntzen azken hartzaileak identifikatzerakoan gardentasuna eta komunikazioa.

3.– Erakundeak hiru hilabetean behin hartuko du segidan aipatuko diren Birgaitze Bulegoaren lanetarako laguntzak justifikatzeko jardueren ardura;

a) Egokitu ahalko litzaizkiokeen dirulaguntzen –2. «Birgaitze-bulegoei laguntzeko» Programatik datozenak urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuarekin bat etorri – ordainketa justifikatzeko beharrezko informazioa presatzea eta transmititzea. Informazio horren barnean egongo da zehaztutako helburuen kontura jasotako aurrerakinen egoera, hala badagokio. Horretarako, erakundeak Bulegoari lotutako gastu eta kostuen kontabilitatea eraman beharko du erakundearen gainerako kontabilitatetik banatuta.

Inoiz ezingo dira laguntzaren objektu izan urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuko 23. artikuluan jasotzen ez diren gastuak. Hauek dira jasotzen direnak:

- a.1) Bulegoko informaziorako eta kudeaketarako ekipamenduaren diseinu-, ezartze- eta kudeaketa-kostuak.
- a.2) Eskatzaileen zalantzak eta kontsultak argitzeko zerbitzu zehatzak ematearen kostuak.
- a.3) Eskatzaileak izan daitezkeenei urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuko 3. eta 4. Programetara hel daitezkeen proiektuen kudeaketarako energia-efizientziaren inguruko laguntza eta aholkuak ematearen kostua.
- a.4) Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuko 3. eta 4. Programak sustatzeko eta zabaltzeko jarduera zehatzak egitearen kostuak.

Erakundeak erabat edo partzialki atxikiko ditu langileak eta baliabide materialak zalantzak argitzera eta laguntza eta aholkuak ematera zuzendutako zerbitzuetarako. Kostuen egozpena lotutako jarduketan arabera egingo da (**baliabide pertsonak eta materialak esleitzeko konpromisoa**)

zehaztu beharko da).

Hala ere, goian aipatutako zerbitzuen prestazioa, prestazioaren izaeragatik, bereizi gabe hitzarmenaren objektu diren Programetarako eta Lerroetarako garatzen denean, frogagiriak bakarrik eta berdinak izango dira eta ez dira bereizi beharko.

Aipatutako dokumentazioan jasota geratuko da jarduketa horien kostuak bat egiten duela Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduko VI. eranskineko 025bis esku-hartze eremuarekin «Eginda dauden higiezinaren energia-efizientziaren eraberritzea, demostrazio-proiektuak eta energia-efizientziaren irizpideekin bat datozen laguntzarako neurriak».

b) Sailak Eusko Jaurlaritzaren gardentasun atarian hiru hilabetean behin argitaratu beharreko informazioa prestatzea eta jakinaraztea.

4.– Erakundeek, 2. Programaren kontura azken onuradun eta hartzaile gisa, haientzat hemen ezarritako betebeharrak onartuko dituzte: urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan, azken hori Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina delarik. Erakunde bakoitza jasotako dirulaguntzen egiaztagiria gordetzera behartuta dago eta jasotako laguntzekin lotutako fiskalizazio funtzioak hartzen dituzten erakundeek (Europako Batzordea, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Bulegoa eta Kontuen Auzitegiak) finantza-kontrolak egitera.

Hirugarrena. Erakundearen konpromisoak Erakunde Laguntzaile gisa.

1.– Erakundeak, hitzarmen honen objektu den Programei eta Lerroei dagokienez, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuko 7. artikuluan garatzen diren Erakunde Laguntzaileen eginkizunak bere gain hartuko ditu. Zehazki, hiritarrek aurkeztutako eta aginduetan jasotako laguntzen eskaeren instrukzio-organoen eginkizunak bere gain hartuko ditu, 3., 4. eta 5. Programen eta 1. eta 2. Lerroen urteroko deialdiak erregulatzen dituzten aginduetan jasotakoak.

2.– Erakundeak garatuko dituen Programen eta Lerroekin lotutako hurrengo funtzioak garatuko ditu eta horiez arduratuko da zehazki eta gutxienez:

a) Laguntzen eskaeren administrazio-espeditzea bultzatzea.

a.1) Erregistroan aurkeztutako eskaeraren analisia egitea eta ziurtatzea eskatzaileen baldintza subjektiboak eta kasuan kasuko deialdi-aginduetan ezarritako jarduketaren baldintza objektiboak betetzen direla.

a.2) Eskatutako laguntzak ematearen aldeko edo kontrako ebazpen-proposamena era justifikatuan egitea laguntzen ebazpena egin behar duen organoari.

a.3) Erregistroan aurkeztu den dokumentazioaren analisia egitea laguntzen objektu izan diren jarduketak justifikatzeko eta, hala badagokio, eskatzen den justifikazio-dokumentazioa zuzen betetzeko dagozkion errekerimenduak egitea.

a.4) Eskatutako laguntzen ordainketaren aldeko edo kontrako proposamena era justifikatuan egitea laguntzen ebazpena egin behar duen organoari.

a.5) Hala badagokio, kasuan kasuko eskaera-fitxategiaren proposamena egitea eta izapidetzea beharrezko dokumentazioa aurkeztu ez denean.

a.6) Hala badagokio, lehenago emandako laguntzen emakida aldatzeko edo iraungitzeko proposamena era justifikatuan egitea laguntzen ebazpenaz arduratu behar den organoari, kasuan kasuko prozedimenduak adieraziz, izan laguntzak aldatzeko, iraungitzeko edo itzultzeko.

a.7) Administrazio Publikoen administrazio-prozedura erkideko urriaren 1eko 39/2015 Legearekin bat datozen kasuan kasuko mezuak eta jakinarazpenak kudeatu eta koordinatzea.

b) Eskatzaileen aldeko laguntzen ordainketak egitea.

b.1) Eskatzaileen aldeko laguntzen ordainketak gauzatzea, horien ebazpenaz arduratu behar den organoak horien jatorria ebatzitakoan.

b.2) Eskatzaileen aldeko laguntzen aurrerakinen ordainketak gauzatzea, horien ebazpenaz arduratu behar den organoak horien jatorria ebatzitakoan.

Dagozkion ordainketak egiteko erakundeak sartzan duen dirua ezin da inoiz erakunde laguntzailearen funtsaren parte izan.

c) Programen eta Lerroen bilakaeraren jarraipena eta gardentasuna;

c.1) Hiru hilabetean behin Etxebizitza Sailburuordetzari Programa eta Lerro bakoitzaren bilakaera eta martxari buruzko informazioa ematea banan-banan, honi buruzko datuak emanez:

c.1.1) Helburuen bilakaera. Interesdun pertsonen zenbatekoa.

c.1.2) Helburuen bilakaera. Eskatutako eta erregistratutako laguntzen zenbatekoa.

c.1.3) Helburuen bilakaera. Eskatutako laguntzen objektu diren «etxebizitza bakarrak».

c.1.4) Birgaitze Bulegoaren gastuen egoera.

c.1.5) Hobekuntzarako proposamenak.

c.1.6) Laguntza-programen bilakaerari buruzko beste edozein informazio.

c.2) Programa eta Lerro bakoitzarekin lotutako derrigorrez heldu beharreko mugarriak lortzea horretarako Eusko Jaurlaritzak eskainiko duen ingurune informatikoan.

c.3) Eusko Jaurlaritzaren gardentasun atarian argitaratu beharreko informazioa prestatzea eta jakinaraztea.

d) Erakundeek Programekin lotutako jarduerak irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan ezarritako printzipio eta betebeharrak egokituko ditu. Agindu horren bidez Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik (SEEP) datozen funtsak kudeatzeko sistema taxutzen da. Hauek dira aipatutako printzipio eta betebeharrak:

d.1) Mugarri eta helburuen jarraipena eta egiaztatpena.

d.2) Etiketatze berdea eta etiketatze digitala.

d.3) Jarduketan ondoriozko ingurumenerako arrisku esanguratsuen analisia.

d.4) Iruzurra, ustelkeria ekiditea eta interes-gatazken analisia. Zehazki, erakundeek Iruzuraren Aurkako Neurrien Plan bat eta interes-gatazkei aurre egiteko prozedimendu bat izatea galdagarria izango da.

d.5) Estatuko laguntza-araubidearen bateragarritasuna ziurtatzea eta finantzaketa bikoitza ekiditea.

d.6) Laguntzen azken hartzaileak identifikatzerakoan gardentasuna eta komunikazioa.

3.– Erakundeek, erakunde laguntzaile gisa funtzio horiek garatzeko, langile eta material aldetik dituzten baliabideak zeharo edo neurri batean atxiki ahal izango dituzte.

Laugarrena. 4.– SEEPak Next Generation Funtzen kudeaketa-organoei eskatzen dizkieten betebeharrak konplitzea:

4.1.– 2022ko martxoaren 29an onartutako Eusko Jaurlaritzaren Iruzuraren Aurkako Neurrien Planari atxikitzea, edo, hala badagokio, antzeko edukia duen plan propio bat izatea ekiten duen esparruan funtsak arau aplikagarriekin bat etorri erabili direla ziurtatzeko eta adierazteko, zehazki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazka atzemateari dagokionean. Iruzuraren Aurkako Neurrien Plan propio bat izanez gero, horrez gain, Eusko Jaurlaritzak ezarritakoa ere derrigorrez bete beharko da.

4.2.– Eusko Jaurlaritzak 2022ko martxoaren 29an sinatutako iruzurraren aurkako adierazpen instituzionalera atxikitzea.

4.3.– Interes Gatazka Ezaren Adierazpena (IGEA) ematea hitzarmen honetako IV. Eranskinean dagoen ereduaren arabera. Betebehar hori kudeaketa, kontrol eta ordainketa funtzioak betetzen dituzten langile publikoei ezartzen zaie, baita funtzio horietako bat/batzuk eskuordetu zaien/zaizkien beste eragile batzuei eta onuradunak diren pertsona pribatu, kide, kontratista eta azpikontratistei ere, haien jarduketak funtsekin finantziatzen direnean eta haien interes pertsonalen alde, baina EBren finantza- interesen kontra jardun dezaketenean, interes gatazken esparruan.

4.4.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan aurreikusitako inguruneari «kalte esanguratsurik ez sortzea»-ren printzipioa (do no significant harm - DNSH printzipioa) errespetatzea. Aipatutako erregelamenduaren arabera ezartzen da Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eta aplikatzekoa den gainerako Europako araudia. Horretarako, hitzarmen honen V. Eranskinean jasotzen den ereduaren arabera, DNSH –Kalte Esanguratsurik Ez Sortzearen– autoebaluazioa egin beharko da.

4.5.– SEEPean izendatutako klima- eta ingurune-etiketatzearen eta etiketatze digitalaren baldintzak betetzea, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren arabera.

4.6. Proiektuari egindako erreferentzia guztiek, argitarapenetan, zabaltzeko jardueretan, web orrialdeetan eta, orokorrean, edozein zabalkunde-bidetan, SEEPeko Irudi Eskuliburuan biltzen diren baldintzak bete behar dituzte. Hargatik aurrekoa egotzi gabe, beti agertu beharko da jarduketaren SEEP funtsen bidezko finantzaketaren erreferentzia eta Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak egiten duen horren kudeaketaren erreferentzia, azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 18.4 artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera.

4.7.– Era berean, finantzaketa horren jatorria aipatu beharko da eta hori ikusteko eskuragarri dagoela bermatu, batez ere dirulaguntza-jarduketak eta horien emaitzak bultzatzen direnean. Lan hori hainbat hartzaileri, horien artean komunikabideak eta herria, zuzendutako informazio koherentea, eraginkorra eta neurrikoa emanez egin behar da. Era berean, esparru horretan garatzen diren lizitazio, hitzarmen eta gainerako tresna juridiko guztiek honako erreferentzia hau izan beharko dute bai goiburukoan, bai garapena egiten den gorputzean: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana - Europar Batasunak Finantziatutakoa - NextGenerationEU». Baldintza hori irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan araberakoa da eta bertan Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana ezartzen da.

4.8.– Jasotako funtsen aplikazioaren justifikazio-dokumentuak kontserbatzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatze- eta kontrol-jarduketan objektu izan daitezkeen bitartean.

4.9.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskatzen dion beste edozein informazio eta

dokumentu bidaltzea.

Bostgarrena. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetako (SEEP) 3., 4. eta 5. Programen berariazko jarraipena egitea.

1.– Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila eta ... erakundea, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana osatzen duten norik bere Programekin eta bertako 2. Programaren funtsen aplikazioarekin lotuta, EAEk bere gain hartu dituen helburuak betetzeko, bat datoz hurrengo helburu orientagarriak zehazterekin:

a) Bulegoaren bitartez bideratutako jarduketa (espediente) kopurua:

a. 3. Programa. XXX jarduketa.

b. 4. Programa. XXX jarduketa.

c. 5. Programa. XXX jarduketa.

b) Jarduketa horiez baliatu diren etxebizitza bakarren kopurua:

a. 3. Programa. XXX etxebizitza.

b. 4. Programa. XXX etxebizitza.

c. 5. Programa. XXX etxebizitza.

2.– Aurreko atalean aipatutako helburuen jarraipen egokia egin ahal izateko, hitzarmena indarrean dagoen bitartean helburuak denboran antolatuko dituen egutegi bat zehaztea komeni da, **(izapidetu beharreko hitzarmenean egutegi orientagarri bat zehaztu beharko da)**.

3.– Zehaztutako helburuak betetzetik desbiderapenik bada, aldebiko jarraipen-batzorde bat deituko da egokiak diren zuzenketarako neurriak hartzeko, helburuak markatzeko edo, hala badagokio, hitzarmena indargabetzeko.

Seigarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren konpromisoak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bidez, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (SEEP) Birgaitze Programak erregulatzen dituen urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuko dagozkien Programetarako ezarritako laguntzen onuradun gisa, hau betetzeko konpromisoa hartzen du:

Birgaitze Bulegoari berezkoak zaizkion laguntzeko:

a) Birgaitze Bulegoak konpromisoak betetzeko behar duen informazio eta aholkularitza guztia bere esku jartzea, horrela aurreko klausuletako gainontzeko kudeaketa eta izapidetze funtzioak gauzatzen laguntzeko. Konpromiso horrek Sailak garatutako formakuntza-ikastaroak ematea barne hartzen du. Horretarako, Sailak Bulegoekin harremanetarako solaskide bat aukeratuko du.

b) Bulegoari beharrezko dokumentu-euskarria eskuragarri jartzea eta horretara sarbidea erraztea, baita Eusko Jaurlaritzaren TRAMITAGUNE izapidetze-plataforma elektronikora eta Eusko Jaurlaritzak garatzen dituen Bulegoaren funtzioetarako beharrezkoak izan daitezkeen gainontzeko software programetara ere, eskualdatu beharreko informazioa betea eta homologatua izatea azken helburua delarik; bereziki kasuan kasuko Programetara eta Lerroetara lotutako laguntzak kalkulatzeko.

Birgaitze Bulegoa aitortzeko:

a) Erakundea gehitzea, Birgaitze Bulego gisa, Eusko Jaurlaritzako Administrazio Orokorrak Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioarekin (MITMA) 2. Programari dagozkion funtsak aplikatzeko egiten dituen hitzarmenetan.

Birgaitze Bulegoaren aldeko dirulaguntzak ordaintzeko:

a) Itzuli beharrik gabe ordaintzea, Birgaitze Bulegoaren gastuak aldez aurretik justifikatuz, hirugarren puntuko bigarren klausulan ezarritakoaren arabera, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Estatuko Administrazio Orokoretik jasoko duen 2. Programari (Birgaitze Bulegoei Laguntza) dagokion laguntza, bulego horien funtzioak betetzeagatik eta urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan berariaz adierazitako finantzazio bikoitza saihesteko, 2. Programak 1. Programako laguntzekin duen bateraezintasuna kontuan hartuz.

Jasoko diren laguntzen zenbatekoa 800 eurorainokoa izango da Bulegoak kudeatutako eraginkortasunez birgaitutako etxebizitzako. Kudeaketa 3. Programaren (eraikin-mailako birgaitze-jarduketak) eta 4. Programaren (etxebizitzak birgaitzeko jarduketak) bidezkoa da eta derrigorrezkoa da, dagokion justifikazioaren bidez, Bigarren Klausulan ezarritako Birgaitze Bulegoetako diruz lagun daitezkeen kostuei dagozkien kostuen %100 behar bezala frogatzea.

Dirulaguntzak, aldez aurretik justifikatuta, hiru hilabetean behin ordainduko dira, egokia den likidazioaren ondoren eta, hala badagokio, ordaindu diren aurrerakinen ondoren.

b) Aurreko letrako justifikazioa baino lehen, funts horien aurrerakinak ordaintzea erakundearen alde, hurrengo klausulan ezartzen den araubidea jarraituz.

Erakunde Laguntzaile gisa haien gain hartzen dituzten betebeharretan laguntzeko:

a) Erakundeak konpromisoak betetzeko behar duen informazio eta aholkularitza guztia bere esku jartzea, horrela aurreko klausuletako gainontzeko kudeaketa eta izapidetze funtzioak gauzatzen laguntzeko. Konpromiso horrek Sailak garatutako formakuntza-ikastaroak ematea barne hartzen du. Sailak horretarako Erakunde Laguntzaileekin harremanetarako solaskide bat aukeratuko du.

b) Erakunde Laguntzaileari beharrezko dokumentu-euskarria eskuragarri jartzea eta horretara sarbidea erraztea, baita Eusko Jaurlaritzaren TRAMITAGUNE izapidetze-plataforma elektronikora eta Eusko Jaurlaritzak garatzen dituen eta lankidetzaren funtzioetarako beharrezkoak izan daitezkeen gainontzeko software programetara sarbidea ere, eskualdatu beharreko informazioa betea eta homologatua izatea azken helburua delarik; bereziki kasuan kasuko Programetara eta Lerroetara lotutako laguntzak kalkulatzeko.

c) Erakunde laguntzaileei bigarren ataleko hirugarren klausulan ezarritako betebeharrak era egokian betetzeko laguntza ematea.

Erakunde Laguntzaileentzako autonomia-mailako dirulaguntzak ordaintzeko:

a) Eraikinetan eraikuntza-lanak era eraginkorrean egin ondoren ez badira 3. eta 4. Programetan ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bidez, aldez aurretik izandako gastuak justifikatu ondoren, gehienez 600 euro ordainduko dizkio erakundeari berak kudeatuta era eraginkorrean birgaitutako etxebizitzako. Kudeaketa horiek Birgaitze Bulegoari dagozkion funtzioetan laguntzeko dira eta horretarako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorreko funtsen kontura ordaintzen dira.

Letra honetan xedatutarako ondorioetarako bakarrik, jarduketa kudeatuko lukeen erakundearen egiaztapena eskaeraren dokumentuan bertan egingo da, 3. eta 4. Programetako laguntzen eskatzailearen adierazpenen arabera edo dokumenturik ezean, 3. eta 4. Programetako laguntzei dagokien eskaerako sarrera-erregistroaren titulartasunaren arabera.

Era berean, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bidez, erakunde laguntzaileari, aldez aurretik justifikatu ondoren, gehienez 600 euro ordainduko dizkio era eraginkorren birgaitutako etxebizitzako baldintza hauekin: birgaitzea erakunde laguntzaile-izaera ez den beste birgaitze bulego batek bultzatzen badu eraikuntza-lana, eta hori dela eta erakunde laguntzaileak ezin badu laguntzen kudeaketa-operatiboaren ziklo osoa bete, nahiz eta zeregin hori bete eraginkortasunari dagokionez. Kasu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretara zuzendutako funtsak jasoko ditu.

b) Itzuli beharrik gabe ordaintzea, aldez aurretik gastuak justifikatu ondoren, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorretik, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak Erakunde Laguntzaileen funtzioetan laguntzeko xedatutako dirulaguntzatik gehienez 400 euro era eraginkorren izapidetutako espedienteetan dagoen etxebizitza bakarreko. Tramitazio horiek 3. eta 4. Programen bidez egiten dira, laugarren klausulako b) letran ezarritakoa eredutzat hartuz, ordainketa inoiz dagokion Programen kontu dagoen jarduketaren benetako gauzatzearen menpe utzi gabe.

Zazpigarrena. Aurrerakinak 2. Programari dagozkion laguntzen kontura.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bidez, eta erakundea bat datoz honetan: bulegoa jartzeko kostuak zuzen egituratzeko, 2. Programan aitortzen diren Birgaitze Bulegoei dagozkien laguntzen aurrerakinak egitea beharrezkoa da. Horretarako, Bulegoari egokitu ahalko litzaiokeen laguntzen gehiengo aurrerakina %30ekoa izango da, zenbatekoa hitzarmen honetako laugarren klausulan ezarritako 3. Programako birgaitutako etxebizitza bakarren inguruko helburuen arabera da.

2.– Aurrerakinak elkarlanerako hitzarmen hau berresten denetik hilabete batera eta behin bakarrik emango dira. Ez dira 2. Programaren kontura laguntza gehiago emango erakundeak justifikatzen duen arte aurreko zenbakian zehaztutako eta ezarritako helburuen %30a baino gehiago bete direla.

3.– Funts aurreratuak jasotzeak berekin dakar azken hartzaileentzako ezarritako betebeharrak konplitzea. Betebehar horiek urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren eta urriaren 11ko 38/2003 Legegintzako Dekretuan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauari buruzko Legearen Testu Bategina dena, ezartzen dira.

4.– Harik eta Birgaitze Bulegoak aldez aurretik emandako zenbatekoa jasotzeko eskubidea duela justifikatu arte, aurrerakin horiek inoiz ez dira erakundearen funtsaren parte izango eta erakundeak horien kudeaketarako funts berezi bat sortu beharko du. Bere erregimen juridikoa hemen ezarriko da: alde batetik, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan eta abenduaren 30eko 36/2020 Errege-lege Dekretuan eta, bestetik, plan horrek garatzen duen Mekanismoan.

Zortzigarrena. Hitzarmena aldatzeko araubidea. Hitzarmenaren edukia aldatzeko sinatzaile guztiak ados agertu beharko dira.

Bederatzigarrena. Hitzarmenaren indarraldia.

1.– Hitzarmena aldez aurretik suntsitzeko aukera egotzi gabe, Hitzarmenaren indarraldia izenpetzea berretsi zenetik 2026ko abenduaren 31ra artekoa da eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Kontseiluaren ... Aginduaren efektu-datatik aurkezten diren laguntza-eskaera guztietan eragingo du. Agindu horretatik aurrera egingo dira urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuko 3., 4. eta 5. Programei dagozkien laguntzetarako deialdiak.

2.– Alderdietako batek bere gain hartutako konpromisoetakoren baten urratzen badu, beste alderdiari Hitzarmena suntsitzeko eskubidea emango dio.

Hamargarrena. Datu pertsonalen tratamendua.

Hitzarmen honen objektu den datu pertsonalen tratamenduari Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2016ko apirilaren 27ko 2016/1979 (EB) Erregelamenduan ezarritakoa aplikatzen zaio. Datu pertsonalaren tratamenduaren arloan, Erregelamendua pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, 95/46/ce Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duen datuen zirkulazio askeari buruzkoa eta Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari buruzkoa.

HITZARMENA indarrean sartzen den egunean, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietatea datu pertsonalen tratamenduaren arduradun egiten da. Horrela, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak du tratamendu horren ardura eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak da tratamendu horren pribatutasun neurrien arduraduna.

Tratamenduaren objektua, iraupena, izaera eta helburua; datu pertsonal mota eta interesdun-mailak, eta arduradunaren betebeharrak eta eskubideak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eta XXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietateak sinatzeke duten I. eranskinean ezartzen dira.

Eranskina ezin da Hitzarmenetik banatu eta horren zuzenbidezko izaera bera du. Gainera, Eranskina loteslea da Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduko 28.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Hamaikagarrena. Hitzarmenaren araubide juridikoa. Jarraipena.

1.– Hitzarmen honen izaera juridikoa eta administratiboa da eta interpretatzeko eta garatzeko honi jarraituko zaio: Administrazio Publikoen arteko elkarlanerako administrazioen arteko hitzarmenatarako autonomia- eta estatu-mailako araudiari; bereziki Sektore Publikoko Araubide Juridikoko urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoan eta, horrez gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean Erakunde Laguntzaileek dirulaguntzen esparruan dituzten betebeharrak dagokien guztian.

2.– Bi alderdiak ados daude partehartzaile kopuru bereko alde biko batzorde bat eratzean, hitzarmen honetan haien gain hartutako konpromisoen jarraipena eta interpretazioa burutzeko.

3.– Hitzarmena indargabetu ahalko da, bi alderdi sinatzaileetako edozeinenek eskatua, Sektore Publikoko Araubide Juridikoko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikuluan biltzen den indargabetzeko edozein klausula betetzen bada. Hitzarmena indargabetzeko akordioak, gauzatzen denean, alderdien artean konplizteke dauden betebeharrak ekonomiko galdegarriekin bukatuko du.

Hala ager dadin eta adostasunaren frogak gisa, Hitzarmen honen bi ale sinatzen dira aipatutako lekuan eta datan.

Erakundea,

Lurralde plangintza, etxebizitza eta
garraio sailburua

XXX.

Sinadura: Iñaki Arriola López

XXX.,

SINADURA:

I.A ERANSKINA

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN ARLOKO BETEBEHARREI BURUZKOA

(Eranskina ezin da Hitzarmenetik banatu eta horren zuzenbidezko izaera bera du. Gainera, Eranskina loteslea da Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 26ko 2016/679 (EB) Erregelamenduko 28.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera).

I. TRATAMENDU-ENKARGUAREN OBJEKTUA

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietatea gaitzen da Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Kontseiluaren 2022ko ekainaren 21eko AGINDUAREN babesean aurreikusitako laguntzak kudeatu eta izapidetzeko beharrezko datu pertsonalak tratatzeko, tratamendu-eragile gisa eta eranskin hau barne hartzen duen Hitzarmeneko baldintzetan. Agindu horren bidez, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan bildutako bizitegi-eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia handitzeko birgaitzerako laguntza-programekin lotutako laguntzen deialdi publikorako oinarriak ezartzen dira eta deialdia erregulatzen da. Aipatutako errege dekretuaren bitartez, halaber, Next Generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko –Europar Batasunak finantziatutakoa– bizitegiak eta etxebizitza sozialak birgaitzeari buruzko 3., 4. eta 5. Programak erregulatzen dira.

Honetan datza tratamendua:

- Bilketa.
- Erregistratzea.
- Egituratzea.
- Kontserbazioa.
- Erkatzea.
- Berreskuratzea.
- Kontsulta.
- Komunikazioa.
- Transmisio bidezko komunikazioa.
- Interkonexioa.
- Mugaketa.
- Eraldaketa.
- Ezabatzea.
- Suntsiketa.
- Bestea batzuk.

II. ERAGINPEKO INFORMAZIOA IDENTIFIKATZEA

Hitzarmen honen objektua betetzetik eratorritako prestazioak gauzatzeko, tratamendu-arduradun den Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak **EZ** dio

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietateari informaziorik emango, laguntzen kudeaketa eta izapiderako beharrezko datu pertsonalak zuzenean jaso eta tratatuko ditu XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietateak.

III. IRAUPENA

Hitzarmenaren bederatzigarren atalean aurreikusten da eranskin honen indarraldia.

Indarrean egoteari uzten dionean, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietateak eranskin honetako IV. ataleko i) letran zehazten den bezala ekingo du.

IV. TRATAMENDU-ERAGILEAREN BETEBEHARRAK

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietatea eta bere langileak honetara behartuta daude:

a) Tratitzen dituen datu pertsonalak Hitzarmen honen objektu den helbururako bakarrik erabiltzea. Inoiz ezingo dituzte helburu pertsonaletarako erabili.

b) Datuak Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren jarraibideen arabera tratatzea.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietateak jarraibideetakoren batek 2021ko apirilaren 27ko Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua edo datuen babesari buruzko Batasuneko edo kide diren Estatuetakoa beste edozein xedapen urratu duela baderitzo, eragileak berehala emango dio horren berri Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari.

c) Tratamenduaren edozein arduradunek burututako jarduera-kategoria guztien erregistro idatzia jasotzea, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza berariaz barne hartuz. Hau izan behar du erregistroak:

1. XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietatearen izena eta harremanetarako datuak; bertako datuak babesteko ordezkariarenak, hala badagokio, eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzarenak.

2. Arduradun bakoitzaren ardurapean egindako tratamendu-kategoriak, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza berariaz barne hartuz.

3. Hirugarren herrialde edo nazioarteko erakunde bati datuak pasatzea aurreikusita ez badago ere, gertatuko balitz, transferentzia horien arteko harremana, baita aipatutako hirugarren herrialdearen edo nazioarteko erakundearen identifikazioa ere eta, 2016ko apirilaren 27ko Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduko 49. artikuluko 1. ataleko bigarren paragrafoan adierazten diren transferentzien kasuan, berme egokien dokumentazioa ere bai.

4. Datuen tratamenduarekin lotuta aplikatzen diren segurtasunezko antolakuntza-neurri eta -tekniken deskribapen orokor bat, hauei lotuta:

a.– Datu pertsonalak izenordeengatik ordezkatzeko eta zifratzea.

b.– Tratamendu-sistema eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia iraunkorra ziurtatzeko gaitasuna.

c.– Datu pertsonalen eskuragarritasuna eta horietara sarbidea azkar berreskuratzeko gaitasuna, gorabehera fisiko edo teknikoren bat izaten bada.

d.– Tratamenduaren segurtasuna ziurtatzeko neurri tekniko eta antolamenduzkoen eraginkortasuna kontrolatzeko, ebaluatzeko eta balioztatzeko prozesua.

e.– Hirugarren pertsoneri daturik ez helaraztea, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren berriazko baimena bada salbu, legalki onargarriak diren kasuetan.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietateak datuak helaraz diezazkieke Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzako beste tratamendu-eragile batzuei, Zuzendaritzaren jarraibideen arabera. Kasu horretan, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak, alde aurretik eta idatziz, datuak jasoko dituen erakundea, helarazi beharreko datuak eta komunikaziorako segurtasun-neurriak identifikatuko ditu.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietateak hirugarren herrialde bati edo nazioarteko erakunde bati datu pertsonalak transmititu behar badizkio, Batasuneko edo kide diren Estatuetoako Zuzenbidea betez, alde aurretik Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari jakinaraziko dio lege-eskakizun hori, Zuzenbide horrek interes publikoagatik debekatzen badu izan ezik.

d) Azpikontratazioa.

Hitzarmenaren objektu diren eta datu pertsonalen tratamendua berekin dakarten prestaziorik ez azpikontratatzea, eragilearen zerbitzuek normal funtzionatzeko beharrezko zerbitzu osagarriak izan ezik.

Tratamenduren bat azpikontratatzea beharrezkoa balitz, alde aurretik eta idatziz helarazi beharko litzaioke Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari, hamar egun baliodun lehenago, azpikontratatu nahiko liratekeen tratamenduak zehaztuz eta enpresa azpikontratista eta bere harremanetarako datuak argi eta garbi identifikatuz. Azpikontratazioa burutu ahal izango da Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak ez badu zehaztutako epean aurka egiten. Baina alde aurretik Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari kontsulta egin beharko dio.

Azpikontratista ere tratamendu-eragilea denez gero, bera ere behartuta dago dokumentu honetan ageri diren XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietatearen betebeharrak konplitzera, baita Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak ematen dizkion jarraibideak ere. XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietateari dagokio harreman berria erregulatzea, eragile berria Sozietatearen baldintza beren (jarraibideak, betebeharrak, segurtasun-neurriak...) eta forma-betekizun beren mende egon dadin, datu pertsonalen tratamendu egokiari eta eraginpeko pertsonen eskubideak bermatzeari dagokionez. Eragileordeak betebeharren bat urratzen badu, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietateak horren ardura osoa izaten jarraituko du Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren aurrean.

e) Sekretupean mantentzea eskura izandako datu pertsonalak Hitzarmena betez, baita horren objektua bukatu ondoren ere.

f) Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonak, berriaz eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta segurtasun-neurri aproposak betetzeko konpromisoa hartzen dutela bermatzea. Horretarako, era egokian eman behar zaie segurtasun-neurri buruzko informazioa.

g) Aurreko atalean zehaztutako betebeharra konplitzearen egiaztagiria Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren esku mantentzea.

h) Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsoneri datu pertsonalen babesean beharrezko formakuntza ematen zaiela bermatzea.

i) Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari honako eskubide hauek baliatzeari erantzuten laguntzea:

1. Eskurapena, zuzenketa, ezabapena eta aurkakotasuna.

2. Tratamenduaren mugaketa.

3. Banakako automatizatutako erabakien objektu ez izatea (profilen garapena barne).

Eraginpean dauden pertsonen eskurapenerako, zuzenketarako, ezabapenerako eta aurkakotasunerako eta banakako automatizatutako erabakien objektu ez izateko eskubideak Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren aurrean erabiltzen dituztenean, horrek Sozietateari jakinarazi egin behar dio. Jakinarazpena berehalakoa izan behar da eta ezin da inoiz lanegun bat baina gehiago pasa eskaera jasotzen denetik, horrekin batera, hala badagokio, eskaera ebazteko esanguratsuak izan daitezkeen beste informazio batzuk eman behar dira.

j) Informaziorako eskubidea.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietateak, datuak jasotzen dituen momentuan, egingo diren datuen tratamenduei buruzko informazioa eman behar du. Informazioa emateko erabiltzen den idazkera eta formatua izango dira laguntzen eskaera-ereduan agertuko direnak.

k) Datuen segurtasun-urratzeen berri ematea.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietateak Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari, behar baino gehiago luzatu gabe eta edonola ere 48 orduko gehiengo epea baino lehen, bere gain dauden datu pertsonalen segurtasun-urraketak jakinaraziko dizkio eta segurtasun-gorabehera dokumentatzeko eta jakinarazteko esanguratsua den informazio guztia emango dio.

Jakinaraztea ez da beharrezkoa izango segurtasun-urraketa hori nekez izan daitekeenean arriskutsua pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako.

Edukiz gero, gutxienez hurrengo informazioa emango da:

a) Datu pertsonalen segurtasun-urratzearen izaeraren deskribapena eta, ahal denean, eraginpeko interesdun motak, horien gutxi gorabeherako kopurua eta eraginpeko datu pertsonalen erregistro motak, horien gutxi gorabeherako kopurua barne.

b) XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietateko datuen babeserako ordezkariaren izena eta harremanetarako datuak, hala badagokio, edo informazio gehiago lortu ahal izango den beste harremanetarako gune bat.

c) Datu pertsonalen segurtasun-urraketaren ondorio posibleen deskribapena.

d) Datu pertsonalen segurtasun-urraketa zuzentzeko hatutako edo proposatutako neurrien deskribapena eta, egokia bada, efektu kaltegarriak arintzeko hartutako neurriak ere bai.

Informazioa aldi berean ematea ezinezkoa bada, eta hala den neurrian, informazioa era gradualean emango da, behar baino gehiago luzatu gabe.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietateari dagokio ahal den epe laburrenean interesdunei segurtasun-urraketak jakinaraztea, urraketa erraz pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako arrisku handia izan daitekeenean.

Komunikazioa hizkera argi eta sinplean gauzatu beharko da eta gutxienez hau eginez:

a) Datuen babes-urraketaren izaera den azaldu.

b) XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietateko datuen babeserako ordezkariaren izena eta harremanetarako datuak eman, hala badagokio, edo informazio gehiago lortu ahal izango den beste

harremanetarako gune bat adierazi.

c) Datu pertsonalen segurtasun-uraketaren ondorio posibleak deskribatu.

d) Datu pertsonalen segurtasun-uraketa zuzentzeko Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak hatutako edo proposatutako neurriak deskribatu eta, egokia bada, efektu kaltegarriak arintzeko hartutako neurriak ere bai.

e) Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari datuen babesaren inpaktuari buruzko ebaluazioak egiten lagundu, egokia denean.

f) Egokia denean, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari lagundu kontrol-agintaritzari alde aurreko kontsultak egiten.

g) Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren esku jarri betebeharrak konplitu direla frogatzeko beharrezko informazio guztia, baita arduradunak edo berak baimendutako beste auditore batek auditoretzak edo ikuskapenak egiteko behar den informazioa ere.

h) Segurtasun-neurriak ezarri.

Dena den, mekanismoak ezarri beharko ditu honetarako:

1) Tratamendu-sistema eta -zerbitzuetan konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko.

2) Datu pertsonalen eskuragarritasuna eta horietara sarbide azkarra berreskuratzeko, gorabehera fisiko edo teknikoren bat izaten bada.

3) Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarritako neurri tekniko eta antolamenduzkoen eraginkortasuna kontrolatzeko, ebaluatzeko eta balioztatzeko.

4) Datu pertsonalak izenordeez ordezkatzeko eta zifratzeko, hala badagokio.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietatea Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren zuzenbideen menpe egongo da pribatutasunaren arloan.

i) Datuen erabileraren amaiera.

Hitzarmena bukatutakoan, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietateak datuak tratatzeko erabilitako ekipamendu informatikoetan egon litezkeen datuak zeharo ezabatuko ditu.

Aldi berean, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietateak Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari datu pertsonalak itzuliko dizkio eta, egokia bada, datuen tratamendurako erabilitako horien euskarriak ere bai.

Itzulpen horrek berekin ekarri behar du eragileak erabilitako ekipamendu informatikoetako datuak erabat ezabatzea.

Hala ere, eragileak datuak behar bezala blokeatuta dituen kopia bat gorde dezake, Hitzarmena betetzetik ardurak erator daitezkeen bitartean.

Lan horiek burutzeko, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren segurtasunari eta pribatutasunari buruzko zuzenbideen mende egongo dira bai XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietatea, bai Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.

V. TRATAMENDU-ARDURADUNAREN BETEBEHARRAK

Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari dagokio eta, egokia bada, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari:

a) XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietateak egingo dituen tratamendu-lanek datuen babesean duten eraginaren ebaluazioa egitea.

b) Dagozkion aldez aurreko kontsultak egitea.

c) XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Sozietateak Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua bete dezan zaintzea, aldez aurretik eta tratamendu osoan zehar.

d) Tratamendua gainbegiratzea, ikuskatzeak eta auditoretzak gauzatzea barne.

II.B ERANSKINA

IRUZUR, USTELKERIA EDO INTERES GATAZKA ARRISKUAREN EBALUAZIOARI BURUZKOA.
INTERES GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA (IGEA)

(Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenaz gain, hirugarrenen interes-gatazka eta iruzurren aurrean ekiteko plan bat existitzen dela, prozedimendu bat eskura dagoela, ere frogatu behar da, horiek saihesteko, antzemateko, zuzentzeko eta pertsegitzeko neurri egokiak barne hartzen dituen).

Kontratuaren edo deialdiaren izena:

.....

Espediente-erreferentzia

(Deklaratzailearen nortasuna),en/(a)n (erakunde deitzailea) gisa zerbitzuak ematen dituena,

ADIERAZTEN DUT

Lehenengoa. Informazio honen berri dudala:

7. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) (EBeko Finantza Erregelamendua) Erregelamenduko 61.3 «Interes-gatazka» artikulua hau ezartzen duela: «interes-gatazka egongo da arriskuan jartzen direnean eginkizunen inpartzialtasuna eta objektibotasuna, honako arrazoi hauengatik: familia-arrazoiak, arrazoi afektiboak, kidetasun politiko edo nazionala, interes ekonomikoa edo interes pertsonalari lotutako edozein zuzeneko edo zeharkako arrazoi».

8. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64 «ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa» artikulua helburuak helburu hauek dituela: lehiaren desitxurapena saihestea, prozedimenduan gardentasuna bermatzea eta hautagai eta lizitatuak guztien arteko tratu-berdintasuna ziurtatzea.

9. Sektore Publikokoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23 «Abstentzioa» artikulua ezartzen duela prozeduran esku hartetik abstenituko direla «hurrengo atalean zehazten diren egoeretakoren bat duten administrazioetako lan egiten duten agintari eta langileek»:

a) Landuko den gaiaren interes pertsonala izatea edo landuko den gaiaren ebazpenak egin diezaiokeen beste batean; interesdun sozietate edo erakunde bateko kudeatzailea izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Ezkontza-lotura edo antzeko egiteko egoera izatea eta laugarren gradurainoko odolkidetasunezko ahaidetasuna edo bigarrenerainoko ezkontza-ahaidetasuna izatea interesatuen arteko edonorekin, erakunde edo sozietate interesdunetako administrazioarekin, baita prozedimenduan esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari eta mandatariekin ere, edo haiekin laneko bulegoa partekatzea, edo haien kide izatea aholkularitzan, ordezkartzan edo mandataritzan.

c) Aurreko atalean aipatutako pertsonaren batekin laguntasun estua edo ageriko ikusezina izatea.

d) Dagokion prozedimenduan aditu edo lekuko gisa esku hartu izana.

e) Gaiaren zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridiko batekin zerbitzu-harremana izatea, edo azken bi urteetan hari edozein motako zerbitzu profesionalak eskaini izana edozein

egoera eta lekutan.

Bigarrena. Ez dagoela/daudela EBeko Finantza Erregelamenduko 61.3. artikuluan interes-gatazkatzat jo daitekeen egoeretako batean ere, ezta lizitazio/emakida prozedimenduari eragin diezaiokeen Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluko abstentziorako kausa batean ere.

Hirugarrena. Konpromisoa hartzen duela/dutela kontratazio-organoari, ebaluazio-batzordeari edo hierarkiako nagusiari, luzatu gabe, jakinarazteko interes-gatazka edo abstentziorako kausa den edozein egoera, agertoki hori sortzen duena edo sor dezakeena. Gainera, hala bada ebaluazio prozesuan eta prozedimendu horrekin lotutako ekintza guztietan parte hartzeari utziko diot.

Laugarrena. Prozedimendu hauen esparruan garatzen diren zereginak eta dokumentazioa konfidentziasunez tratatuko ditudala eta horietan parte hartzeagatik jasotzen dudana informazioa ez dudala era desegokian erabiliko.

Bosgarrena. Badakit faltsua dela frogatzen den interes-gatazkarik ezeko adierazpen batek, aplikatu beharreko araudiak zehazten dituen diziplina- administrazio- eta lege-ondorioak izango dituela.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NANA)

III.C ERANSKINA

INGURUMENARI «KALTE ESANGURATSURIK» EZ ERAGITEKO PRINTZIOA (DNSH)
BETETZEARI BURUZKO

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

..... jaunak/andereak, NAN zenbakia duenak, elkargo ofizialekoa elkargokide-zenbakidun teknikari-titulazioa duenak, IFZ duen erakundearen izenean eta bera ordezkatzuz,

ADIERAZTEN DU

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (SEEP) esparruko deialdiari dagozkion laguntzak eskatzeko aurkeztutako «.....» eraikinaren proiektu, memoria edo liburuaren egilea dela.

Laguntzak eskatzeko aurkeztutako eraikinaren proiektu, memoria edo liburu horrek, edo horretatik eratorritako jarduketek, aipatutako programaren barnean, honako hau betetzen dutela:

Bertan garatzen diren jarduerak ez diete kalte esanguratsurik sortzen segidan aipatuko diren ingurumenarekin lotutako helburuei, 2020/852 Erregelamenduko (EB) 17. artikulua araberako. Artikulu horrek marko bat ezartzen du ingurumenerako jasangarriak diren inbertsioak errazteko ingurumenerako jasangarriak diren jarduera ekonomikoen sailkapen-sistema (edo «taxonomia») bat ezarri. Hona hemen ingurumenarekin lotutako helburuak:

- Klima-aldaketa arintzea.
- Klima-aldaketara moldatzea.
- Ur- eta itsas-baliabideen erabilera jasangarria eta babesa.
- Ekonomia zirkularra, hondakinak saihestea eta birziklatzea barne.
- Atmosferaren, uraren eta lurzorua kutsaduraren prebentzioa eta kontrola.
- Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta errekueratzea.

Jarduketek 853/2021 Errege Dekretuan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzte, gainera, jarduketak 2. osagarrian zehaztutako eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren islatutako ezaugarri eta baldintza espezifikoetara moldatzen dira ingurumenerako helburu bakoitzerako:

Ingurumenerako Helburua	Jarduketetan bete beharreko baldintza espezifikoak
1. Klima-aldaketa arintzea.	Energia-efizientzia hobetuko da 2010/31/EB Zuzentarauan ezarritakoaren arabera. Horrek kontsumoek behera egin dezaten lagunduko du eta, beraz, GEB* isurketak gutxitzen.
2. Klima-aldaketara moldatzea	Ez dira baldintza zehatzak azaltzen, baina jarduketek helburu honetarako onurak dakartzate (eraikuntzen eta ingurunearen baldintzen hobekuntza).
3. Ur- eta itsas-baliabideak	Ez dira baldintza zehatzak azaltzen jarduketek ez dutelako helburu honetarako ondorio esanguratsurik sortu behar.
4. Ekonomia zirkularra	<p>Proiektu-mailako baldintza espezifikoak:</p> <p>i. Berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk errekuperatzeko erabiliko dira eraikitzen den lekuetan sortutako eraikuntzatik eta eraispenetik eratorritako arriskutsuak ez diren hondakinen gutxienez %70 (pisuan), hondakinen jerarkiaren eta EBko Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen kudeaketa-protokoloaren arabera. Hondakinen erabilpen horiek beste material batzuk ordezkatzeko hondakinak erabiliko dituzten betelanak barne hartzen dituzte. %70 horretatik kanpo gelditzen da 2000/532 /EC Erabakian ezarritako Hondakinen Europar zerrendako 17 05 04 mailan aipatzen den material naturala.</p> <p>ii. Operadoreek eraikuntzarekin eta eraispenarekin lotutako prozesuetan sortzen den hondakin kopurua mugatu beharko dute, EBko Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen kudeaketa-protokoloaren arabera. Horretarako eskuragarri dauden teknika hoberenak kontuan hartu beharko dituzte eta eraispen selektiboa erabili beharko dute sustantzia arriskutsuak segurtasunez kendu eta eskuztatu ahal izateko eta kalitate handiko berrerabilera eta birziklapena errazteko materialak era selektiboan kenduz, eraikuntzarako eta eraispenerako eskuragarri dauden sailkapen-sistemak erabilia. Halaber, eraispena ahal izanez gero era selektiboan egitea hobetsiko da, baita sailkapena hondakinak sortzen diren lekuan egitea ere.</p> <p>iii. «Eraikinen diseinu eta eraikuntza-teknikak zirkulartasunaren aldekoak izango dira eta, bereziki, frogatuko dute, nola dauden diseinatuta ISO 20887ren edo eraikinen desmuntatzeko gaitasuna edo moldagarritasuna baloratzeko beste arau batzuen arabera, baliabideen erabilera eraginkorragoak, moldagarriagoak, malguagoak eta berrerabilera eta birziklapena ahalbidetzeko desmuntagarriak izateko».</p>
5. Kutsadura	Ez dira ondorio nabarmenak espero. Neurri horretan aurreikusitako jarduketek garapenean erabiliko diren eraikuntzarako osagarri eta materialek ez dute amiantorik izango, ezta 1907/2006 (EE) Erregelamenduko XIV eranskinean ageri den baimena behar duten sustantzien zerrendan oso kezkarri bezala identifikatzen den sustantziarik ere. *
6. Biodibertsitatea eta ekosistemak	Ez dago baldintza zehatzik azaltzen, jarduketek ez dutelako biodibertsitatean ez ekosistemetan zeharkako edo zuzeneko eragin kaltegarririk sortu behar.

(* 853/2021 Errege Dekretuan ezarritako programaren baldintzak.

Erantzukizunpeko adierazpen honen objektu diren jarduketek DNSH printzipioaren helburuekin lotutako indarrean den araudi aplikagarria beteko dute.

Proiektuan eta proiektua laguntzen duen hondakinen kudeaketari buruzko ikerketan deskribatutako jarduketek b) azpiatalean deskribatutako ekonomia zirkularren helburuaren oinarriko ebaluazioa egiteko ezarritako irizpide zehatzak betetzen dituzte, honen arabera:

Proposatutako eraikinen birgaitzea lehendik eginda dauden eraikinek markatzen dituzten baldintzetatik abiatzen da. Ondorioz, eraikuntza zirkularreko irizpideak esku-hartze zehatzek ahalbidetzen duten heinean kontuan hartu dira.

Kontuan hartutako eraikuntza-teknikek zirkulartasunaren alde egiten dute: proposatutako jarduketetatik eratorritako eraikuntza- eta eraispen-hondakinen (EEH) gutxienez %70 berrerabili, birziklatu eta errekuperatu ahal izateko beharrezko neurriak hartu dira.

Adierazpen honetan ezarritako baldintzetakoren bat hausten bada, jasotako dirua eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira.

Eta horrela ager dadin, adierazpen hau sinatu dut ...(e)n..... sinadura digitaleko egunean.

Eskudun teknikariak sinatua.